

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXX Zenbakia.

1 995

Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

	Orr.
Esaerak.- (Barruko azalean). Solozabal tar Paulin	
Euskalerrri euskalduna? Olazar tar Martin	1
Euskal izenak Erdiaroko Idazkeran. Latiegi tar Bixente	5
Bizkaierazko aditza atzo eta gaur. Pedro Puxana	16
Euskal aditza noizkoa ote? Latxaga	32
Jatabe'ko Bertsoak. Felixiana Inebasoko'ri.- Legarreta tar Asier	36
Euskeraren Batasuna lortzeko bidea. Zatarain dar A.	42
Bariñako Armistei errotakuak. Angel Kareaga	48
"Z" izkíren betekizun bat. Umandi	52
Santa Clara'ren kanta zaar bat. Lekuona tar M.	56
Oñatibia tar Manu'k jasotako esaldi jatorrak. (Kanpo eta barruko azalean).	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

ESAERAK

- Bestearentzat kontzientzia, norberarentzat lizentzia.
- Bokaiño bako karrerie, ta transitu bako karrerie.
- Balizko erroreak urunik ez.
- Begi txarrak jota dago ori. Ementxe amaitu da orren izangoa.
- Aurrerapenak ez dau mugarik ez mugarririk.
- Arraioak neuriak ta eurak naikoak.
- Onak jakin daki. Asko dakiala esateko... esakera ederra, dakiala esateko.
- Zer egin dozue gaur goizian...? Gaur goizian ibili ta ibili egin gara.
- Or dago untzea.
- Izenez aberats, izanez txiro.
- Emakumearengandik jaiotako gizonarentzat, egunak urri; oiñazea ugari.
- Zugatzak itxaropena dauka. A ebagiarren, barriztu egiten da...
- Gizonezkoa il eta geldi geldi geratzen da. Arrapazak ori.
- Nolako Perutxo, alako Maritxo.
- Zure laguna nolako, zu bere alako.
- Arraintzara joateko: Itxasoa nolakoa dagon ikusi bear.
- Noizko, nolako nongoak, laster jakingo dituzu.
- Euskaldunaren begia, urrezko da ta egia.
- Urte askoan txapela kaskoan.
- Ondo egiñaren pague, ate ostien palue.
- Ona onaren arerio izaten da.
- Ama gaisoari semeak dirautso: Ama, zer egin neike zu poztuteko. "Eta amak dirautso; Itz egizu, berbetan zagozen bitartean, ba-kit bizi zareala-ta".
- Jaun prestu batek itzaldi aundi baten ondoren, apari on bat itxaroten eban... Ta etxera eldukeran, "apari bat" baiño ez eutsan ipini neskameak. Ta orduan gose ta egarriak emoten daben minberatasunaz esan eutsan: "Au da abade jaunari ipinteko aparia?".
- "Ba, erantzun eutsan neskameak... berorrek egin daben "sermoiagaz" nor ausartu ba, geiago ipinten...? Eztau esan ba, penitentzia egin bear dala...?". "Bai egia da, olan esan dot nik, erantzun eutsan abadeak, baiña ikusi dozu, iñoiz, zelaian txistua joten dabena dantzan egiten? Nik txistua jo bear dot, zuek dantzan egin...!".
- Guk Azkue Jauna beratu ta txikertu nai izatea litzake, arratoi batek Oizko mendiari orpoa jan nai izatea...
- Aintza ta aintza Azkue jaunari, euskeraren biztutzaille bizkorrenetaikoari...".

Solozabal tar Paulin'ek batuak

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.Ñ.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao

ARDURA ETA KEZKAK EUSKERAREN JOKABIDEAN

Azken Azillean, Azaroan, Nafarroako erri txiki bat arduratsu eta kezkatu agertzen zan euskerari buruz artu bearreko joeran: Arruatzu.

Eta ango kezka Iruña'ra eldu zan.

Ez da erri bakarra.

Gero eta geiago dira Nafarroako erri txikietatik "Euskerazaintza" eskatzen dutenak, elkarte eta kultura batzarretan erabilteko. Gero ta ugariago erri euskeran idatzitako liburuak eskatzen dituenak, zerbait ulergarri irakurri aal izateko.

Euskera ikasle eta zaletuak ugarituz batera, gaurko euskaldun askoren ardura eta kezka gero ta nabariagoa da.

Orrela napartar ikasle batzuk, Euskaltzaindia eta Euskerazaintzaren arteko mai inguru bat eratu zuten eta Abenduaren 1-an, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ordu bi luzetan arretaz, arduraz eta kezkaz jarraitu oraiñarte erakunde bi orrein artean egin dan agerbide agiri eta zabala.

Ara jai orretarako zabaldu zuten deia.

Bai eta bertan maikide Izan zan Martin Olazar gure zuzendariak egindako laburpen bat:

EUSKAL-HERRI EUSKALDUNA? BAI . DENAK ADOS. BAI NA ZEIN EUSKARA EREDUAREKI N?

Gaurko Euskara Batuaeren erredua egokiena al da? Bizkaiera eta Xiberuera haintzakotzat hartuak dira? Euskerak batasun baten beharrik ba al du? Betiko Euskara, Euskara herrikoia bizitza modernorako baliagarria suertatzen zaigu, hala gaurkotu eta egokitu beharrean daukagu?

EUSKARA BATUA - EUSKARA HERRIKOIA BIAK POSIBLE HALA BATA BERTZEAREN KONTRA

Guzti honetaz aritzeko mahainguru bat prestatu dugu EUSKALTZAINDIA eta EUSKERAZAINTZAREN artean.

EUSKALTZAINDIA:
- MIREN AZKARATE
- PATXI ALTUNA
- XABIER AMURIZA

EUSKERAZAINTZA:
- MAÑU OÑATIBIA
- JOSE M. LATXAGA
-ASIER ETXABURUA

DATORREN ORTZEGUNEAN, ABENDUAK 1
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN,
ARRATSALDEKO 7-tan, 08. gelan.

UDAL **EUSKARATALDEA**

ARRUATZU'TIK IRUÑA'RA

(BATUA TA EUSKALKIAK)

Arruatzu'ko talde batek egin eban dei oraintsu EUSKERAZAINTZA'ra eta eskari bat egin eban: Euskera ikasteko bideak artzerakoan, ez dabela jakiten batua ala euskalkiren bat ikasi eta gai orrerj buruz argibide batzuk nai ebezala.

Gu gertu gengozala erantzun geuntsen, baiña eskari bardiña egin eban Euskaltzaindi'ra be eta erantzuna bardiña izan zan.

Arruatzu'n bertan izango zala batzar au uste genduan, baiña Arruatzu'ko gazte bat da Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusian edo "Publikoa". Euskerearen arduradun eta an izan mai-ingurua.

IRUÑA'KO URI-IKASTETXE NAGUSIAN

Abenduaren lenengo egunean urreratu giñan ba Iruña'ko Uri-Ikastetxe Nagusira. Euskerazaintza'tik Manu Oñatibia, Asier Etxaburua eta idaz-lan au izenpetzean dauana joan giñan eta Euskaltzaindi'tik Patxi Altuna, Miren Azkarate eta Xabier Amuritza.

Areto eder baten alkartu giñan eta Arruazu'ko seme dan gaztea erdian genduala jarri giñan maian seirok. Eun entzule gazte genkazan aurrean.

Gure maiaren barrenean itaun bi irakurri leikezan, biak egokiak: ¿Bearrezkoa da euskera batua? Ba al dago gataskarik batuaren eta uskalkien artean?

Ordu bi igaro genduzan batzar edo mai-inguru aretan eta eziña da ordu bitan esandako gauzak emen agertzea, baiña aundi-maundiak beintzak agertuko doguz.

IDAZKEREAREN ARAZOA

Manu Oñatibia izan zan lenengo itz egin ebana. Onek Ortografia edo idazkerearen arazoa atera eban: Aurreko gizaldietan izan dan batasunik eza, Arana'tar Sabin'ek agertu eban idazkera-bidea, Euskaltzaindiak lan orreri egin eutsan onartzea, 1968n. urtearen aurreko batzarrak eta Arantzazu'ko batzar ospetsua, 1978'an Bergara'n izandako batzar Nagusia eta ortik sortu zan Euskerazaintza Euskeraren Akademi barria.

Gero txandaka guztiok berba egin gendun, baiña, ez luzatzeko, gaiak aita-tuko dodaz.

BATUA BEARREZKOA?

Patxi Altuna'k esan eban euskera batua bearrezkoa ez dala iñok ez dauala esaten. Mai aretan iñor ba'lego baturik ez dala bear diñoanik, jaso dagiala be-soa.

Beingoan ikusi al izan ziran iru beso gora jasota. Zeintzurenak ziran esan bearrik ez dago.

Gero Patxi'k gaiñeratu eban berak gogoan daukana ez dala gaurko batu au, zelako edo alako batu bat baiño.

GATASKA? ALA KALTEA?

Patxi Altuna'k aurrean geunkan itaunarj zuzen-zuzenean erantzun nai izan eutson: Batuaren eta euskalkien artean gataskarik ete egoan.

Erantzuna argi emon eban: Bai, ba-dago gataska, eta zer? Gataska sortu dalako atzera egin bear ete dogu?

Erantzun oneri buruz, Martin Olazar'ek egin eban berba: Gataska badago eta zer? esan dau Patxi'k. Baiña arazoa ez da gataskarena, arazoa da batuak kalte aundia egiten dautsela euskalkjai. Gure bizkaieria kontuan dogula, etxeetan guraso ta seme-alabak alkar ezin dira ulertu, ikastoletan euskerea ikasten eta kanpoan erderaz berba egin, ikus-irratian batua baiño ez da entzuten eta gero ez dago etxean alkar-izketarako erreztasunik... Kalte ikaragarria egin dautso Batuak Bizkai'ko euskereari eta ilteko arriskuan jarri dau gure euskalkia. Orain esango eta dau Patxi'k: Bai, Bizkai'ko euskereari kalte egin dautso batuak, eta zer? Ez dot uste olakorik esango dauanik!

Miren Azkarate'k erantzun eban labur, kalte orreik ba'dira be, ez dala batuaren erruz.

BATUA TA ERDEL ITZAK

Xabier Amuritz'a'k esan eban gero, berak ez leukela nai ezergaitik be euskerea sub-español edo sub-frantzes biurtzea. Gaur ikusten dan erdelitzak artzeko erreztasuna eukan gogoan eta naikoa luzaro berba egin eban arazo oneri buruz.

Asier Etxaburua'k emon eban erantzuna: Batua bera zala orretarako bidea artu dauana, eta berba batzuk aitatu ebazan, "independentzia" esaterako, eta Europa'ko beste izkuntzetan jazoten dana kontuan arturik, argi azaldu eban jokera orren bide okerra. Izan be Asier'ek Europa'ko jzkuntzak ikasten diardu.

Barrero erantzun eban labur Miren'ek, olako itzak euskerara sartu ba'dira ez dala ori batuaren eragiña, idazle batzuren baiño.

IKASTETXE NAGUSIAN ALA ERRIAN?

Martin'ek egin eban urrengo itzaldi labur bat: Euskerea aspaldion Ikastetxe Nagusiaren maillan aurrera doala entzun dot eta orrek auxe dakarts burura: Latiña eundak urteetan erabilli izan da Ikastetxe Nagusietan, erria beste bide batetik, erromantzeen bidetik, joiala. Baiña azkenean latiña il egin zan eta erromantzeak bizi dira. Orixe jazoko jako gure euskereari, ikastetxe nagusietan batua erabilliko da, baiña erriak euskalkiak jzango ditu bere izkera, eta euskalkiak galtzen ba'dira ikastetxe nagusietako batua be galdu egingo da urteen joanean.

Latiña ez dala il, erromantzeetan bizi dala esan eban Patxi'k eta or eztabaide sortu zan, erriko esanen eta izkuntzalarienen artean.

EUSKALKIAK ILGO BA'LTZAZ,,,!

Ez noa aitatu izten beste puntutxu bat.

Patxi Altuna'k onako au esan eban: Baldintzapean djñot, euskalkiak ilgo ba'ltzaz be, euskereak bizirik jarraitzen ba'dau... au da garrantzirik aundiena dauana.

Martin'ek emon eutsan lenengo erantzuna: Negargarria da benetan Patxi'k

esan dauana, naizta baldintzapean esan. Euskalkiak maite doguz eta euretan dago euskerea, guk maite dogun euskerea, eta zuk ilgo ba'litzaz, orrek garrantzi gitxi leukala diñozu. Baldintzapean? bai, baiña baldintzak euren esanaia dauke. Geroago argitu jakon au Patxi'ri: Nik au esango ba'neu: Patxi arren, munduak jarraitzen ba'dau zer? Zuk zer esango zeunke.

Bigarren erantzuna Manu'k emon eban: Euskalkiak iltzea onartzea erri-ilkeé ta edo "jenozidio" ikaragarria onartzea da.

AMAITZEKO...

Idaz-lan onetan agertutako gaiakaz naikoa argi ikusten dala uste dot batzar aren aria nondik nora joian. Ba-dago kaseten bat gauzak zeatzago ta argiago jakin nai dabezenentzat.

Dana dala, ordu bian esandako gauzak askoz geiago dirala ezin ukatu.

Eta zer? Onuragarria izan zan batzar ori.

Egia esan, olako eztabaidetara joatea ez jako iñori atsegin izaten, baiña gauza asko argitu zirala uste dot, argibide asko emon beintzat.

Gure aldetik ez dago eragozpenik Euskaltzaindiagaz alkar-izketa egiteko, eta orretarako joan giñan euren gizarte-etxera irailaren 8'an. Orretarako eskiñi gintzan Bergara'ko batzarrean, Manu'k itaun baten erantzunez esan eban lez.

Beste alde batetik, eun gazte eta lruña'n entzule ta alkar-izketan izatea gauza pozgarria da. Bide orretatik joian an izandako beste itaun bat: Euskera-zaintza'n gazte asko ete egozan. Asier'ek erantzun eban gazteak ba'dagozela Euskerazaintza'n eta geiago ez izatea be ulertzekoa dala, ikaskintzako mailla guztietan batua erabilten dan aldi onetan.

Onuragarria izan dala mai-inguru au uste dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek



EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(873'tik 884'ko larruki bi)

873'ko orrillaren 29'ko larruki ortan agertu zitzaizkigun toki ta doneen ize-
nak azertuak bait ditugu, soilki giza-izenak dauzkagu azterketa baten zai.

Onatx emen giza-izen oien zerrenda:

Didaco Ovecoz, Guntroda, Guisandus, Vincius, Gundissalvus, Gondis-
salvo Beilaz (eta leenagoko dokumentuetan aztertzeke gelditu zitzaidala uste
dedan Sancius, euskaldunontzat izen maitagarria).

SANCIUS: Naiz urtegarrena ziurra ez, Ubieto'ren ustez 872'ko Uztai-
lla'ren 4'ekoa dan larruki batean agertu zitzaigun euskal-itx zaar au utzi gen-
duan aztertzeke: "Sancius presbiter scripsit": "Santxo bereterrak idatzia".

Izen zarra Euskalerrian, Santxo au. Kukulla'ko Donemillian'en Lekai detxe-
ko larrukietan 855'ko Uztaillaren 5'ean agertzen zaigu aurrenekoaldiz, eta or-
duan ere lumalari baten izena da: "Sancius presbiterscripsit". Urte batzuk ge-
roago, 15-111-863, gotzai bat datorkigu izenorrekin: "Sancio episcopo hic tes-
tis et confirmans": "Santxo gotzaiaemen lekuko ta sendotzaille". Urrengo ur-
tean, (2-IV-864), gotzai beraberriri: "Sancio episcopo hic testis" eta azkenik,
- IX mende ortan-, beste gotzai bat: "Sancio episcopo confirmat", "Santxo
gotzaia sendotzaille", 869'an (larrukiak ez dakar illaren eta egunaren aipurik).

Izan zan, ordea larruki auetako Santxo oiek baiño Santxo zaarragorik Eus-
kalerrian: Nik ezagutzen dedan zarrena, VIII mendean 780'tik 810'era, Fran-
kiarren "Waskonia"ko Duke izan zan Lupus Sancius, Karlomagno'ren adiski-
de aundi ta laguna; eta, orregaitik, euskaldunek ez ongiegi ikusia.

Izen zarra benetan gure Santxo. Izen euskalduna gaiñera ezpairik gabe.
Bere etimologia ezezaguna zaigu. Itzulketa batzuk eman zaizkio, euskal-itxu-
ra geixeagoz jantzirik agertu dedin: "Antxo", "Antso"...

Alperrik ordea. Era berri oietara aldatu ere, len bezain ulerkaitza jarrai-
tzen bait du bere etimologiak.

Auñamendi euskaldunaren bi aldeetan sortutako izena dugu, - or ager-
tzen bait da beste iñon baiño leenago giza-izen bezala-, eta ortik beste lu-
rraldeetara zabaldu.

Azaldu ditugun larruki oietako Santxo ez da oraindik izen kristaua. Santxo
izeneko Donea - "Sanctus Sanctius" - mende ber-berortakoa bait da, IX
mendekoa!

IX mendean Kordoba'ko Eulojio Doneak ematen digu Donesantxo onen berri "Memorialis Sanctorum" edo "Doneen Oroigailu" izeneko liburuan:

"Santxo Donea, nere ikaslea, ezelizgizona, mutil gaztea": ("Sanctus yero Sanctius auditor noster, laicus, adolescens"):

Santxo, "Albensi oppido", ots, "Alba , -(Albe?) - , "uri arresituan" jaio zala diosku Eulojio'k, eta "uri arresitu" ori, Araba'ko Albeniz dala esan oi da, edo, agian, Agurain'en alboan egon ornen zan Albizu erri ezabatua.

"Albensi oppido". "Albensi" adjetibu-eran dator. Sustantibu-eran izen ori "Alba" edo "Albe" biurtzen zaigu.

ALBA bat Antonino'k bere "Itinerarium" edo Bideliburuan, Tullonio (¿Araba'ko Dulanzi?) eta Araceli (¿Uarte Arakil?) urien artean ipiñi zigan. Tolomeo'k ere aipatu zigun Alba ori (II, 6,58). Ta, ainuzen, Alba ori egon ornen zan lekuan dago Araban gaur-egungo Albeniz erriska. Eta ez urruti Agurain-ondoko Albizu zar ura². Bordele'tik Astorga'ra erromatarrek egindako bide nagusi zabalaren alboan biak: bai gaurko Albeniz errixka au, bai atzoko Albizu zar ura. Araba'ko Bardulitarren lurra.

Donesantxo'ren "Albensi oppido" ura "Gallia Comata"n zegoala diosku Eulojio Doneak. Gallia, Frantzi'ri esan zioten erromatarrek. Gallia Comata, IX mendean, Akitani'ri esaten zitzaion. Ala Doneulojio berak Wiliesindo Iruña'ko gotzaiari, Frantzi'runtz bere bidaldia jarraitzerik ez duala adierazteko arrazoi au ematen dionean: "Quae Pampilonem et Seburicos limitat Gallia Comata", ots, "Iruña'rekin eta Zubiritarrek muga egiten duan Galia Comata" iraultza bizian zebillela, ango buruzagia, Santxo Santxez Dukea Karlos "Burusoilla" frankiarren erregearen aurka jeiki zalako³.

"Sancius Sancionis" duke orren Gallia Comata, Akitani euskalduna zan.

Baiñan aro artan Akitani'ri ez ezé "Gallia Comata" esaten zitzaion, baitare, orduango "Vasconi" osoari, ots, Auñamendiaren bi aldeetako Euskalerrri guztia. Musulmanek Araba soillari ere deitu izan zioten "Gallia Comata"; eta baié ta "frankiarrak" ere maiz aski Araba'ko gudariei⁴.

Ederki izan zitekean, beraz, Araba'ko Bardulitarren uri bat Doneulojio'ren "Albensi Oppido" ura, Iruña'tik eta Zubiri'tik Araba ez bait dago ain urruti.

Auñamendiaz aruntz, bada, eta bazan orduan ere Albi izeneko uri bat, ge-

1 R. P. Agustín S. Ruiz, O. B. "Obras Completas de San Eulogio". Edición Bilingüe. Córdoba, 1959.

2 "Albizu, Albizua: despoblado de Salvatierra". Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa" Barcelona 1989.

3 L. c. 416 or. "Seburicos"ek "Seburikoak" esan nai du. "Seburi" Arga ibaiean zegoala dio Eulojio'k berak. Gaur egungo Zubiri zala uste da. "Santxo Santxez". Orra or IX mendean berriro Santxo izena eta Santxez abizena. Abizen oietako "EZ", "ES", "IZ" eta "IS" atziki senditasun-adierazleen euskal-jatorriari-buruz, ots, agiangoa euskal-jatorriari-buruz, mintzatuak gera. Ez dezagun aztu gaztelera euskeraz itzegiten zan lurraen jaio zala.

4 "Comata" orrek zer esan nai duan inork ez daki. "Oiantzua", "zugaitz askokoa", Estornes Lasa'ren ustez. Araba'ri dagokionez beintzat, ¿ez ote du "Galia Comata" orrek "Kontearen Galia esan nai? "Comes" "Kontea" bait da lateraz, eta ongi ezagunak bait dira Araba zar artako Konteak. Eta "coma" itzak "adatsa", "illedia", esan nai dualako ez da "Galia Comata"k "Kalpardunen Galia" esan ni duala uste izan duanik peitu. Ta, aditza bezala "Comare"k, "illez, belarez, ostoz, eta orrelako gauzez beterik egotea" esan nai dualako itzuli digu Estorne Lasa'k "Gallia Comata" "Gali Oiantzua" (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco". "Galia" itzean).

Danadala izen parregarriak ezarri zizkieten erromatarrek Frantzi zarrari, itzei berenez duten zentzua ematen ba'diegu: "Gallia Togata" "Gallia Cisalpina" edo "Alpez-Onuntzkoari": gaurko Piamonte ta Lombardiarri ("toga" erromatar dotoreek jantzi oi zuten kapusaia da). "Gallia Comata" edo "Gali Kalparduna" "Gallia Transalpina" edo "Alpez-Aruntzkoari". Asieran Transalpina osoari esaten zioten orrela, Mediterran Itxasoaren ertza guztia artzen zuan "Septimania"ri izan ezik. Oni "Gallia Bracata" esaten bait zioten: "Gali Prakaduna".

ro XII mendean "albigenses" edo "albitar" erejeek ospetsu eginen zutena. ALBIGA esan zioten erromatarrek uri orri. Garona ibaietik aski urruti, Tarn ibaiaren ertzean dago.

Euskalduna zan noski Albiga ura erromatarrek Krist'aurreko I mendean Galieta sartzen asi ziranean. Eta, - jakia bait da atzeritarrek gure itzetako "R" a "L" biurtzeko duten zaletasuna -, baleike, uri artara iritxi ziranean bertako biztanleen agotik "ARBIGA" entzun zuten izena, denborarekin Albiga biurtu izatea.

Baiñan, IX mendean, gure Santxo Donea jaio zanean Arbiga ez zan agian euskalduna, naiz Auñamendiaren alde ontan la aren "meridiano" edo eguerdi-lerro berean dagoan Ueska oraindik euskaldun izan, eta XIV mendean azkeneraño euskaldun jarraituko. Oroi nola Ueska'ko Udalak azokako tratuak euskeraz legezatzeta debekatu zuan 1.349'garren urtean.

Ez litzake beraz arrigarriega izango IX mendeko Arbiga artan ere, aski uguriak izatea Santxo izeneko gizasemeak. Alare ez dut uste gure Santxo Done au, an jaioa izan zitekeanik.

Askoz gutxiago gaiñera Doneuljoio'ren esaldia itzez-itzez duan bere zentzuan artzen ba'dugu. Eta ona zergaitik:

Doneuljoio'k ez bait du gure Santxo Donea an jaio izan zanik esaten, musulmanek an arrapatua izan zala baizik. Ona Euljoio'ren esaldia bera:

"Ex Albensi oppido Galliae Comatae olim captivatus": "Galia Comata'ko Albensi uritik bein batean katigu artua". Uri ortan arrapatua izan ba'zan eta andik Kordoba'ra eramana, uri ori ez daiteke Tarn ibaieko Albiga ura izan; IX mendean ez bait ziran musulmanak beren lapurkerizko ibillaldi azkarretan ariño iristeko gauza.

Ar dezakegun, beraz, aski ziurtasun ederrez, Euskalduna eta seguruaski bardulitarra izan genduala Doneuljoio'k laburki aipatzen digun Santxo Done gaztea. Laburki, esan dut. Bere bizi guzia sei lerrotan ematen bat digu:

Bein musulmanen eskuetan, Kordoba'ra eramana izan ornen zan. Eta ez zuan nolanaiko zori bikaiña izan uri eder artan! Euljoio'k ezagutu zuanean, "erregearen zaintzarako prestatzen ari ziran mutillen artean ornen zegoan bá, yare, gudariketa ikasten" (inter militares regis pueros liber praescriptus) "gastu guztiak erregearen kontu zirala", (regalibus annonis nutritus).

Kordoba'n errege ori 850'ean, Abderraman II zan.

Ikusi dugunez, gure Santxo Kordoba'ra iritxi bezain laister, katigutza orotik yare, Kalifen zaintzarako gudari gazteak gertutzen zituan akademira sartu zuan norbaitek. An sartua izate orrek, gure Santxo mutil garaia, sendoa, bikaiña eta ederra zala erakusten digu.

Nolabait, - ez du esaten Euljoio'k nola -, egin zuten alkarrekin topo gizon aundi santu onek eta Santxo kalifazaingaiak.

Ordurako, ordea, kristaua zan Santxo gaztea, ezpairik gabe. Aren kristautze-bideaz eta bataioaz ez bait digu Euljoio bere maixuak deus esaten. Bere jaiterrian bertan, Bardulitarren Alba artan izan zan seguruaki bataiatua⁵.

Orregaitik ainzuzen, - Kordoba'ra iritxi aurretik ere kristaua zalako -, joan zan al izan zuan bezain laister Euljoio'ren billa. Gizaseme yarea, eta, gaiñera, kallfazaiñen akademiko ikaslea zalarik, nai zuan bezala ibiltzeko ez bait zuan iñondiko eragozpenik.

Ez dakigu zergaitik eriotzara epaitua izan zan, Espaiñi'ko musulmanak ez

⁵ "Jaiterri", nere iritiz, "jaioterri" beino obeki, erriak izkera jatorrez "jaiotetxe" ez baiña "jaitetxe" esaten duan bezala.

bait ziran kristau zigortzailleegiak izan, Agian Eulojio'ren adiskide ta jkasle zalako. Izugarri garrantzi aundiko gizona izan bait zan IX mendean, bera ere martiri il zitzaigun Eulojio Donea,

Ona nola agertzen digun Santxo'ren eriotz ikaragarria:

"Kalifen uri ber-berean (in eaden urbe regia), beste martirien kristauéaitorpen bera egin zualako, (sub eaden profesione), ostirala zan 850'eko ekaiñaren bostean (nonas lunias, era qua supra, feria sexta) makurtuerazia (prostratus) eta makillean ezarria izan zan (affixus)".

Izen leguna "affixus" ori, ikaragarrikeri bat adierazteko. "Clavado en un palo y levantado en alto para que expirase as! y sirviese de escarmiento al pueblo", jtzuli du Agustln S. Ruiz'ek (l.c. 155 or.). Baiñan askoz gogorragoa izan zan Santxo Doneari eman zioten eriozkera.

Euskerak izugarrikeri orrentzako itzik ez du. Gaztelarak "empalamiento" esaten dio. Lurrean sartutako makil zorrotz baten punttaren gaiñean esertzen zuten erailbearra, eta bertan utzi, makil arek esteak-gora astjro sartuz bizia kentzen zion arte. Agustln S. Ruiz'ek berak aitortzen du orripeko oar betean, Doneulogio'k "prostratus et affixus" esaten dion oiñazeketa orri arabitarrek "empalamiento" esaten ziotela.

Itz bat Santxo'ren etimologiaz, Done oni eskeiñi diogun ataltxo au borobiltzeko. Oraintxe etorri zait burura, Santxo, lateraz "Sanctius" esaten dala.

Itz ori, ablatibuéeran "Sanctio" biurtzen da. Jaso dezagun gogoan, ablatibu ori, Euskerak laterari artu dizkion itzik geienak ablatibu-eratik artu dizkiolako. Sanctio, ordea, Santio eta Sancio billakatu zan erdiarloan. Orrela aipatzen du "Bibliotheca Sanctorum" iztegi mardulak ere izen ori: "Sancio (Santius, Sanctius) martire de Cordova", eta orrela idatzirik ikusi dugu guk ere goraxeago IX mendeko larruki auetan.

Sancio, ordea, ezrez biurtzen da Santxo. Orixe gertatzen da italiarren artean ere. SANCIO idatzi eta SANTXO agoskatzen bait dute. Orrela, naiz Rafael Sancio idatzi, Rafael Santxo esaten diote Birjaiotzako margolari ospetsu ari.

Laterazko "Sancio"tik sortua ote dugu b euskerazko Santxo".

Orrela ba'litz ere, sorketa ori Euskalerrian egiña izan zalako, izen euskalduna izango genuke izen ori.

Baiñan ez dut uste orrela danik. "Sancio"k "donea" esan nai du lateraz. Eta izen ortako donerik ez da bat ere done-iztegietan ageri. Ez da beraz seé kulan doneéizena izan IX mendean gure Santxo au martiriotzaren bidez donetasunera igo zan arte. Orregaitik, berari eta bere aurrekoei izenez Santxo jarri zietenean, izen ori ez zan oraindik done-izena.

Gaiñera ez da sekulan entzun_Elizak iñori bataiatzekoan "santu" izena ezarri izan dionik. Jakiña bait da, nolako arduraz ibilli oi dan Eliza, eta kristau erria bera, iñori "santu" izena emateko. Orregaitik ez da sekulan "Santu" izeneko santurik izan. Eta orrek, Santxo izen euskalduna laterazko "Sancio"ren itzulpena ez dala esan nai digu; beste bide batetik jo bearko dugu, euskera beraren barruan izen orren etimologia billatzeko.

Etimologi ori zer izan daitekean? Esan dizut Lopez Medizabal'en ustez "Anso"tik datorrela; eta, au, "Anso", "larre" esan nai omen duan "Ando"-tik. Ez dut uste ori ain ziurki esan daitekeanik, naiz Kerexeta'k, (ontzat artzen duala esan gabe) Lz. Mendizabal'en etimologi ori bere liburura jaso izan. Baiñan benetan jakingarria iduritzen zait Kerexeta'k "Anso" itzaz mintzatzera-koan diona ("Dic. Onomstico y Herldico Vasco" Bilbao, 1.970):

"Anso. Nombre muy antiguo en el País Vasco derivado de Ando, pastizal. De aquí viene el latín Sanctius y el castellano Sancho: Anso con S protica. (Ikusi duzunez, nik, alderantziz izan daitekealako kezka agertu dut goraxearago). "Según Juan Carlos de Guerra Sancho fue un nombre desgraciado, pues su equivalente euskrico Anso se interpretó también erróneamente Alonso, Alfonso"6.

Jaun ospetsu oiei danei zor zaien eraspelik galtzeke, ez dedala uste ori egia danik, esango diet nik apalki.

Ez dakit gaiñera nondik atera zuan Lopez Mendizabal'dar lxaka nere lagun maiteak "Anso" "pastizal" dalako ori. Orrelako etimologi ariñegiak asko ditu gure lxaka onuragarriak. Onuragarri esan diot, eta pozik gaiñera, onelako lanetan aurrenekoetakoa bera izan gendualako. Gauza erreza izaten bait da, bidea urratu duanaren atzetik akatsak billatzen ibiltzea.

Alatagutziz, Santxo é Anso - Alonso - Alfonso itzen arteko-senidetetasuna sakonago aztertu nai duanaren barruan ez nuke jakin-guraren arrik erail naita, orrelako ari bidea erreztarren, beste zerbaít geiago agertu bearrean aurkitzen naiz:

ALONSO ez dala oraindik done-izena;

ALFONSO izeneko lenen santua santu ez dan bat izan zala: IX mendean, 842'an il zan II Alfontso Asturietako erregea. Euskalduna seguruaski, Muña euskaldunaren semea zalako, eta, errege zalarik ere, Asturietatik igesi, ama euskaldunaren sendi euskaldunean asti batez bizi bear izan zualako. Ez da, ordea, Santua. "Bibliotheca Snctorum"ek aipatzen du, baiñan, soilkj, Obieé do'ko eliz batean noizbaít santu lez omendua izan ornen zalako.

- Alfonso ta Alonso'ren kideko ILDEFONSO ere ez zala done-izena VII mendera arte. Mende ortakoa bait da Doneildefonso Toledo'ko goigotzaia.

- Nondik ote ditugu básortuak, bat bera diran iru izen oiek? Bai ote dute zer ikusirik Juan Karlos Gerra'k aipatu digun ANSO'rekin? Ez dut uste. Baiñan or uzten dut aidean pelota, iñork errestora sartu nai ba'du.

- DIDACO: "Ego senior Didaco Ovecoz una cum uxore mea domna Guntroda"; "Ego autem senior Didaco Ovecoz et mea domna Guntroda". "Ni Didako Obekorena jauna Guntroda nere emazte andrearekin batera". "Ni Didako Obekorena jauna eta nere andre Guntroda". Larruki au idatzierazi zuten senar-emazteen izenak dira.

DIDAKO ez-bide zan done-izena XV mendera arte. 1.400 jaió bait zan gutxigorabera Azebedo'ko Diego, Burgo de Osma'ko gotzaia. Espasa Iztegiak badamaigu VI mendeko Donedidako palestindar bat, an basamortuko bakar-tasunean lekaide bizitu zana, baiña ez da Bibliotheca Sanctorurñ'en agertzen.

"Didako" izan daiteke "Jakobo"ren aldakuntza ere, baiñan ez da sinistekoa aldakuntza ori ain azkar egin zanik, VI mendean alegia. Askoz gutxiago oraindik Ispanietatik at, ainzuzen Diego, sortzez, izen españiarra dala bait dirudi. Seguruaski, Didako ori larruki ontara geroago sartua izan bear du. Milla aldiz esan oi dugun bezala, Kukulla'ko larruki auek askotan izan bait dira berri-datziak.

- OVECOZ: "OBEKORENA". Didako'ren abizena. Abizen orren enborra

6 Mitxelena'tar Koldo ere, "Santxo" "Anso"tik datorrelaren ustekoa da ("Apellidos Vascos", Donosti, 1973. 38 eta 537 zenb.), baiñan ez zait bere arrazoiketa egokia iruditzen.

dan Obeko izena ere ez da done-izena. Ez bait da iztegieta agertzen, ez "B"z, "OBECO" ez "V"z, "OVECO". Badu euskaldun-itxura: Obe-Ko. "Ko", abereetan aberekume adierazi nai duan atzizkia da: Zaldizko (potro); Otsoko (lobato); ollasko (pollo): belasko (pollo de cuervo); aariko (carnerito)...

Zer ote da "OBE"? Abere bat edo baten izena? Euskalerrian gizakumeei abere-izenak jartzeko oitura bazala, gauza jakia bait da.

- GUNTRODA: Didako Obekorena'ren emaztea. Itxuraz, ez da izen kristaua andre orrek zeraman izen au ere, ez dut ba, ez arrik ez emerik, izen or-tako Donerik aurkitu. Izenak germaniara dirudi. Ez da beintzat euskalduna.

- VINCIUS: "Vincius episcopus confirmat", "Bintzio gotzaia ziurtzaille". Ezin izan dut Vincius, Vintius, Bincius, Bintius, Vincio, Vintio, Bincio edo Bintio izeneko donerik idoro. VINCENS, "Garaille", ote zan egiaz izen ori? Orrela ez ba'litz, naiz bera gotzaia izan, ez zuan kristaua, zeramakian izena.

Nongo Gotzaia ote zan? Balpuesta'koa? Armenti'koa?

Ez beintzat Oka'koa. Oka'n azkeneko gotzaia 693'an Kostantzio izan bait zan. Ezta Burgos'koa ere, uri onek eun urte geroago, 988'an, izan bait zuan bere lenen gotzaia. Najera'k, I Benedikto, 938'an. Kalagurri, berriz, maometarrek artu zutenez gero gotzairik gabe egon zan 1.046'a arte.

Balpuesta'n bai, izan zan Vincentius izeneko gotzai bat, baiñan ia eun urte geroago 969'tik 975'era. Gure Vincius au 873'koa da. Urte ontan ordea ez da Balpuesta'ko gotzai-zerrendan gotzairik agertzen. Aurrekoa, Santxo, 869'an il zan; urrengoa, Fredulfo, 894'koa da. Bien artean 25 urteko utsune bat agertzen zaigu, eta utsune ortan gure Vincius au izango zan Balpuesé ta'ko gotzaia.

Armenti'n, Alvarus izan zan lenengo Gotzaia, 877'tik 888'ra. Orren aurrekoari, Bibere jaunari, "Araba'ko gotzai" esaten dio guk emen aztertua dugun 871'ko larruki batek. 871'tik 877'ra 6 urte daude. Badago beraz tarterik aski Armenti'ko gotzaiogan ere 873'ko gure Vincius onentzat.

Alare nik egokiago ikusten dut bera Balpuesta'ko gotzai-aulkian Armenti'koan baiño, larruki onek aipatzen dituan lurraldeak, gaur Burgos'ko probintzian eta orduan Autrigoni'ren ego-soartaldean bait zeuden: Balpuesta'rena izandako elizbarrutian.

Orrelako zerbait esan bearko dugu idazlan onen asieran agertu zaizkigun Santxo (bat?, (bi?), (iru? gotzaietaz ere. Iru Santxo oietatik, aurrenekoa (863'koa) eta bigarrena (864'koa) bat bera dira ziurki, eta baita seguruaski irugarrena ere (869'koa). Nongo gotzaia izan ote zan? Balpuesta'koa ezpairik gabe, bera baita, an, 863'tik 869'ra agertzen zaigun Santxo

- GUIсандUS: Ez da done-izena. Laterara biurtutako izen euskalduna ote da? Ablatibu-eran badu beintzat ala dalaren itxura: GISANDO.

Bada euskeraz "GISA"z asten diran izenen sortatxo eder bat: Gisasola, ezagunena: "retamal", Lz. Mendizabal'en iritzia ontza artzen ba'duzu ("g" edergaillua + "isats"="retama" + "ola" atzizki ugaritasun adierazlea); Giasolo ("gisa + solo); Gisatsa ("gisa + "tsa" atzizki ugaritasun adierazlea); Gisazelai; eta gure "GISANDO"ren antzekoena, "GISANDI"7.

"Gisa" ori "itsats", "retama", dala egia ba'litz, "DO" eta "DI" atzizki toki ata ugaritasun adierazleak diralako, "S" ta "N" izki edergaillu ta goxagailluak ba'lié ra, bai GISANDI ta bai GISANDO, "retamal" izango lirake. Bai ote? Ez bait

7 Lz. Mendizabal'ekin bat dator oraingoan ere Mitxelena. Baiñan ez dut uste, berak dion bezala isats "quizá también el participio itsa (t) si "aderido", "agarrado" izan daitekeanik (l.c. 337).

dugu aztu bear "Ando" bera euskal atzizkia dala: Abando, Luyando, Pando (Prango 1.025'eko "burni-barren larrukian") Luzkando (Araba'ko erri ezabata), Arando (Pasaí'ko kaiaren sarreran; Sabando Araba'ko erria...

Eta aurizki bezala, (Andoain, Andoin, Andonegi, Andosilla ("andots" + "illa" atzizki ugaritasun adierazlea), Andoitz eta abar), aunitz izenetan aurkituko duzu. Ando bera, arma-arri ta guzti, euskal abizena dala diosku Kerexeta'k; eta "larre" esan nai duala, gazteleraz "pastizal". Zori txarrez, gure iztegiek ez dakarre zentzu ori dezakean ez "ando"rik ez "anda"rik. Arazo auei-buruz oso fidagarria ez dan Lz, Mendizabal'engandik jaso izango du seguruaski Kerexeta'k "Anda" "pastizal dalako albistea.

Españi'n, Abila'n ainzuzen bada Guisando bat, Durango'n dagoan gure "Mikeldi" sasijainkoaren antzeko gaur lau (Zerbantes'en denboran bost) arrizko irudiak dauden erria: "los toros de Guisando". Frantzi'n, berriz, ongi ezaguna dute "Guise" "Guisa"ren aldakuntza. Baiñan ez dut uste bi izen oietatik batek ere, ez frantziarrak ez espaiñarrak, gure larrukiko "Gisa"rekin zer ikusirik izan dezaketenik.

- GUNDISSALVUS: Bi eraz dator izan au larruki ontan: "Gundissalvus Abba confirmat" eta "Gondissalvo Beilaz confirmat". Gizon bat bera ote ziran biak? Ez dirudi, aurrenekoarengandik bere burua bereizteko ezarri bait zuan larrukian bigarrenak bere abizena, itxuraz beintzat. Aurrenekoa abata zan; bigarrena ez dakigu zer izan zitekean.

Done-iztegieta ez dator ez Gundissalvus'ik ez Gondissalvo'rik ez oien antzekoa izan daitekean izenik. Ez ziran, beraz, izen kristauak.

Euskeraz bi izen oiek Gundisalbo edo Gondisalbo izango ziran noski. Atzizkia, "sal-bo", euskerazkoa dute, "SAL" Euskalerrian oso maiz agertu oi dan itza bait da. Nai aiña aurkituko dituzu gure iztegieta. Araba'n bakarrik, (l.c.) "Sal" aurizkia daramatenak, 141 dira. Ori, Salbatierrabide'k, "Salinas" eta seguruaski "Saltzedo"k bezala, "Sal" ori erderatik etorria duten izenak zenbatu gabe!

SAL, "larre" dala dio Lz Mendizabal'en iztegiak, gazteleraz "pastizal". Ez dakit nondik aterata. Gure iztegieta "Sal"ik ez bait dager. Ezta "zai"ik ere. "Sala" bai, eta aztertzen diardugun larrukiko izen auen etimologiarako, "sala" orren zentzurik egokiena "borda" dala iduritzen zait: "cortijo".

- BEILAZ: "Beilarena". Aipatu-berri dugun Gondisalbo'ren abizena. BELA, bardulitarren eta baskoien "BELE", erdiaroan autrigoitarren artean sarri agertu oi dan giza-izena dugu. Eta baita beragandik sortutako izen eta abizenak ere: Belasko, Belez, Beilaz... Oroi abere-izenak jartzeko euskaldunen oituraz aitzintxe esan duguna.

SARRAZINI: "Sarrazini Alvariz confirmat". Mintzatua naiz izen ortaz. Oso maiz agertzen da erdiaroko euskal-idazkietan: "Sarracin", "Sarrazini", "Sarracinez"... eta baita "Sarrizinaz" ere, emakerara biurturik, "Ama"rekin joku egin dezan, 1.076'ko larruki batean: "Ego Tello Ennecoz de Sancti Romane venit mihi voluntas vel accesit necessitas vendidi casas meas proprias (...) Et ego Ama Sarrazina similiter venijt voluntas et vendidi terra mea propria" (Ubieto'ren liburuan. Serrano'renak, bi "mihi" oiek "michi" dakarzki, "miki" agoskatuak izateko): "Nik San Roman'go Tello Enekorena'k gogoak eman didalako edo bearkizunak ortaratu naulako, nereak diran etxeak saldu ditut (...) Eta nik ere Ama Sarrazina'k era berean gogoak eman dįdalako nere-nerea dan alor bat saldu dut"... Larrukiaren doñuari adi jarri ezker, badirudi, Sarrazina au Tello Enekorena aren ama zala.

SARRAZIN, ezpairik gabe, izen euskalduna da. Ez du gaztelerazko "Sarraceno"rekin zer ikusirik. Izenaren enborra, SARRA dugu, zer izan daitekean ez dakigun itza8.

- ALVARIZ: Abizena da emen ezpairik gabe: "Sarrazini Albarorena". Albariz ori abizena ez baiña izena ba'litz, ari gindezke jostaketan, Albariz edo Albaritz orren euskal-jatorriaren billa. Albares edo Albarets, 1806'ean Araba'ren sortaldean Izki mendiko lats edo errekatxo baten izena bait zan! Eta aipatutako Lz. Gereñu'ren liburu ortan "ALBA"z asten diran izenak baj bait dira, Araé ba'n bakarrik 19: Albartiza, (Albartitza?) Albartizar (Albar-ti-zar?) Albardiza (Albar-di-tza?) eta abar.

ALBA bera Araba'ren sortaldeko Izki mendian lats edo errekatxo baten izena da, eta ala zan 1.806'ean ere.

Danadala, Albaro ere ez zan IX mendean izen kristaua

* * *

Gaurko bigarren larrukia 884'garren urtekoa dugu. Kukulla'ko Donemillan'en lekaidetxeko larrukien artean au da IX mendean azkenekoa. Luziano Serrano'k ez dakar. Oso txikia dalarik, jaso izan nai ez zualako? Berak eman zigun "Gallicanus" izeneko bilduman ez zegoalako?.

Guk, beraz, Ubieto'k argitaratu zuan "Bilduma Gotiarrekoa" aztertuko dugu.

Taranko'n zegoan Emeter eta Zeledon Doneen elizari egindako emaitza bat ziurtatzeko izan zan dokumentu txiki au eratu. Aski latera dotorez, baiñan ez oso era ulert-errezean.

Iru toki-izen (Taranko, Traitorio, Ortolozo) bost giza-izen (Sisnandus, Enneco, Tellus, Gaudiosus, Ilpidius) eta beti batean aipatu oi diran bi done-izen: Kalagurri Baskoiean III mendearen azken-urteetan, tetrarki edo agintaritza laukoitzaren aroan Inperio osoko gudaroztearen buruzagi nagusi bezala Galerio inperatoreak gudarien artean piztutako kristau-zigorketaren ondorioz martini il ziran Emeter eta Zeledon'en izenak.

IV mendean bertan bizitu zan eta V'era sartuta bela bere olerkiak argjtaratu zituan Prudentzio olerkari kristau kalagurritarra lekuko, izugarria izan zan Sarkaldeko kristaudi osoan bi martiri oiei izan zitzaien jaiera. Euskalerrian ere izan zutenaren lekuko, Euskalerrri osoan beren izenak omenduz jaso zitzaizkien eta zaizkien eliz eta baselizak.

Euskaldunak ote ziran bi martiri aiek? Baietz uste izatekoa da, Kalagurri'n jaiok ba'ziran beintzat.

- Baiñan, (bai ote ziran Kalagurri'ko semeak? Baleike. Euskalerrriko mutil gazte asko sartu bait zan Erroma'ko gudaroztera. Eta auetakoak izan ziran nere ustez Emeter eta Zeledon ere.

Ikus nere arrazoa:

- Prudentzio lekuko, gudaroztetik bidaliak izen ziran biak Galerio'k agindutakoaren araura: "Edo Erroma'ko jainko ta jainkemeak gurtu, edo gudaroztetik bidaliak izan".

- Edonork bazekian, beraz, Kalagurri'n, bj mutil aiek kristauak zirala, eta beste edonork baiño obeki, Kalagurri'ko Epaille eta Agintari erromatar jentillek.

8 Lz. de Guereñu'ren aipatutako liburuan Sarra enbor duten izenak, 39 aurkituko dituzu, Araba osoan zabaldurik: Sarra-guen, Sarra-aldea, Sarra-ostea, Sarra-arte, Sarra-atea, Sarra-zuri... Ta Sarre'z asten diranak, 12. Sarri'z asitakoak, berriz, 56. Ori, Araba'n bakarrik!

- Galerio'k bere ekintza makurra asi zuan une beretik, Elizak bazekian zigorketa aundi bat gainean zuala, Galerio'k ez bait zezakean alakorik egin Te-trarkiko bi inperatore nagusi ziran Maximiano ta Diokleziano'ren oniritzirik gabe. Ta Elizak ondotxo zekian jentil amorratuak zirala bi auk.

- Orrelakoetan, Elizaren agindua betez, arriskuan aurkitzen ziran kristauek alde-egiten zuten arrisku-lekutik. Oitura zugur orren araura, kristautasuna ez ukatzeagaitik gudaroztetik lotsagarriki jaurtiak izan ziran bi mutil gazte aiek, Kalagurri'n atzerritarrak izan ba'lira un arekin loturarik ez zuten ezker, beste erri kristau batera joanen ziran andik.

- Ez ziran ordea Kalagurri'tik aldendu. Ori, nere ustez, ederki izan daiteke kalagurritarrak ziralako siñale egokia.

- TARANCO: "Tibi abbati Enneco de Taranco". Mena Aranean, orduan Autrigoiien lurreen zegoan erritxoa da Taranko. IX mendearen asieran 807'garen urteko larruki batean azaldu zitzaigun aurrena, eta orduan esan genduan zerbait berari-buruz.

- TRAITORIO: "In Taranco, in loco cui dicitur Traitorio", "Taranko'n Traitorio esaten zaion tokian". "de alia pars via de Traitorio": "Traitorio'ko bidearen beste aldetik". Izen au, toki-izen bezala, ez da ez euskaldun ez gaztelar ez latiña. Ez dator erdiaroko lateraren iztegieta, adibidez Du Cange'ren eta Forcellini'ren iztegieta. Itxuraz zearo aldatutako euskal-izen bat izanen da seguruaski.

- ORTOLOZO: "In illa terra quae dicitur Ortolozo", "Ortolozo esan oi zaion lur artan". Nik, Ortolozo'ren "orto" ori, giputz-erriko "baratza" dala esango nuke, eta autrigoiien eta karistiarren "ortua", Araba'ko, Ortoostea, Ortolanda, Orto-ta (Orto-eta), Orto-gutxia (Orto-txikia) eta orrelako ainbat izenetan agertzen zaigun "oto" ori, zalantza-biderik gabe, ORTU dan bezala.

Dirudianez ez dute gaurkoa bizkaitarrek lateratik jaso zuten itz ori!

Zer ote da LOZO?

Zer esan nai duan ez dakit, baiña euskalduna dala ziur nago. "Lozo" aurizki duten izenak euskalerra osoan agertzen bait zaizkigu: "Lozogorri" Naparroa'ko Lana aranean Lokiz mendian jaiota Ega ibaiera doan ur garbiko lats baten izena. "Lozoño", Bizkai'ko Begoña'ren auzo bat ornen da. "Lozurio" Gazteiz'en alboko Ariñez'en alor bat. "Lozia", Zeanuri'ko lurralde bat. Izen au, ordea, "i" goxagarri ori kenduz gero, "lozo" ez baiña "loza" izatea baleike. Danadala asko ditugu "loza"z asten diran toki-izenak ere: "Loza", araba'ko Peñazerrada'ren alboan. (Uri arresidun onen egiazko izena ere URIZAR da). "Loza", Naparroa'ko Ansoain'en lurralde bat. "Lozalaya", Ezkarai'ko auzo bat. "Lazaran", Naparro'an, Basaburu Nagusian dagoan Igoa erriskaren lurralde bat ...

Igaro gaitezen larruki ontako giza-izenetara:

- SISNANDUS: Larrukia idatzierazi zuanaren izena: "Ego Sisnandus presbiter": "Nik, SISNANDO bereter onek". Ez dakit izen ontaz zer esan.

Dakarren atzizkia, "ANDO" ikertu-berria dugu.

"SIS" aurrizkiaz zer pentsa?

Ez dakit. Baiñan aurizki ortaz asitako 6 tokiéizen arabar badamaizkigu Lz. Guereñu'k: "Siscoarana" (sis-ko-arana), "Sisibarrea" (sisi-ibarra-a), "Sisiber-gaña" (sis-iber-gaña), "Sisondo" (sis-ondo) "Siti" (sis-tj). Seigarrena, "Situa-

do", ez da erderaz ere alor batentzat toponimo egokia. Sentzua galdu duan izen euskaldun baten aldakuntza izatea badaiteke.

A!, ta ez zan orduan eta ez da gaur ere izen kristaua.

- ENNECO: Sisnando'k Emeter ta Zeledon Doneen lekaidetxeari egindako emaitzaren artzaillea. Lekaidetxe artako abata bait zan: "Tibi abbat Enneco de Taranto": "Zuri Enneko Taranto'ko abatan". Enneko izenaz luzaro itzegiñak gera. Emen soilki onako auxe esan nai nuke: bi NN oiek Ñ irakurtzen zirala: ENEKO, beraz. Eta "E" sarritan "I" agoskatzen zutela: IÑIKO. Orra or nola ENNEKO'tik EÑEKO'ra eta EÑEKO'tik INIKO'ra, eta euskeraz "K" ta "G", errez beraien artean aldatzen diralako, IÑIKO'etik IÑIGO'rako bidea.

- TELLUS testis: "Tello lekuko". Telius izeneko santu bat ba'zan, IV mendearen asieran Dalmazi'n beste bi lagunekin martiri erailla. Bisigotiarren donetegian ez da ageri. Alare, Tello izena Kukulla'ko dokumentuetan ez ez Balpuesta'koetan ere agertzen da. Nondik eta nola iritxi ote zan onera? Ez da b bisegoten doneaan artean agiri.

- GAUDIOSUS testis: "Gaudioso lekuko". Laterazko izena da. "Alaia" esan nai du. Izan zan Tarazona'n izen ortako Gotzai done bat. Baiñan X mendean. Gure larruki ontako Gaudioso, ordea, eun urtez lenago bizitu zan: IX mendean. Ez zioten beraz Gaudioso izena, Tarazona'ko gotzai done aren omenez jarri. IX mendeaz aurretik ere izan ziran iru Donegaudioso. V mende-koak bi; VII'goa bestea. Baiña irurak Itali'n. Nola iritxi ote zan Done oien izena gure lur ontara? Ez bait da izen ori Bisigoten Donetegian ikusten. Alare, Gaudenzia zeritzan Pelayo Asturietako lenen erregearen emazteak VIII mendean. Ez ote zan oraindik lurralde auetan izen ori izen kristaua?

- ILPIDIUS testis: "Ilpidio lekuko": Au bai, III mendeko Donea dugu eta ez III meneko Euskalerra Zarretik txit urrutikoa: Galietan aurkitzen dan Le Puy urikoa. Baiñan zori txarrez apika deus badakigun bere nortasunari-buruz: "Santo martire onoratato nella diocesi di Mende e di Le Puy. Non si cognosce assolutamente nulla della sua vita n delle circonstance della sua morte. Sareve stato (izango zan) martirizato durante la persecutione di Valeriano a meta del III secolo" (Bibl. Sanct.).

Mendeak geroago Lizarra'ra Le Puy'ko Neskutsa'renganako eraspena Galietako Le Puy ortatik etorri zitzaigun lez, andik etorri ote zitzaigun, mendeak leenago, Ilpidio Donearenganako jaiera ere?

Ez da beintzat bisigoten donetegian bere izenik agiri.

Aitor dezadan, alare, izen ortako bi gotzai izan zirala Galizi'n. Baiñan X mendekoak. Ez ziran, gaiñera, aldareetara jasoak izan.

Galietatik Euskalerrira eta emendik Galizi'ra izan ote zan Done orren izenaren bidaketa?

Oartuko ziñan seguruaski, kristauak ez diran giza-izenak azkenean maizetik toki-izen billakatzen zaikigula larruki zar auek azterterakoan. Ez zaitez arritu. Bizi bait da oraindik Euskalerrian gizakumeei beren etxearen izenez deitzeko oitura zaarra. Etxeei, berriz, ia beti, dauden tokiaren izena eman oi zaje.

Larruki onek ziurtatzen duan emaitzaren gaia, bikoitza: Lendabizi emaillea bera: "Sic me trado", "nere burua damaiot", eta, bigarren, emaillearen ondatsunak: "sarrera debekatua duan arizti edo artadi bat", "mea defesa de glandiferos"⁹, eta "amar sagarrondoko sagastia": "Terra que dicitur Ortolozo cum

X mazanos". Eta emaillearen gaiñerako "gauza guztiak": "cum omnibus rebus meis".

Emaitzaren zjoa: "emaillearen animaren salbamena": "Pro remedio anime mee".

Bazuala jende arek benetako sinismen sendoa!

Latiegi'tar Bixente.



9 Ez da erreza alor ura arizti, amezti, artadi edo pagadi zan esatea; "glandiferos" esaten bait du larrukiak. Glandiferos, ordea, sugaitz "ezkur-emaille" guztiak dira: aritzak, ametzak, arteak, pagoak... "Defesa", itzak, "debekupekkoa" esan nai du: Du Cange'ren iztegiak dionez: "ager, pratum, vel silva ubi aut pascua seu animalia immitere aud aliud quidpiam agere quod iis noceat, non licet". Zentzu berdiñeko itz asko erabili zan erdiaroan: "defensio" "deffensum", "deffensetum", "deffensa", "deffaisia", erdiaroan oiturazkoa zan lez ez beti ortografi berdiñez idatziak.

BIZKAIERAZKO ADITZA ATZO ETA GAUR

Sarrera

Bizitza ez da geldi edo ten egotea, ez aurrera, ez atzera. Bizitza ibiltea da. Edo aldatzea. Ibilli eta ibilli. Edo aldatu eta aldatu. Eten bar; k ibilli eta aldatu. Onerako edo txarrerako. Baiña ibilli eta aldatu. Bizirik dan edonorentzat eta edozerentzat.

Izkuntzarentzat bardin, eta izkuntzaren zati dan aditzarentzat be orixe.

Bizkaierazko aditzaren atzokoa eta gaurkoa argitara ekarri nai neuke orain-go onetan, aditzaren barrutiko arlo batzuk ikertuz eta aztertuz.

Atzokoa eta gaurkoa. Kontuz! "Atzokoa" eta "gaurkoa" berbak ez adiera estu-medarrean artu. Zabal-zabal, bai, ostera. Edo luze-luze. BOSTEUN UR-TETAKO bitartea artzen dabe oraingoan. Bosteun urtetakoa, gutxienez.

Azkenengo bosteun urtetatik onantza, gutxi gora-beera, bizkaierazko aditzak izan dauan ibilaldia argitu gura neuke, aditzaren esparruko zati batzuetan jazo izan dana aitatzuz.

Au da: Kondairako ikusbitartetik leenari edo leengoari begira egiña dago iker-lan au.

Beste esakera batez: aitatzutiko bost gizaldiotan zear zein eratako adizkiak erabilli izan diran bizkaieraz. Orixen da geien-geienik aztergai eta jakingai lan onetan. Kondairako ikus-begia joan-etorri aundikoa da edozein arrazotan. Aditzaren arazoan be bai.

Zatika eta atalka arilduko dot lana. Andi-andika edo nagusi-nagusika. Xee-tasunetan larregi murgildu barik. Azkue aundia, batez be, izango dot argi-ontz; (argi-emoille) eta gidari ekitaldi onetan.

1.- BIZKAIERAZKO ADITZAK AMASEIGARREN GIZALDIAN ZEAR, GUTXI GORA-BEERA, IZAN EBAN ALDAKUNTZA NABARMENA.

Aldakuntza au aditz laguntzaille igarogatxean (auxiliar intransitivo) jazo zan, NOR-NORI adizkietan.

A) SAILLA

ORAIN-ALDIA. -NOR-NORI adizkiak.

Azkue maixuaren arabera, urrengo adizkerok izango litzatekez berez-berezkoak eta jatorrak:

		NIRI			IRI
	(etorri)	AKIT	NI	(etorri)	NAKIK/NAKIN
A	(")	DAKIT	A	(")	DAKIK/N
ZU	(")	ZAKIDAZ	GU	(")	GAKIZAK/N
ZUEK	(")	ZAKIDAZE	AREEK	(")	DAKIZAK/N
AREEK	(")	DAKIDAZ			

		ARI			GURI
NI	(etorri)	NAKIO		(etorri)	AKIGU/N
	(")	AKIO		A	(") DAKIGU
A	(")	DAKIO	ZU	(")	ZAKIGUZ
GU	(")	GAKIOZ	ZUEK	(")	ZAKIGUZE
ZU	(")	ZAKIOZ	AREEK	(")	DAKIGUZ
ZUEK	(")	ZAKIOZE			
AREEK	(")	DAKIOZ			

		ARI			ZUEI
NI	(etorri)	NAKIZU	NI	(etorri)	NAKIZUE
A	(")	DAKIZU	A	(")	DAKIZUE
GU	(")	GAKIZUZ	GU	(")	GAKIZUEZ
AREEK	(")	DAKIZUZ	AREEK	(")	DAKIZUEZ

NI	(etorri)	NAKIE
	(")	AKIE
A	(")	DAKIE
GU	(")	<u>GAKIFZ</u>
ZU	(")	ZAKIEZ
ZUEK	(")	<u>ZAKIFZE</u>
AREEK	(")	DAKIEZ

B) SAILLA

Berezko adizkera jatorron orde, beste batzuk, Azkueren ustez, sasikoak ziranak, nagusitu ziran aditzaren barrutian, eta gure egonotara arte bizirik diraue.

		NIRI			IRI
	(etorri)	AIAT			Ez dago aldaketarik
A	(")	JAT			
ZU	(")	ZAIATAZ			
ZUEK	(")	ZAIATAZE			
AREEK	(")	JATAZ			

		ARI			GURI
NI	(etorri)	NAIAKO		(etorri)	AIAKU
	(")	AIAKO	A	(")	JAKU
A	(")	JAKO	ZU	(")	ZAIAKUZ
GU	(")	GAIAKOZ	ZUEK	(")	ZAIAKUZE
ZU	(")	ZAIAKOZ	AREEK	(")	JAKUZ
ZUEK	(")	ZAIAKOZE			
AREEK	(")	JAKOZ			
		ZURI			ZUEI

NI	(etorri)	NAIATZU	NI	(etorri)	NAIATZUE
A	(")	JATZU	A	(")	JATZUE
GU	(")	GAIATZUZ	GU	(")	GAIATZUEZ
AREEK	(")	JATZUZ	AREEK	(")	JATZUEZ

AREs

NI	(etorri)	NAIAKE
	(")	AIAKE
A	(")	JAKE
GU	(")	<u>GAIAKEZ</u>
ZU	(")	ZAIAKEZ
ZUEK	(")	ZAIAKEZE
AREEK	(")	JAKEZ

LEEN-ALDIA. - NOR-NORI ADIZKIAK

A) SAILLA

Berezko adizki jatorrak urengook ziran.

NIRI			IRI		
	(etorri)	INTZAKIDAN	NI	(etorri).	NINTZAKIAN/AN
A	(")	EKIDAN	A	(")	EKIAN/AN
ZU	(")	INTZAKIDAZAN	GU	(")	GINTZAKIAZAN/AN
ZUEK	(")	INTZAKIDAZEN	AREEK	(")	EKIAZAN/ANAN
AREEK	(")	EKIDAZAN			

ARI			GURI		
NI	(etorri)	NINTZAKION		(etorri)	INTZAKIGUN
	(")	INTZAKON	A	(")	EKIGUN
A	(")	EKION	ZU	(")	ZINTZAKIGUZAN
GU	(")	GINTZAKIOZAN	ZUEK	(")	ZINTZAKIGUZEN
ZU	(")	ZINTZAKIOZAN	AREEK	(")	EKIGUZAN
ZUEK	(")	ZINTZAKIOZEN			
AREEK	(")	EKIOZAN			

ZURI			ZUEI		
NI	(etorri)	NINTZAKIZUN	NI	(etorri)	NINTZAKIZUEN
A	(")	EKIZUN	A	(")	EKIZUEN
GU	(")	GINTZAKIZUZAN	GU	(")	GINTZAKIZUEZAN
AREEK	(")	EKIZUZAN	AREEK	(")	EKIZUEZAN

ARE!

NI	(etorri)	NINTZAKIEN
	(")	INTZAKIEN
A	(")	EKIEN
GU	(")	GINTZAKIEZAN
ZU	(")	ZINTZAKIEZAN
ZUEK	(")	ZINTZAKIEZEN
AREEK	(")	EKIEZAN

B) SAILLA

Adizki zaarrago oneen lekuan, LEEN-ALDI onetan be, ondoren aitatzen diranak artu eben indarra eta aditzaren es^Parrua eurentzakotu gure egunetara arte.

		NIRI		IRI
	(etorri)	INTZAKIDAN		Ez dago aldaketarik
A	(")	JATAN		
ZU	(")	ZINIATAZAN		
ZUEK	(")	ZINIATAZEN		
AREEK	(")	JATAZAN		

		ARI		GURI	
NI	(etorri)	NINIAKON		(etorri)	NINIATZUEN
	(")	INTZAKION	A	(")	JAKUN
A	(")	JAKON	ZU	(")	ZINIAKUZAN
GU	(")	GINIAKOZAN	ZUEK	(")	ZINIAKUZEN
ZU	(")	ZINIAKOZAN	AREEK	(")	JAKUZAN
ZUEK	(")	ZINIAKOZEN			
AREEK	(")	JAKOZAN			

		ZURI		ZUEI	
NI	(etorri)	NINIATZUN	NI	(etorri)	NINIATZUEN
A	(")	JATZUN	A	(")	JATZUEN
GU	(")	GINIATZUZAN	GU	(")	GINIATZUEZAÑ
AREEK	(")	JATZUZAN	AREEK	(")	JATZUF7AN

		AREI
ÑI	(etorri)	NINIAKEN
	(")	INTZAKIOEN
A	(")	JAKEN
GU	(")	GINIAKEZAN
ZU	(")	ZINIAKEZAN
ZUEK	(")	ZINIAKEZEN
AREEK	(")	JAKF7AN

JAKINGARRIAK

Bizkaierazko aditzaren barrutian izan zan aldakuntza aundi onen argigarri, oarkizun batzuk ekarteari mesedegarri deritxat.

1.- Zer dala-ta jazo ete zan aldaketa au bizkaierazko aditzaren arloan? Eritxi bat baiño geiago daukaguz.

Azkuek irakasten dauanez, ikako jokabidearen eragiñez etorri zan. Onan diño berak (neuk euskeratuta): "Gure benetan goragarri eta larregi aintzatua izan dan ikako jokabide orrek triskantza itzela ekarri dau aditz-laguntzaillearen zukako jokabidera. Onegaitik, oba izango gendukean jaio ez balitz" (Morf. 575 orr.). Gaiñera -diño berak- "triskantzarik aundienak egin be, ikako jokabidearen "i" orrek bizkaierazko euskalkian eg:n dauz" (Morf. 577 orr.). Arturo Kanpion eta Sebe-r Altube jaun jakintsuak ez dira Azkueen eritxi onen aldeko.

2.- Bizkaiko leku batzuetan -Bakion, Lemoizen, Barrikan- oraindiño bizirik dirala diño Azkuek leenagoko adizki zaarrak. Eta Nafarroako Etxarri-Aranaz'en, irribarreka eta pozez beterik, Azkue ber-berak entzun zituala -diño-urrengo dakazan adizkiok: "etorri dakit, dakik, dakin, dakio, dakigu, dakizu, dakizue, dakioe". Au egia izatekotan, galdu ziran adizkera zaarrok bizkaieraz bakarrik ez, gipuzkoeraz eta naparreraz be erabilten ziran, antza. Badirudi, aldi berean gipuzkoeraz be bizkaieraz izan zan antzeko ondamendia izan zala aditz laguntzaille igarogatzean (intransitibo), Azkuek aditzera emoten dauanez.

3.- Seber Altubek irakatsiaren arabera, "jat, jatzu, jako"... eta onango adizkiak bizkaierazko idazlerik onenak eta zaarrenak erabili ei ebezan: Kapanagak, Mogelek, eta abarrek... Ondorenez, auxe esan bear: Kapanaga amazpigarren mendeko idazlea izan zan ezkerro, beronek adizki "barriak" badakarz, adizkiok ordurako errian guztiz zabaldua egozala, zalantzarik bago. Au dalata, aldakuntza nabarmen au bizkaierazko aditzaren esparruan amaseigarren gizaldian zear-edo burutuko zala uste izan daiteke, orrelango aldakuntza bat izkuntza baten ez da gertatzen gauetik goizera edo urte gutxiren barruan, urte luzeak eta luzeak bear orretarako.

2.- BIZKAIERAZKO ADITZAREN BARRUAN AMAZORTZIGARREN GIZALDIAN ZEAR IZAN ZAN ALDAKUNTZA.

Aldakuntza au aditz igarogatzean eta igarokarian (verbo auxiliar intransitibo y transitivo), bieten, gertatu zan.

Leenengo aditz laguntzaille igarogatzekoa azalduko dogu, eta gero igarokariko.

A) SAILLA. NOR ADIZKIAK (igarogatxa-intransitibo)
(SUBJUNTIBOZKO BALDINERA)

ORAIN-ALDIA

NI	(etorri)	BANADI-BANAITE
	(")	BAADI-BAAITE
A	(")	BADADI-BADAITE
GU	(")	BAGADIZ-BAGAITEZ
ZU	(")	BAZADIZ-BAZAITEZ
ZUEK	(")	BAZADIZE-BAZAITF7E
AREEK	(")	BADADIZ-BADAITEZ

NOR-NORI ADIZKIAK (igarogatxa-intransitivo)
(SUBJUNTIBOZKO BALDINERA)

ORAIN-ALDIA

		NIRI		IRI	
	(etorri)	BAAKIT	Ñi	(etorri)	BANAKIK/N
A	(")	BADAKIT	A	(")	BADAKIK/N
ZU	(")	BAZAKIDAZ	GU	(")	BAGAKIZAK/Ñ
ZUEK	(")	BAZAKIDAZE	AREEK	(")	BADAKIZAK/N
AREEK	(")	BADAKIDAZ			

		ARI		GURI	
Ni	(etorri)	BANAKIO		(etorri)	BAAKIGU
	(")	BAAKIO	A	(")	BADAKIGU
A	(")	BADAKIO	ZU	(")	BAZAKIGUZ
GU	(")	BAGAKIOZ	ZUEK	(")	BAZAKIGUZE
ZU	(")	BAZAKIOZ	AREEK	(")	BADAKIGUZ
ZUEK	(")	BAZAKIOZE			
AREEK	(")	BADAKIOZ			

		ZURI		ZUEI	
	(etorri)	BANAKIZU	Ni	(etorri)	BANAKIZUE
A	(")	BADAKIZU	A	(")	BADAKIZUE
GU	(")	BAGAKIZUZ	GU	(")	BAGAKIZUEZ
AREEK	(")	BADAKIZUZ	AREEK	(")	BADAKIZUF7

		AREI	
Ni	(etorri)	BANAKIE	
	(")	BAAKIE	
A	(")	BADAKIE	
GU	(")	BAGAKIEZ	
ZU	(")	BAZAKIEZ	
ZUEK	(")	BAZAKIEZE	
AREEK	(")	BADAKIEZ	

B) SAILLA.- Aurreko adizki jatorren ordezt, era onetakoak nagusitu ziran, gure egunotara arte irauten dabela.

NOR ADIZKIAK (igarogatxa-intransitivo)

(|NDIKATIBOZKO ADIZKIAK)

ORAIN-ALDIA

NI (etorten) BANAZ
 | (") BAAZ
 A (") BADA
 GU (") BAGARA
 ZU (") BAGARA
 ZUEK (") BAZAREE
 AREEK (") BADIRA

NOR-NORI ADIZKIAK (igarogatxa-intransitibo)

(INDIKATIBOZKO ADIZKIAK)

ORAIN-ALDIA

NIRI		IRI
	(etorten) BAAKIT	Ez dago aldaketarik
A	(") BAIAT	
ZU	(") BAZAIATAZ	
ZUEK	(") BAZAIATAZE	
AREEK	(") BAIATAZ	

ARI		GURI	
NI	(etorten) BANAIAKO		(etorten) BAAKIGU
	(") BAAKIO	A	(") BAIAKU
A	(") BAIAKO	ZU	(") BAZAIAKUZ
GU	(") BAGAIAKOZ	ZUEK	(") BAZAIAKUZE
ZU	(") BAZAIAKOZ	AREEK	(") BAIAKUZ
ZUEK	(") BAZAIAKOZE		
AREEK	(") BAIAKOZ		

ZURI		ZUEI	
NI	(etorten) BANAIATZU	NI	(etorten) BANAIATZUE
	(") BAIATZU	A	(") BAIATZUE
A	(") BAGAIATZUZ	GU	(") BAGAIATZUF7
GU	(") BAIATZUZ	AREEK	(") BAIATZUEZ
ZU	(")		
ZUEK	(")		
AREEK	(")		

AREI

NI (etorten) BANAAAKE
 | (") BAAKIE
 A (") BAIAKE
 GU (") BAGAIAKEZ
 ZU (") BAZAIAKEZ
 ZUEK (") BAZAIAKEZE
 AREEK (") BAIAKEZ

ADITZ LAGUNTZAILLE IGAROKARIA (verbo auxiliar transitivo)

NOR-NORK ADIZKIAK (igarokaria-transitibo)

A) SAILLA (SUBJUNTIBOZKO BALDINERA)

ORAIN-ALDIA

NI		I	
IK	(ekarri al) BANAGIK/N	NIK	(ekarr; al) BAAGIT
AREK	(") BANAGI	AREK	(") BAAGI
ZUK	(") BANAGIZU	GUK	(") BAAGIGU
ZUEK	(") BANAGIZUE	AREEK	(") BAAGIE
AREEK	(") BANAGIE		

A		GU	
NIK	(ekarri al) BADAGIT	IK	(ekarri al) BAGAIZAK/NAZ
IK	(") BADAGIK/N	AREK	(") BAGAGIZ
AREK	(") BADAGI	ZUK	(") BAGAGIZUZ
GUK	(") BADAGIGU	ZUEK	(") BAGAGIZUEZ
ZUK	(") BADAGIZU	AREEK	(") BAGAGIF7
ZUEK	(") BADAGIZUE		
AREEK	(") BADAGIE		

ZU		ZUEK	
NIK	(ekarri al) BAGAGIDAZ	NIK	(ekarri al) BAZAGIEDAZ
AREK	(") BAZAGIZ	AREK	(") BAZAGIEZ
GUK	(") BAZAGIGUZ	GUK	(") BAZAGIEGUZ
AREEK	(") BAZAGIF7	AREEK	(") BAZAGIEZE

AREEK

NIK	(ekarri al) BADAGIDAZ
IK	(") BADAGIZAK/NAZ
AREK	(") BADAGIZ
GUK	(") BADAGIGUZ
ZUK	(") BADAGIZUZ
ZUEK	(") BADAGIZUEZ
AREEK	(") BADAGIEZ

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (igarokaria-transitibo)

(SUBJUNTIBOZKO BALDINERA)

ORAIN-ALDIA

NIRI			IRI		
IK	(ekarri al)	BADAGIDAK/N	NIK	(ekarri al)	BANAGIK/N
AREK	(")	BADAGIT	AREK	(")	BADAGIK/N
ZUK	(")	BADAGIDAZU	GUK	(")	BAGAGIZAK/N
ZUEK	(")	BADAGIDAZUE	AREEK	(")	BADAGIZAK/N
AREEK	(")	BADAGIOE			(Jokook zalantzazkoak dira)

ARI			GURI		
NIK	(ekarri al)	BADAGIOT	IK	(ekarri al)	BADAGIGUK/N
IK	(")	BADAGIOK/N	AREK	(")	BADAGIGU
AREK	(")	BADAGIO	ZUK	(")	BADAGIGUZU
GUK	(")	BADAGIOGU	ZUEK	(")	BADAGIGUZUE
ZUK	(")	BADAGIOZU	AREEK	(")	BADAGIGUE
ZUEK	(")	BADAGIOZUE			
AREEK	(")	BADAGIOE			

ZURI			ZUEI		
NIK	(ekarri al)	BADAGIZUT	NIK	(ekarri al)	BADAGIZUET
AREK	(")	BADAGIZU	AREK	(")	BADAGIZUE
GUK	(")	BADAGIZUGU	GUK	(")	BADAGIZUEGU
AREEK	(")	BADAGIZUE	AREEK	(")	BADAGIZUEE

AREI		
NIK	(ekarri al)	BADAGIOET
IK	(")	BADAGIOEK/N
AREK	(")	BADAGIOE
GUK	(")	BADAGIOEGU
ZUK	(")	BADAGIOZU
ZUEK	(")	BADAGIOEZUE
AREEK	(")	BADAGIOEE

B) SAILLA. Aitatuko adizkion lekuan, beste era onetakoak nagusitu ziran, gure egunotara arte irauten dabela.

NOR-NORK ADIZKIAK (igarokaria-transitibo)

(INDIKATIBOZKO JOKOAK)

ORAIN-ALDIA

NI		I	
IK	(ekarten) BANOK/N	NIK	(ekarten) BAAUT
AREK	(") BANAU	AREK	(") BAAU
ZUK	(") BANOZU	GUK	(") BAAUGU
ZUEK	(") BANOZUE	AREEK	(") BAAUE
AREEK	(") BANOZUE		

A		GU	
NIK	(ekarten) BADOT	IK	(ekarten) BAGOZAK/N
IK	(") BADOK/N	AREK	(") BAGAUZ (BAGAITUZ)
AREK	(") BADAU	ZUK	(") BAGOZUZ
GUK	(") BADOGU	ZUEK	(") BAGOZUEZ
ZUK	(") BADOZU	AREEK	(") BAGAUZ (BAGAITUEZ)
ZUEK	(") BADOZUE		
AREEK	(") BADABE		

ZU		ZUEK	
NIK	(ekarten) BAZAUDAZ (BAZAITUT)	NIK	(ekarten) BAZAUEDAZ (BAZAITUEDAZ)
AREK	(") BAZAUZ (BAZAITU)	AREK	(") BAZAUEZ (BAZAITUEZE)
GUK	(") BAZAUGUZ (BAZAITUGU)	GUK	(") BAZAUGUEZ (BAZAITUEGU)
AREEK	(") BAZAUEZ (BAZAITUE)	AREEK	(") BAZAUEEZ (BAZAITUEEZ)

AREEK	
NIK	(ekarten) -BADODAZ
IK	(") BADOZAK/N
AREK	(") BADAUZ (BADITUZ)
GUK	(") BADOGUZ
ZUK	(") BADOZUZ
ZUEK	(") BADOZUEZ
AREEK	(") BADABE (BADITUEZ)

NOR-NORI-NORK ADIZKIAK (igarokaria-transitibo)

(INDIKATIBOZKO JOKOAK)

ORAIN-ALDIA

		NIRI			IRI
IK	(ekarten)	BADAUSTAK/N	NIK	(ekarten)	BADAUSTAT
AREK	(")	BADAUST	AREK	(")	BADAUSK
ZUK	(")	BADAUSTAZU	GUK	(")	BADAUSKU
ZUEK	(")	BADAUSTAZUE	AREEK	(")	BADAUSTE
AREEK	(")	BADAUSTE			

		ARI			GURI
NIK	(ekarten)	BADAUSTAT	IK	(ekarten)	BADAUSKUK
IK	(")	BADAUTSAK/N	AREK	(")	BADAUSKU
AREK	(")	BADAUTSO	ZUK	(")	BADAUSKUZU
GUK	(")	BADAUTSAGU	ZUEK	(")	BADAUSKUZUE
ZUK	(")	BADAUTSAZU	AREEK	(")	BADAUSKUE
ZUEK	(")	BADAUTSAZUE			
AREEK	(")	BADAUTSOE			

		ZURI			ZUEI
NIK	(ekarten)	BADAUTSUT	NIK	(ekarten)	BADAUTSUET
AREK	(")	BADAUTSU	AREK	(")	BADAUTSUE
GUK	(")	BADAUTSUGU	GUK	(")	BADAUTSUEGU
AREEK	(")	BADAUTSUE	AREEK	(")	BADAUTSUEE

		AREI
NIK	(ekarten)	BADAUTSET
IK	(")	BADAUTSEK/N
AREK	(")	BADAUTSE
GUK	(")	BADAUTSUEGU
ZUK	(")	BADAUTSUF7U
ZUEK	(")	BADAUTSEZUE
AREEK	(")	-BADAUTSEE

JAKINGARRIAK

1.- Itzelezko ondamendia jausi zan bizkaierazko aditzaren esparrura aldakuntza aundi au zertu zanean. Aditz igarogatxean eta igarokarian, bietan, zertu be egin zan. "Edin" aditz laguntzaille igarogatxeko eta "egin" bizkaierazko laguntzaille igarokariko oian aberats, loratsu eta adartsua soildurik geratu zan, "buru-soil" baten antzeko. Eguzkiaren argi-izpientzako garbi-garbi gelditu dan oiana balitz lez. "Banadi, bazadiz, badadi..." eta abar adizkiak "edin" laguntzaille igarogatxarenak dira. Eta "badagit, badagizu, badagi..." eta abar, barriz, "egin" laguntzaille igarokariearenak. "Lindisimas flexiones" diño Azkuek, au da, gogo-bete-beteko adizki gozagarriak euskaldun batentzat. Subjuntibozko

adizkera txairon ordez (flexiones hipotéticas de subjuntivo próximo, Azkueren esanetan), indikatobozko beste adizki zarpil batzuk artu eben euren lekua, gure egonotara arte.

2.- Gipuzkoerazko aditzaren oianera antzeko ondamendia etorri zalakotan nago. Bizkaierazko "egin" laguntzaille igarokariaren ordez, "esan" laguntzaille igarokariaren jokoak erabilten dira gipuzkoeraz eta gaiñontzeko euskalkietan. Ikusi: Orain-aldia: (ekar) badezat, badezazu, badeza, badezagu, badezazu, badezazute, balezate. Baldin-era: (ekar) baneza, bazeneza, baleza, bageneza, bazenezate, balezate. Baita: (ekar) banitza, bazenitza, balitza, bagenitza, bazenitzate, balitzate. Adizkiok be orduantxe bazterreratu zirala dirudi, bizkaierazko "egin" laguntzaillearenak ondatu ziranean.

3.- Zergaitik etorri ete zan ondamendi au euskal aditzaren barrutira? Gazte-leraren eragiñagaitik, erantzuten dausku Azkue jakintsuak. Bai, makiñatxu bat kalte egin dautso gazte-lerak gure euskera gaixo oni. Makiñatxu bat, gero! Eta gaur be egiten eta egiten, eten barik egiten. Ala izan arren be, or etorriko da norbait zarataka edo arrantzaka, gazte-ler "donsua" galtzeko arriskutan dagoan ezker, neurriak artu bear dirala-ta... Sekula onangorik entzuteko be!! "Imperio"ko izkuntzak bakarrik bizi bear, apalagoak diranai ozta-ozta bizi izateko arnasa apur bat artzeko eskubidea bera be ukaturik. 300.000 milloek lagun-ek ao-miiñean darabilela eta arro-arro! Alan da be, ase ezin. Or untzea! Lur-bira osoa berentzakotu nai, "gatz" apur bat eta antoxin-bette "ur" beste izkuntzai kendurik. Neu agintari eta beste guztiak neure oinazpiko eta menpeko, eta neure serbitzari, eta kitto! Gizakiaren gatxa eta griña gaiztoa auxe!!

4.- Azkuek irakasten dauskunez, eun urte baiño geitxuago dala, guztiz arruntak ziran onango adizkiok: "adoratu banagizu"... "egingo dau al badagi"... gure egunotan onan esango dogu: "adoraten banozu"... "al badau"... Bai, adizki txairook eta dotoreok galdu jakuzan amazortzigarren gizaldian zear, amasaigarrenean eta amazazpigarren asieran beste batzuk galdu ziranez. Aditzak beste galtzerik izan ez baleu be!

3.- EMERE I LIGARREN GIZALDIAN BIZKAIERAZKO ADITZEAN IZAN ZAN ALDAKETA.

Aldaketa au aditz soillean edo sintetikoan jazo zan, igarokariko (transitibo) aditzean, NOR-NORI-NORK adizkietan. Emeretzigarren gizaldian zear zertu zan eta ogeigarren gizaldi onetan nagusitu, leenago bizirik ziran adizkerak guztiz galdurik.

Aditz igarogaxean (intransitibo) erabili oi ziran NORI izki edo morfemak erabilten ziran igarokarian (transitibo) be, gipuzkoeraz gaur be egiten dan antzera.

Adibidez: "Aita DA-TOR-KIT" (igarogaxeko adizkera)

"Aitak DA-KAR-KIT (gauza bat)" igarokariko adizkera.

NORI izki edo morfemak oneexek ziran: -T = niri, -K = iri, -KO = ari, -GU = guri, -ZU = zuri, -ZUE = zuei, -KE = arei.

Erriaren aozko erabillera, ostera, eta XX-garren mendea ezker, idatzizkoa be bai, besterik izan da.

Au da: "Eutsi" aditzaren izkiak zabaldu eta nagusitu zirala, eta, orregaitik, zaaragoak eta guztiz jatorrak ziranak il. Oneexek: -ST = niri, -SK = iri, -TSO = ari, -SKU = guri, -TSU = zuri, -TSUE = zuei, -TSE = arei.

Amazortzigarren gizaldieran azkenerantza eta XIX-garren leen-zatian bizi izan ziran idazle aundiak -Mogelek, Añibarrok...- onantxe idatzi eben. Alda-

kuntza aundia bizkaierazko aditz soillean (sintetikoan) mamindu zan au. Bataé bestearen parean ipinten dautsudaz adizkera zaarrak eta barriak.

ORAIN-ALDIA

		NIRI		NIRI
IK	(gauza bat)	DAKARDAK/N		DAKARSTAK/N
AREK	()	DAKART		DAKARST
ZUK	()	DAKARDAZU		DAKARSTAZU
ZUEK	()	DAKARDAZUE		DAKARSTAZUE
AREEK	()	DAKARDE		DAKARSTE
		IRI		IRI
NIK	(gauza bat)	DAKARKAT		DAKARSTAT
AREK	()	DAKARK		DAKARSK
GUK	()	DAKARKUK		DAKARSKUK
AREEK	()	DAKARKEK		DAKARSKE
		ARI		ARI
NIK	(gauza bat)	DAKARKOT		DAKARTSAT
IK	()	DAKARKOK		DAKARTSAK
AREK	()	DAKARKO		DAKARTSO
GUK	()	DAKARKOGU		DAKARTSAGU
ZUK	()	DAKARKOZU		DAKARTSAZU
ZUEK	()	DAKARKOZUE		DAKARTSAZUE
AREEK	()	DAKARKEE		DAKARTSEE
		GURI		GURI
IK	(gauza bat)	DAKARGUK/N		DAKARSKU/N
AREK	()	DAKARGU		DAKARSKU
ZUK	()	DAKARGUZU		DAKARSKUZU
ZUEK	()	DAKARGUZUE		DAKARSKUZUE
AREEK	()	DAKARGUE		DAKARSKUE
		ZURI		ZURI
NIK	(gauza bat)	DAKARTZUT		DAKARTSUT
AREK	()	DAKARTZU		DAKARTSU
GUK	()	DAKARTZUGU		DAKARTSUGU
AREEK	()	DAKARTZUE		DAKARTSUE
		ZUEI		ZUEI
NIK	(gauza bat)	DAKARTZUET		DAKARTSUET
AREK	()	DAKARTZUE		DAKARTSUE
GUK	()	DAKARTZUEGU		DAKARTSUEGU
AREEK	()	DAKARTZUEE		DAKARTSUEE

ARI

NIK	(gauza bat)	DAKARKET
IK	()	DAKARKET/N
AREK	()	DAKARKE
GUK	()	DAKARKEGU
ZUK	()	DAKARKEZU
ZUEK	()	DAKARKEZUE
AREEK	()	DAKARKEE

ARI

DAKARTSET
DAKARTSEK/N
DAKARTSE
DAKARTSEGU
DAKARTSF7U
DAKARTSF7UE
DAKARTSEE

LEEN-ALDIA

NIRI

IK	(gauza bat)	ENKARDAN/AÑ
AREK	()	EKARDAN
ZUK	()	ZENKARDAN
ZUEK	()	ZENKARDEN
AREEK	()	EKARDEN

NIRI

ENKARSTAN/AN
EKARSTAN
ZENKARSTAN
ZENKARSTEN
EKARSTEN

IRI

NIK	(gauza bat)	NENKARKAN/AN
AREK	()	EKARKAN/AN
GUK	()	GENKARKAN/AN
AREEK	()	EKARKAEN/AÑ

IRI

ENKARSTAN/AN
EKARSTAN/AN
GENKARSTAÑ/AN
EKARSTEN/AN

ARI

NIK	(gauza bat)	NENKARKON
IK	()	ENKARKON/AÑ
AREK	()	EKARKON
GUK	()	GENKARKON
ZUK	()	ZENKARKON
ZUEK	()	ZENKARKOEN
AREEK	()	EKARKOEN

ARI

NENKARTSAN
ENKARTSAN/AN
EKARTSAN
ZENKARTSAN
ZENKARTSAEN
EKARTSAEN

GURI

IK	(gauza bat)	ENKARGUN/AN
AREK	()	EKARGUN
ZUK	()	ZENKARGUN
ZUEK	()	ZENKARGUEN
AREEK	()	EKARGUEN

GURI

ENKARSKUN/AN
EKARSKUN
ZENKARSKUÑ
ZENKARSKUEN
EKARSKUEN

ZURI

NIK	(gauza bat)	NENKARTZUN
AREK	(")	EKARTZUN
GUK	()	GENKARTZUN
AREEK	()	EKARTZUEN

ZURI

NENKARTSU
EKARTSUN
GENKARTSUN
EKARTSUEN

		ZUEI	ZUEI
NIK	(gauza bat)	NENKARTZUEÑ	NENKARTSUEN
AREK	(")	EKARTZUEN	EKARTSUEN
GUK	(")	GENKARTZUEN	GENKARTSUEN
AREEK	(")	EKARTZUEN	EKARTSUEEN
		AREI	AREI
NIK	(gauza bat)	NENKARKEN	NENKARTSEN
IK	(")	ENKARKEN/AN	ENKARTSEN/AN
AREK	(")	EKARKEÑ	EKARTSEN
GUK	(")	GENKARKEÑ	GENKARTSEN
ZUK	(")	ZENKARKEN	ZENKARTSEN
ZUEK	(")	ZENKARKEEÑ	ZENKARTSEEN
AREEK	(")	EKARKEEN	EKARTSEEN

JAKINGARRIAK

1.- Bizkaierazko aditzari gagokiozala, aldakuntza au be benetan aundia izan da, eta idazle zaarrendantik etorkun tradizioa guztiz apurtu egin da. Leengo adizkera zaarrak bir-eskuratu egin bear gendukezala diñoenak badira gaur, Euskaltzaindiak berak joko zaarrak (forma klasikoak) obetzat emon ditu.

2.- Bizkaierazko aditz soillean (sintetikoan) aldaketa au zergaitik izan ete dogu? Argibiderik ez dot iñon ikusi. Nire ustez, aditz laguntzaillearen eragitez etorri zeitekean, antza. "Eutsi" aditzaren izkiak edo morfemak erabilli izan dira leen eta orain laguntzaillezko adizkietan, goratxoago agertu dogunez, eta gero, apurka-apurka izkiok edo morfemok aditz sintetikora aldatu.

3.- Aditz sintetikoak atzerakada edo beerakada itzela izan dau amazortzi-garren gizaldia ezker. Aita Añibarro prantzizkotar ospetsuak GRAMATICA BASCONGADA eritxan liburu irakurgarria idatzi eban 1820-garren urte inguruan. Badakizu Zarautz-en il zana 1830-garren urtean. Orregaitik, liburu ori il-aurretxean egin ebala dirudi. Antxe dakar oso-osorik bizkaierazko aditza, laguntzaillezko adizkiak eta sintetikoak, zuka eta ika. Aditz soillari gagokiozala, ogei eta amar dirala diño, zuka eta ika, sintetikoz Bizkaian erabilten diranak. Gipuzkoan baiño geiago. NOR eta NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-ÑORK adizkiak zeatz-meatz dakarz, zuka eta ika, jokabide bietakoak. Aditz geienon jokabide soilla gaur galdurik dogu, aditz batzuen joko bat edo beste izan ezik.

4.- AZKENETAN DAUKAGUN OGEIGARREN GIZALDI ONETAN ZEAR ZEIN EGOERATAN DAUKAGUN BIZKAIERAZKO ETA GIPUZKOERAZKO ADITZA.

Ogeigarrren gizaldi au gelditzen jaku ikerketa egiteko. Andi-andika emen be. Bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren egoera zerbait argitu gura neuke, euskalki biotako aditza egoera bardintsuan dagoela uste dot-eta.

Jakinkizun au zeazteko iker-lan bat guztiz lagungarri eta argigarri izango genduke, bai bizkaieraren barrutian, bai gipuzkoerarenean egiña, au da, bizkaierazko errietan eta gipuzkoerazko errietan gaur erabilli oi diran adizkiak zeintzuk diran jakin aal izateko. Nik ez dot onango iker-lanik egin, baiña arras-

to edo zantzu nagusi batzuk badaukadaz, eta kondairak emoten dauskun irakatsiaz gaiñera, arrasto edo zantzu oneen argitara emoten dot nire eretxi au.

Njre ustez ogeigarren gizaldi onetan be bizkaierazko eta gipuzkoerazko aditzaren esparruan aldaketa nabarmen-nabarmen bat arrotzen eta zertzen daukagu. Aldaketa au igarokariko (transjivo) NOR-NORK eta NOR-ÑORI-NORK sailletako adizkien erabilleran daukagu gertatzen, NOR-NORK adizkiak geroago eta galtzenagotuz doakiguzala, NOR-NORI-NORK adizkiak euren lekua arzen dabelarik.

NOR-NORK esaldiak aditzaren osagarri nagusia bakarrik (complemento directo) daukenak dira, eta NOR-NORI-NORK esaldiak, barriz, osagarri nagusia eta zearkakoa dabenak (complemento directo e indirecto). Beste argibiderik emon barik, irakurlea bera konturatu daiteke zeintzuk diran.

Ona, bada, zer jazoten dan: Irakaskuntzaren eta idazkuntzaren bidea, batetik, eta erriaren bidea, bestetik, guztiz bestelakoak eta osterantzekoak dirala. Ona burrukaldia bitzuan ibildean. Irakaskuntzan aditza zuzenkiro irakasten da gure egunotan, bai ÑOR-NORK adizkiak eta baita NOR-NORI-NORK adizkiak. Idazleak be zuzen darabillezala nik uste. Erriaren berbetea, ostera, beste bide batetik doakigu. NOR-NORK adizkien eta esaldien orde, NOR-NORI-NORK adizkiak eta esaldiak entzuten dira.

Au ez da gertatzen azkenengo urteotan bakarrik, aspaldiko urteetatik onantz datorren okerra da irakasleen eta idazleen eta erriaren arteko burruka au. Kondairak irakasten dauskunez, orain arte izan ditugun burrukaldietan, ERRIA izan da beti garaille eta irabazle. Luzarora beste guztiak erriaren bidera makurtu bear izan dabe. Emeretzigarren gizaldi guztia egin eben burrukan idazleak eta erriak, gorago aitatu dogun aditz soillaren erabilkeran. Idazleak bide batetik eta erria bestetik. Ogeigarren gizaldi au eldu zanean, idazleak erriaren bidea onartu eben eta arrezkero biok batera doaz. Erria irabazle. Oraingo burrukaldi onetan be orixe etorriko dala emoten dau. Luzarora beintzat.

Irakaskuntzak eta idazleak eutsi eta eutsi egingo dautse NOR-ÑORK adizkiak. Baiña erriaren izkerea beste bide batetik badoa, emendik urte batzuetara erria garaille, orain arte jazo izan danez. Nik onantxe ikusten dot arazo au. Au dala-ta, emendik eun urtetara-edo, aditza guztiz bestelakoa eta osterantzekoa izatea baleiteke.

Gazteleraren eragiña aundia eta aundia da arlo onetan. Ekarri dagiguzan, argibide lez, esakun bi:

- "Yo te he traído a caballo" (Nik zaldiz ekarri ZAITUT)

- "Yo te he traído a caballo (el libro)" (Nik zaldiz ekarri DAUTSUT (liburua))

Zer alde edo ezbardintasun daukagu esaldi bion artean? Utsa! Aditzak bere-beran dirau ("he traído"). Baiña euskeraz ez da orrelan.

Nik idazlan onetan aitatzten dodan ondorioa atarateko, ez da igarle edo profetagitza ekin bearrik, ez. Naikoa da Kondairak damoskun irakatsia gogotan artzea, eta etorkizuna "urratzeko" apur bat begi-zorrotz izatea. Etorkizuna iragarri ez, JAZOKIZUN dalako, baiña, gutxi gora-beera, antzemon dakioke.

Norbaiti oker nagoala baleritxo, eta oger ori agerrazo balegist, eskerrik gartsuenak emongo neuskioz.

Pedro PUXANA, arabarrak.

EUSKAL ADITZA NOIZKOA OTE?

*JORGE OTEIZA'RI ESKEÑIA
ADITZA ATA GAIA ATSEGIN ZAIZKIOLAKO*

Bearrezkoa da galdera bat egitea: noizkoa ote gure euskal aditza? Gogotik esango nuke garai askotako zatiak ditula; oñarri nagusi batzuek oso antziñakoak, besteak berriz berriagoak.

Izkuntzen sorrera nolakoa den jakiteko, zenbat gizon argi ta jakintsuak, euskara iturri berexia ta guztiz arrigarri bezala artu dute, batez ere euskal aditza. BEREZ berri asko ematen ditu ta oso bestelakoa da.

EUSKAL ADITZAREN NORTASUNA

Gustave Guillaume izkuntzen mamiaren irakasle ospetsuak, Sorbona Ikastetxe Nagusian, gai oneri buruz, argitasun berexia eskuratu zigun. Izkuntzak ikertzeko, gogoerakunde mailan erabiltzen ditu. Nola dauden izkuntzak osatuak jakiteko, euskeraren egiturak argitasun aundia ematen digula erakasten du (G. Guillaume, Lepons de linguistique 1948-1949, Klincksieck, Paris 1971, 72 or, 108-109 or.).

Berak dionez, izkuntza oso osorik buruan dago nunbait eta itz egitean zatiak dabilkigu. Esaldiak izkuntzaren zatiak dire. Izkuntzak, or, nunbait daude era tuak; goitik bera buruko goi malatik mingañaraino dijoan bide ortan. Itz egiterakoan bide ortan sortzen dira nunbait. Iker zubi bezala lau izkuntz talde erabiltzen ditu: Txino, Semita, Indoeuropeotarra ta Euskara.

Oso goyen, adimenean ezartzen ditu aztarnak; iragarki izkuntzak edo Txino'tar sendien izkuntzak; itz bakotzak ezaugarri edo marrazki berexia dauka.

Bide erdian, or nunbait ezarriak daude Semita kutxuko izkuntzen aztarnak. bi unetxo bear osatzeko. Lenengoan erroak azaltzen dire ta urrengoan itz osoak.

Bide erdian, baño bat batean sortzen da Indio-europeo'tar sendien izkuntza. Itzen itxura ta mamia atxikiak azaltzen dire.

Euskararekin beste egokera daukagu. Aditza esaldiaren ezaugarria da. Esaldiaren laburpena salatzen du. Mingañaren ondoan sortua dago. Orrexe aitortzen du euskararen antzinaldia. NOR-NORI-NORK egiturak esaeraren gaiak azaltzen ditu. Euskal aditza esaldiaren ondoan gelditzen da, onen ixpillu izango ba'litz bezala. Euskal aditza ez da goyen buruan sortua, mingain ondoan baizik. Orregaitik aditzaren jokabidea ta sorrera aspaldikoak direla esan dezakegu; aintziñetako garaikoa, zarrenetakoa.

ORAIN GARAIA

Orain delako garaia, euskal aditzaren ardatza ta giarra dugu, gañera izkuntzaren sorreraren ezaugarri garbia. Burua lanean asten dela izkuntza osatzeko

bizpauru urratz ematen ditu oso azkar. Lenengoa, naiaren ezaugarria, zeatz eta meatz billa gabiltzan gaia. Gero gai orren jokabidea edo ekintza dator. Ondotik, nori dagokion gai ori. Azkenean eraikillea aurkezten da ekintza oneri amaya emateko. Jarri dezagun eredu bat. Illunpetatik argira datorkigun lenengo izpia, gaiaren mamia da, "ogia" edo "ardoa" edo beste zerbait. Ondotik ekintzaren jokaera azaltzen da, "ERAMAN" edo "EKARRI" edo abar. Gero ekintza adierazten diogunari dator; au da Josetxo edo Mirentxu edo abar. Ekintzaren bulzagillea azkena sortzen, Ni, Zu edo besten bat. Orrekin aditza dabil oraingo garaian.

Bide ortik dijoa euskal aditza. Iru abe nagusien gañean eraikia dago, NOR (edo ZER) -NORI-NORK errenkak. Ekintza adierazten dun erroa NOR eta NORI tarte ortan dijoa.

NOR (ZER) errenkan ekintzaren mamiaren azpilla azaltzen da, aditza iragan-korrak diona, baita aditz aldakorrak esaten duna, nortsuaren agiria.

Gero aditzaren erroa dator, naiz bildua izan (ba ditugu aditza bildu zar batzuek, adibidez EKARRI, ERAMAN) edo laguntzallea.

Erroaren ondotik artzeduna datorkigu, NORI errenka.

Azkena agertzen eragillea edo NORK errenka. Orduan aditz osoa auxe izango da: DAKARKIOT, DARAMAIOT edo DIOT. Eragillea agertzen delarik, orain garaia ortxen dabil lanean, euskal aditzan garbi ikusten duguna. Esaldi ondoan sortzen da eta buruak dion bezala. Izkuntzaren asieraren lenengo urratsak ortxen ditugula ezin ukatu, gutxinaz gizona aditza izkuntzan erabiltzen asten dalarik. Aspaldi ta aspaldi garaiko urratsak ditugu emanak or.

Orain garai onek ba du txinparta euskal aditzan eta zer esanai aundia.

LEN GARAIA: NORK IGES

Len garaira gatozela agerpen arrigarri bat gertatzen da. Elkarizketako lagunak mintzo dirala beren artean ez dago buruausterik, bakotzak bere tokia gordetzen du errenkan: NINDUZUN, ZINDUDAN. Erroaren lokarriak aldatzen dire ta aditz osoa -Né batekin amaitzen da; oraingotasuna galdu dunaren ezaugarria, beti gogoan artu bearra.

Bainan NOR laguna irugarren mailakoa denean, NORK bere errenka utzita, NOR errenkara dijoa, bertako errenkaren ezaugarriak artuta: NION, ZENION, ZION. NOR errenkan irugarren tokia artzen dun orrek ez dagolako lekuko, ez garaian, ezta ere elkarizketan, gure izkuntzak, euskarak ez dio ezaugarri bere-xirik ematen. Baten utsunea betetzeko, ÑOR errenkako ezaugarria agertzen da. Alde dagon laguna, euskaldunaren izadian eta izkuntzan, gaurkotasuna galtzen duna, izan ez ba'litz bezala artua dago, beste baten izenarekin azaldu bear. NORK errenka onen aldaketak, len garaian, zer esanai aundia dauka. Izkuntzaren aldetik aldaketa aundi bat dago ta ondo emana. Aldaketa au errj osoaren buruan gertatua da, ondo asmatua, egiztaratua ta ontzaz emana. Ez da aste bateko lana, garai luze batena baizik. Milaka urte igaro dire ori lortu arte ta ondo korapillatua denak ontzaz artu arte.

Orrexek esan nai digu, len garai ori arkitzeak eta aditzan garbi ondo azaltzeak, benetan izkuntza zar batentzat beste berri arrigarri baten ezaugarri dela. Asti luze batean gizarte arek, orain garaiazen giroan irauan dula, besterik ezagutu gabe. Egunak igaroko zituen orain luze bat bezala.

Gaur esan dezakegu, len garai ori ondo lortzea izan dela, gure gizartearen urratsik aundienetako bat. UNION STATION (WASHINGTON-USA) delako iri

nagusiaren bultzit gertokian etxearen gainean dago eraikia edergallu bat gizar-tearen asmatze aundienari eskeinia; sua ikertzea dela dio. Ez ote da len garaia ondo orraztua arkitzea asmakizunetan aundiena? Oroimena eskuratzeko bidea eskeintzen dio gizonari. Ori dena esaten du euskal aditzak.

GEROKO GARAIA

Berez, gero garaia, gureganatutako ikasitiki jaiotzen da.

Gero garaiak azpil bat bear du sortzeko, nai ta naiez len garaia izaki. Orrelaxe egiten du euskarak; NIOKE, ZENIOKE, LIOKE. NOR-NORI-NORK errenkak len garaikoak dire, iges gertaera aitortzen dutenak edo deritzaiotenak. Ez dauka errenka edo lerro berexirik. Len garaia -KE atxikia eransten dio, baita NOR errekan -L izkia sartzen du, -Ñ galtzen.

-KE atxiki ori berdin berdiña dauka Korea'tar izkuntza zarrak geroko garaia osatzeko.

Esan bearra ere Xiberotarrez -KE ori oraingo garaia eransten diotela, DU-KE adibidez. Euskalzaindiak ontzat artu du ta zabaldu naiko luke.

Bainan geroko garaia berezko eraketa, len garaia errenketan oñarritua dijoakio.

Oso aditz ezberdiñen erro gutxi sartzen dire NOR-NORI-NORK errenketan, gauza bearrezkoenak adierazten dituztenak, larritasun aundienetatik ateratzeko: ETORRI, JOAN, ERAMAN, YAKIN, IKUSI eta ez askozez geiago; baita ere aditz laguntzalearenak.

ADITZ LAGUNTZALLEA

Aditz laguntzalea, bakarra bezala agertzen zaigu gaur. Berez erro ezberdin asko ditu: IZAN, UKAN, F7AN, EDUN, eta abar. Gai ortaz ikus: "La Representación del Tiempo en el Verbo Vasco, José María de Lachaga, Bilbao 1994, Zabaltzen, 145 or.". Aditz geyenekin, aditz laguntzalea erabiltzen dugu. Aditz itz guztieri atseski batzuek erasten zaizkie ta laguntzallearen joskera arturik lanean dabiliz: adibidez EROSI-EROSTEN-EROSIKO diot. Aditz geyenekin laguntzalleak jartzen du erabidea. Ekintzaren mamia aditz bakotxak dakar, garaia nortzuar lotua berriz laguntzalleak eskuratzen du. Laguntzail orrek erro asko dauzka aditz ezberdiñenak. Asieran aditz oyek banaka bilduak bezala erabilliko zituen izkuntzak. Gero pixkanaka, puxka oyekin aditz laguntzallearen egitura osoa ta bakarra sortu du.

Aldaketa ori ez da berez edo errex egin, milaka urten lana izan da.

Laguntzalleari esker garaia ere zabalatzen joan dire eta aditzaren jokabidea aberasten. Aditza bilduak berez esango ez lituzkenak, laguntzalleari esker egiten ditu: ETORRI NINTZAKE, ETORRI IZANGO NINTZAN, ERAMAN NIN ERAMANGO IZAN NUEN, eta abar. Aditz multzotik batera iristea gizaldi askoren lana izan da.

GARAI IRAGIKORRAK

Orain arte ikusi dugu aditzak nola ibilli ditun egitazko osaketak. Emendik aurrera iragikor erak aztertu bearrik ditugu. Bi erakoak daude: almenezkoak (DF7AKET-NAITEKE) eta gura era adierazten dutenak (DEZADAN-NADIN).

Almenezko joskerak bakarrik lana egiteko indarrak ditula aitortzen du, bai-

nan orrekin ez ditula era bat egin esaten digu edo egin gabe gelditu direla. Erroa -EZA- du ta -KE atseskiarekin geroari begira txintxilik gelditzen da.

Gura erako garaia naia giroan mintzo dire, asmo on batean ezarriak, egitazko osaketatik urruti.

Bi aditz oyetatik edo bi garai oyetatik, zein da zarrena? Galdera ori egin dezakegu. Nere iritsiz biyetatik errexena asmatzen, ura da aurrena. Almeneko garaia, oraintxe bertan ditun indarrak agertzen alegintzen da. Egitan ari da lanean orain, bainan indarrak bakarrik ditula esateko. Bi talde oyetatik errexena asmatzen almenezko garaia dire. Gura adierazten duten garaia ekintza murriztuagoa azaltzen dute, zailagoa atxikitzen, bearrrezkoak gertatzen ez diren osaketak adierazteko egiñak daude. Garai era onek, almenezko -KE galtzen du ta bukaeran -N artzen, Orrekin osatua gelditzen da.

Aditz denak bi era auek, almenezkoa ata gura girokoa, aditz laguntzalleatik artzen dituzte, osatuenak eta garbienak direlako. Aditz bilduak ez dituzte ain garbi osatuak, idurizpeneko garai abek.

BALDINTZAKO JOKABIDEAK

Euskarak bizi bear izan du beste erri aurreratuekin, jakintza aundikoak, izkuntza landuekin zeudenak. Abek indarra zuten, jakintza ta ondo ikasiak ziren. Ori esatean latin izkuntza dugu buruan, baita prantzesa ta española. Izlariak, araulariak edo elizgizonak, askok eta askok erabiltzen zituzten bi izkuntzak eta maiz erderatik euskararat itzuli bear esaldi arrotzak. Lan ortan bortxatu dituzte aditzaren jokabide batzuek. Ori bera nola esaten du euskarak bere aldetik biltzen alegindu gabe asi dire itzez itz izkuntza batetik bestera itzultzen.

Gertaera orren ezaugarri, ortxen ditugu ostopoak baldintzako jokabide batzuekin. Adibidez ERAMATEN BA'NU. Gai oneri buruz ikus: La Representación del Tiempo en el Verbo Vasco, José María de Lachaga, Bilbao 1994, Zabalzen, 47 or.". Erdal izkuntza euskara bortxatuz ibilli da.

Itzultzalea nun dagon ezarria jakiteak asko esan nai du. "SI VENIAM", nola itzuli edo nola esaten dun ori bera euskarak, bi gauza ezberdiñak ditekela, esango genuke.

Erdal kutxoa ez da euskal sena. "ETOR BA'NADI" ote erantzuna? Orra or korapillo gogorak naikoa estutu dutenak gure euskara, latin izkuntzaren garaitik asita.

Arlo ortan gaude sartuak gaur oraindik.

IBILLIALDI LUZEA

Gaur erabiltzen dugun euskarak ibillialdi luzea egin du, millaka urte askorena. Gordetzen ditu zati batzuek oso antziñakoak, besteak berriagoak.

Orain lan bat gelditzen da egiteko: gizaldietan gizonak utzi ditun aztarnetan aditzaren argibideak arkitu bear ditugu. Orrela ta orrela bakarrik jakingo dugu, gutxi gora bera, ze garaikoa den euskal aditzaren egituraren zati bakoitza. Bide ortik lan asko dago egiteko oraindik.

Euskal aditza aintzina garaiko esalea dugu.

JATABEKO BERTSOAK: FELIXIANA INEBASOKO'RI IPIÑIAK

Ez dakigu noiz eta nork jarritako bertsoak diran, dakigun bakarra da Felixiana Inebasoko'ri ipiñitakoak dirala Jataben edo oraingo gaztiak ezagutzen dabenez Maruri'n.

Bertso auek ez dira egon bertso'lez idatzita prosan baiño, ori dala-ta aalik eta ondoen taiutu dodaz, daukozan gora-bera guztiak zeatz-meatz bilduz.

Zortziko nagusian dagoz, ori kontutan izanik ezin dira oso aintziñakoak izan, Bizkaian, batipat Mungialdeko lurretan testua izan dalako ugarien, gero kopla txikia, eta azkenik zortziko txikia.

Zortziko nagusia, Gipuzkoatik etorritakoa da, Urretxindorraren garaian

1

Bertso barri bat, kantetan noa,
euskeraz eta eroso.
Etorri ona iñor badago
entzun-iteko ganoso.
Nor nazan ere esan biar dot,
jakin daizuen oboto.
Jataben jaio ta asikoa naz
Frantzizko Orbegozoko.

Oarra: Au ez da bertso bat, kopla andi bi dira.

2

Nere barrue beterik dago,
badoa utzitzutera.
Gerizpetako gauzak nai neukez
atara eguzkitera.
Nere barruko enbarazuok,
dabiltz batetik bestera.
Ez dekot onik enbarazuok
kendu artian kanpora.

3

Enberazu au, zer bada esaten
asi bear dot gogorrik.
Egiek zuzen esango dodaz
ez dot esango guzurrik.
Denbora baten artu ez baneun,
ezkonduteko asmurik.
Benturaz eneun orain eukiko
barruko enberazurik.

4

Denbora baten artu ninduen,
ezkonduteko asmue.
Pentsa ninduan bear dodala
berristau bizimodue.
Emen igaro jatezan gauzek
betetu dauste barrue.
Orain egiek azalduteko
berotuten jat burue.

5

Emaztegaie nor izen dodan,
esan biar dot egie.
"Felixiana Inebasoko"
izen da neure nobie.
Sarritten ondo jakiñek gara,
bata bestean barrie.
Lengo bidea itzitze orain
artu deu bide barrie.

6

Felixianak esan deustena,
izen da eguno beti.
Beragaz ezer gure baneuen
jarraituteko gogoti.
Enbarazuok botako doguz
ez izu billurrik euki.
Sartuko zara Patxo geuria
beste guztien ganetik.

7

Aitxe ta ama, prest egon ziren,
gu biok ezkonduteko.
Eta nobiek agindu eusten
etxea arreglateko.
Txarrie bere opa eustian
gure banendun iltteko.
Baita il gendun txarrie bere
bion artian jateko.

8

Txarrie opau ieustenean
esan neutsean ederto,
ez dekodala etxean enbrarik
txarrie gobernateko.
Eta nobiek erantzun eusten
neronek entzun orduko.
"Neu nekozu emen eta ez dozu
beste enbrarik bearko".

9

Koipeak bere urtu zittuzen.
Egin nai beste txorizo.
Eta lenengo lenengo barrez
buskentak bere ederto.
Onex guztiok egintte dagoz
beretzat eta neutzako.
Orain dineutzet Felixianari
beste bide bat artzeko.

10

Felixianak berak ez eban
artuko beste biderik.
Ez dakolako iñoz etorri
neu baiño gurau deuenik.
Propietario bat eldu jako
baiña ez dauko gogorik.
Agaz ezkondu bear deuela
eragin deutse bururik.

11

Negarrik kendu bear deudela
berotu deutse burue.
Frantzizkok orain azalduko deu
nortzuk tekean errue.

12

Errudun danak jakiñek dire
zeiñ diren: Aitte ta ama.
Ta erriko parroko jauna bere
ez da gitxi eiñ deuenia.
Au lenguzua neurea da eta
aitte besoko dodana.
Auxe berari deittute ostean
txaskoa emon deustena.

13

Aidetasune dekuela eta
banandu gure geittue.
Gaur dabilena zelangoa dan
denboraz ikusikue.

14

Aide bardiñek izen geitteen
interes bardiñekoak.
Aitte Santuen aurrean dire
askosaz argiangoak.
Ez dakit diren guzurrak edo
dorean gauza justoak.
Onexek dire parroko jaunek

Patxori esanekoak.

15

Asi giñian berba egiten
aidetasunen gaiñian.
Berba guztiek oso osorik
ni engañateko zirian.
Parroko jaune eme egon da
berak artzeko ideia.
Egon dalako neure lekuen
beste bat sartu gurian.

16

Batean bata jasorik ara
eta bestean bestea.
Esan gurian ori ez dala
Jaunaren borondatea.
Neurelakorik tratau ta gero
au da "Judas'en burlea".
Gero diñeude "gorde deigula
Jaungoikoaren legea".

17

Emen sartu da gure artean
Judas gaiztoan asmue.
Amodiorik ez da goguan
emen gure da dirue.
Baiña larrean sartu ezker
pekato egitten due.
Judasek bere diruagaitik
kondenau eban burue.

18

Gustubako ezkon zaran bat emen
iñork egingo bagendu.
Mingoztasunez betea da-ta
ori e-lei ondo konpondu.
Gusturik bako tratuek zuek
egiten beti lagundu.
Gero gustue artutekoan
ni e-neitteke ezkondu.

19

Asiketarik egiten bada
ezkontza guztabakoa.
Ori da gorputz ta arimea
betiko galdutekoa.
Poz andiegaz egiñe'gaitik
ezkontza gozo-gozoa.
Alatan bere agertuten da
samintasunik naikoa.

20

Interesagaz egiñegaittik
munduko bardintasune.
Amodivak apurtutean
ez da tokaten jakune.
Ni izan banintz propietario
au ez da egi klarue.
Propietario nagusi ori
ez zala izengo saldue.

21

Entzun au ondo zagozianak
ezkontziaren begire,
Amodio bako ezkontzak gero
okerrak izaten dire.
Egun orretan kurtze astun bet
dator lepoan erdire.
Auxe bear da gero eroan
kalbarioko mendire.

22

Kalbarioko mendi puntera
kurtzea eroatea.
Errez ez dana erakutzitzen
dekogu Jesus maitea.
Ez dakianak ez daki zer dan
ezkonduaren nekea.
Ori ezagunen negar badarik
txokolatea artzea.

23

Agur ta agur Felixiana
agur errudun guztiek.
Gauzak ederto argitu dodaz
Jaungoikoari graziak.
Buruko miñik ez daust emoten
berba egiten asiek.
Au papertxu au bete dabenak
esango leukez egiek.

24

Gutxitxu bada neure barrue
berbaldi sendo bategaz.
Esker andiek Jaungoikoari
orain emoten deutsedaz.
Enbarazuok kendute nago
Ogei eta lau bertsookaz.
Neure barrue geldituten da
poz andi eder bategaz.

Bertso bilduma au jaso ostean igorri eustian, bere senargaiak Jatabeko Felixiana'ri ataratako bertsoak zirala, senargaia nor zan ez dakigu, baiña azken orduan, Felixiana etxe oneko mutil aberats bategaz eskondu zan, bere lenengo senargaia betirako aztuaz.

XIX. mendekoak dirala-ta nago dauken testu-inguruagaitik.

URDULIZ INGERU, BERBAK ETA BIZIMODU, Iñaki Gaminde'k 1992.eko bagillean argitaratutako liburuan Jatabe'ko Felixiana'ri ataratako bertsoak agertzen jakuz, baiña bertso edo era ezberdiñ batean.

On emen gustoko badozuez:

Legarreta'tar Asier

3. JATABEKO FELIZIANA

"Yatabeko Felisianari atara eutzesan bertzok, nobio ixen eta txarri ilteudesan eskondu baño lelau, baya gero aberas bat edo etzedune sartu san an ta kendu eutzen nobio".

"nor nasan bere esan bear dot
yakin deixuen obeto
Yataben yayoa ta asia
nas Franssko Urdiosoko".

ori Felisiana bere Txen san gure
edade antzeko ta orrek bertzok atara
eutzesan, bertzolari ona ixen san a

"Felisiana iña basoko
ixen san neure nobie
nor nasen berer esan berko dot
yakin deixuen obeto
Yataben yayua ta asia
nas Frantzisko biosoko
etorri satenean txarrie ilteko
nik eneukela etzean iñor goberna-
teko

eta nobiek kontesta eusten
neuk erantzun orduko
neu nago amen eta
estodu beste enbrarik bearko
il gendun txarria ta
in gendun ainbeste txorixo
baitte lelengo lelengo
buskentzak bere ederto
onek gustiek intte dagos

berentzako ta neutzako
orain diñotze Felisianari
beste bide bat artzeko
Felisianak berak eseban
artu beste biderik
esebelako euki nik
baño uda obenik
propietario bat etor dako
baña estauko gogorik
agas eskondu bear deuela
eragiñ deutze modurik
ni ixan banintz propietario
neure aitte ta ama
erriko parroko jauna barres
esta gitxien daukena
au da neure lengusue ta
aitte besoko dodana
auxe bera da ara geittute
txasko emon deustana"
(LAUKIZ: Felisa Otazua)

URDULIZ INGERU
BERBAK ETA BIZIMODU
Iñaki Gaminde, 1992.eko bagilean



EUSKERAREN BATASUNA LORTZEKO BIDEA

Batasun bidean Euskaltzaindia'k egin dituan okerretatik aundiena' euskaldun guztiok berdiñ esaten ditugunak baztertu eta beste era bat aukeratzea izan da. Esate baterako: Oñati ordez Oinati, Aloña ordez Aloina, eta abarr. Beste batzuetan ia guztiona baztertu eta bakan-bakan batzuenan onartu du: e.b.' marinel. Itz batek itxura mordoska bat duanean' edatuena edo ta geientzat errezen gerta zitekeanaren ordez' iñon ere esaten ezdana aukeratu du: e.b.' akuilo, bakailo. Toki-izenetan atzera egin du, amarr urtean astakeria astakeriaren gaiñ idatzi ondoren, baiña bestelako itzetan bere kasketari gogorr eusten dio oraindik ere. ORIXE DA ONTZAT ARR EZKENEZAKEN BIDEA. Euskaldun guztieri edo geyeneri kasorik ez egitekotan' bakoitza bere bidetik ibilliko gera sekula santan. Ona beraz onartu bear genuken bidea:

1) Euskalki guztietan berdiñ esaten dana' bere ortan onartu. E.b.' *ama*.

2) Euskalkietan ots-aldakuntzekiñ agertzen zaiguna' bere itxura jatorrez onartu. E.b.' aita, aite, aitta, aitte, atta, atte, aitxa, aitxe... Itxura jatorra' ezparrik gabe' *aita* da, beraz *aita* onartu.

3) Arrazoi aundiagoz' bazterren batean ezik Euskalerra guztian berdiñ esaten dana' bere ortan onartu. E.b. *mariñel*.

4) Itz berberak itxuraémordoska bat artzen baldjñ badu' euskalki geienetan ezaguna onartu. E.b.' *akillu, bakaillao, aizkora, onarr*. Ain zuzen ere' jakin geinezakenetan orixe gertatzen da zaarrena eta jatorrena.

5) Arau orokorregirik ez onartu, itz bakoitza edatuenik nola dan ongi ikartu. E.b.' asierako p, t, k ordez beti b, d, g esan eta idatzi bear danik ez erabaki. E.b.' *kristau, kolpe, katu, torre, piko*, dagozkien giritino, golpe, gatu, dorre eta biko baiño askoz ere edatuagoak dira. Alderantziz' *gerezi, denbora, pa/anka'* dagozkien kerexa, tenore edo tenpora, eta balanka, balenka balenga baiño askoz ere edatuagoak dira. Askotan orrela aukeratuak jatorrenak gertatzen dira. E.b.' *kitarra, katua, palanka, kolpea, ko/koa* griegoz edo latinez zuen itxura berberaz daude. Gaztelanizko *guitarra, gato, golpe, golfo'* euskerazkoak baiño aldatuagoak daude.

Arau oien kontra' orrela agerturik' iñor gutxi agertuko dala uste det. Baiña arau oiek zerbaitzu erabakitzeko erabiltzean' agertuko dira kontrako ugari. Go-goan edun "euskaldunik geienen alde"ko arau ori baztertzen baldjñ badegu' araurik eta epaibiderik gabe geldituko gerala. Bakoitzak "nik onela naiago nuke" beste arrazoirik eztegu edungo; iritzia bai, baiño iñor ixillarazteko arrazoirik ez.

Dana dala' aipatu dedan irizpideak gure eztabaidetan zer ematen digun ikus dezagun.

Ez da, bait da idaztearen alde entzun ditudan arrazoiak iru dira:

- a) itzen jatorriari ori dagokiola;
- b) idazle geyenek orrela idazten duela;
- c) arrotzentzat errezago dala.

Arrazoi oyen kontra' aski da euskaldun guztiek, edo gutxienez idazle batzuen idazkeraz kutsatu gabeko guztiek' *ezta*, *eztatorr*, *baita*, *baitatorr* esaten duela gogoratzea. Euskerazko *aita* berbereko *dada*, *adda*, *atta*, edo numidiarren *at-i*, edo egeotarren *it*, edo turkotarren *ata* baldin bada ere' guk *aita* idatzi bear degu; eta gure *ama* berebereko *iemma*, tuaregtarren *mama*, *mami*, sumeritarren *ama*, edo ta turkotarren *anne*, *ana* izan' guk beti *ama* idatzi bear degu. Idazkera ezta itzen jatorria badakigula adierazteko egokiera. Idazten degunean irakurleak itzak nola ebakitzea nai degun adierazteko idatzi bear degu, eta irakurleak aaljk eta errezen, aalik eta segurantza aundienaz ebaki dezan. Beraz euskalduneri' itzegiteko era berri bat irakatsi nai ezpadiegu' berak itzak osoki esaten dituenen ebakitzen dituen bezela, irakurtzean ere orrelaxe ebaki ditzten biderik egokiena erabili bear degu. Izkuntzak eztira eztakienentzat idazten, mintzatzen duentzat baizik; mintzatzen duena irakur dezan.

a) Baiña aipatzen ditugunetan' jatorriaren arrazoya *ezta* eta *baita*'ren alde dago. Ona Lafitte jaunak diona (Euskaldunen Loretegia, 33 aiekan):

"Axular'ek eta ordukoek *bait*- zerabilaten guk *ba* ezartzen dugun hitzetan: baitzendu = bazendu = bazinu". Beraz' oraiñ askok *bait* idazten duena *bai* besterik etzan.

Gaiñera' askok erasten dioten *t* ori iñoiz ere ezta entzuten. Iñork ere eztu *bait aiz* esaten eta ez idatzi ere: "itxaron egin bearko dek, goizegi etorri *baiaiz*; eseri adi, nekatuta *baiatorr*". Orr eztago *bait aiz* eta *bait atorr* idazterik, eta *bait oa*, ikusi *bait au* ere ez. Nere bizi guztian *batintzan* bi aldiz irakurri det: Etxepare'k idatzirik beiñ, eta bestea eztaikit non.

Lafitte'k bere "Grammaire Basque" liburuan dionez' *bai*- aurrezkiari *t* erastea *k* ordez *g*, eta *t* ordez *d* idatzi ondoren *g* ordez *k* eta *d* ordez *t* ebaki bear dala adierazteko sartu zuen. Baiña *gabe* ordez *kabe* esaten dan itzak tg letrekiñ iñork ezitu idazten; atsetgabe, ustetgabe, axolatgabe.

Bai- eta *ez*- ondorengo gu'ri dagozkien aditz jokoetan *k* agertzea ezta arri-garri, oraindik ere zenbait euskalkitan aditzean ku'rj dagozkien jokoak bizi baitira: *etorri jaku*, *jin zauku*. Onak sinistarazten diguna auxe da: *goaz*, *gatoz*, *gara*, *giñan* aditz-jokoan itxura jatorra' *koaz*, *katoz*, *kara*, *kiñan* zirala; ori orrela izanik', itzaren asieran *k* oiek *g* biurtu baldin badira ere' itzaren barruan *baikoaz* eta *ezkoaz*, *baikara* eta *ezkara*, *baikatoz* eta *ezkatoz*, *baikiñan* eta *ezkiñan* esatea.

Batzuen ustez' *ez'* en *z* orrek gogortzen du asierako *g k* biur dediñ. Ori orrela balitz' oiñez *koaz*, oiñazez *kaude* eta orrelakoak esango genituke; *ez'* en *z* letrak *d* gogortu eta *t* biurtzen badu' oiñez *tatoz*, oiñazez *taude* esan bearko genituke, eta eztegu orrelakorik egiten.

Baiña ori baiño ere geieagorik badegu. Euskaldun jatorrak *ez daki* eta *ezta-ki*, *ez goaz* eta *ezkoaz* ongi bereizten ditu. Esate baterako: Bilbao'ra joatekoa dan galdetu diot, baiña ezti ezer erantzun; *ez dijoanik* eta *ez eztijoanik*; eta nik ere eztiot ezer esan: *ez goazenik* eta *ez ezkoazenik*.

Adibide ortan bakarrik idatzi ditudan ez'ak gazteleraizko eta prantzesezko *ni* dira, eta loturik idatzi ditudanak berriz gaztelanizko *no* eta prantzeezko *ne*: no me ha dicho ni si va ni si no va; il ne m'a pas dit ni s'il pense aller ni s'il ne le pense pas.

Oraiñ orren antzeko beste bat: etzenuan ekarri, aaztu egin baitzenuan.

Emen ere z letra tz biurteko aurreko t edo beste z ornen da aldagarria. Baiña emen ere oraingo zu leenago tzu zalakoaren aztarrenik badegu: etorri jatzu, jin zaitzu, eman dizkidatzu. Beraz emen ere ezta iñolako aldakuntzarik; itxura zaarrak itz-barruan iraun egin du, eta itzaren asieran zu biurtu da, besterik ez: bai + tzenuan = baitzenuan; ez + tziñan = baitziñan.

Orrelako zerbait, baiña alderantziz, gertatzen da *det*, *ditut'en* bukaerako t letraekiñ ere: euskaldun jatorrek *esan dedan*, *ikusi ditudan* ebakitzen due, eta bestelakoek, batez erre kaletarr askok' *esan deten*, *ikusi dituten*. Ontan ere erri txeeak du arrazoya. Garbi ikusteko' aski da Erronkari'ñ *dud* edo *dur* esaten zala gogoratzea, oraingo t ori leen d zala esaten baitigu; bestetik' euskalkirik geyenetan *dunan* eta du(k)an esaten da, bizkaieraz donan eta do(k)an, gipuzkeraz *denan* baiña *deken* edo *diyan*. Oyetan ere itzaren barruan jatorrizko d otsak irauten du, baiña itzaren bukaeran t biurtzen da. Euskaldunek orrelakoetan itzaren jatorrerari eutsi egin die, orr egin diran soiñu-aldakuntzak eztira zenbait gramatiketan esaten diranak, aldatuak ain zuzen ere jakintzuek jatorizat jotzen dituenak baitira.

Arrozpide batzuen ustez *arrotz* + *bide* da, baiña jatorriz *pide* dala sinistaraztekoak baditugu: Uztapide, alapide, bizipide, eta itxuraz eztago uztatbide alatbide, bizitbide dirala uste eduteko arrazoirik.

b) Idazle geyenek ez da, bait da, ez goaz, bait goaz idazten duelako arrazoya. Egia esan' idazle guztiek berdiñ ari balira ezkiñake oraiñ orrelako eztabaidetan jardungo. Zoritxarrez etimologokeriak ezurretaraño sartu zaizkigu aspalditik, eta gure etimologi zuzenak edo makurrak idazkeraz agertu nai eduten ditugu. Euskeraz entzuten zuena idazten zuenean' etzan orrelakorik gertatzen. Idazle zaarrek' ia erabat' itza ebakitzen dan bezela idazten zuen. Ona Lafitte'ren "Loretegia"n dauden batzu:

Etxepare: baituk, ezpaitzen, eztukela, ezta eskapatzerik, baitute...

Leizarraga: baitzegoen, ezpaitzuen, etzezan, eztakizkion, eztakizue, baita.

Ezkurra: ala ezpada, il etzaitzan begirautzu.

Aldatz: eztakuske, baitio.

Elizalde: ezpagaizki, ezkindezen-gatik.

Materre: etzaiela, ezpaitakit, kontent eztenak.

Etxeberri ziburutarra: etziren, noizbait, ezten lekhotik, batzitukeen, baitu.

Haranburu: eztugu, ezta.

Argaiñaratz: etzare, ezin tzaket.

Axularr: baitzaika, ezpaita, ezpazara, ez naiz, ez litzake, baitaduka, ezpaitakite, ezpada, eztut, eztakitenentzat...

Oihenarte: bainaiz, etzitzauzte, ezpainiz, ezdeustuko emen deus, ez aditzjokoa, d jatorra da, eta ezta aldatzen), bainaiz, bainuen, baizautan, bainendukan, noizpait, etzinaten, eztela, eztenik...

Pouvreau: ezpazuen, baititu, baitezake, baita, baitzuen, etzituen...

Harizmendi: (ez batera eta ez bestera, aleraik ere ez).

Tartas: baita, baititu, baitago, baitira, batzen, eztudala.

Gatzeluzarr: baititu, ezta perilik, eztu, ezpanu.

Azantza: baidute, baiteret, ez direla, baidire, baitute, ez dakigu, bailitake, ez dela, baidu, baitire, bai eta ezpada (bi idazkerak naasian).

Xurio: ez diozozula, eta baiatzioen, etzen kurios, baitire, baitu, ez dute (bietara).

Larramendi: eztezu, etzinioke, ezpazizun, eztáruskiola, etzaitú, éztala, eztá mundua, etzán, eztabiltza, eztarásate, adarásate, ezpadute, éztute, éztie, noizdanik, éztuela aditzen,

Mendiburu: ez du, ez da, ez dutenak, etzoazela, nai ezpadezu, zaitzu, du-tenai, ez dezazula esan, etzaitzela, etzenukeena, badira, ez dute, badakite, ez duela, ez den (naasirik) bai-dutela, badezu, ezpazenduzka.

Kardaberatz: eztira, ezpada, ez dezu, ez datorrenik, eztizu, eztakizula, etzuela, ez baliz, badakarte (naasirik).

Haraneder: baitzituen, baiteraku, ez da, ezperen, ez baitute, ez duela, bainoha, ez dute, baitagozko, ahal badagizu, ez zakietela, ez gaituzte, bazare, baitetzake, baita, baitituzte, ez duzu, ez dutenean, baitute, baduzu (bietara).

Gudu Izpirituala: baitugu, baitaroku, baititugu, ez-zaituzten, ez-zaitzela, behar-ez-den, ez-dio, ez-zaren, ez dezazula, aurkhitzen-baduzu, erraten-ez-balu-eré, ez-badio.

Etxeberri (saratarra): baitira, eztiote, eztutelarikan, ezta zer miretsi, bait ez-tute, baitut, etzuela, baitgara.

Mihura: nahi baduzu, ez dute, ez baitituztu, badituztu, ez dire, ez dio.

Maisterr: beita, eztütü, eztakianer, beitaude, enian ukhen, ez-deusteko, ez-kitakiala, ezpeitigorü, bejtzazkü, elikidizü, etz;niro, ezdeustarzüna...

Larregi: etzen, etzuen, baitzen, bazuen, etzela...

Lopez: eztugula, ezpaleza, elekezi, eztena, eztuzu, baitute, ezthien, ezpada, baita, baitu, baduzu, ezpadu, ezpaitu, eztenian, baitate, ezpazirete, ezpaitake, baiterako.

Baratziarte: ez duzu, ez gare, bagineza, banerama, ezdeustatuko, ez diotet, ez duen, ez da, ez dakizu.

Maitie: beita, eztügülarik, beiterogü, ezkirela, bagira, ezteizküla.

Olaetxea: alerik ere ez.

Arima Penitent: ez naiteke, ez dezaket, baita, bainintekte, ezdena, etzuten, etziñen, baitzaituzte, baikaitu, ezdudala, ez deusari, ez duena, ez balire, ez baitezakete, baitire, ez baitetezke, bainau, ez dut.

Üskara libria: beita, nahi beizian.

Birjinia edo Donzeil Kristaba: bazuen, bazekusan, etzen, etzioen, baitzioen, ezpainaiz, ezteus, baitiezaket, ezta deus egin nahi eztudanik, etzuen, baikaitu.

Nazioneako besta: etzela, ez dun orai, ez ziren.

Fransesak orhoit Baiten: bazituien, etzen, ez dut, ez dute, badugu, zenbat inozent ezta, baitzuten, baitu.

Oneraiñokoak Lafitte'ren Loretegi'tik artuak dira. Orain Mitxelena'ren "Textos arcaicos vascos" liburutikako batzu:

Araotz, 1545.2.9 (60a) eztitut scrivigen.

Garibai (76) e'dauco. *Mendieta* (79) enendorque. *Garibai* (89) ez daquiola.

Ibarguen (82...84) ezcencan, ez diapo, erre ez citegan.

Amendutz 1564 (108) noyzbait, isanen estu, estudan.

Sueskun (110): baituquet, ez nezan, badate, ezpanaiz.

Portal 1610 (119...121) estaguipula, guiponica eldu essan (etzan).

Sor Juana Ines de la Cruz (124) vamos todos, Vagoás.

Otatzu? 1619 (127) eztuanean, on eztip.

Mikoleta 1653 (133) estaude, vasagocas, badosu, esto(s)u, badereche, esta, estosu, esneydysula.

Puerto (145) eztoc yl Rabelais (148) nonyssena bayta, badiasadassu, estou oussyc eguinan (eztu utsik eginen).

Itxautz 1584 (155) eztcit, baitut, baieta, baititut, enici, ezfici, eztaraqut.

Etxenike (?) (157) baytaraut, espalimbadu, badela, estesala (158) estuela.

Bela (184-185) eztakoussa, eztut, ezterragula.

Goihetxe 1852 Aitciin-solhasac publicoari: badaiteke, baidituzke, badituzke, ezdakianaren, guerthatcen baita, baderrake, ezdire, badoazkela, ez paie, eztiarelacotz, badakharztela, eztire, badakite, ez daucat, eztela, ezpada, badire, ez dituztenac, ez daiteke, ezdut, ezduia, ez degakela, ez daiteke, ez denic, ez dakitganac, ezbalu, baidaiteke ezdaufcat, ezduta, ez duia, ez tüt, ez páit, ez tüt, badirudirait, badukete, badakit baputela, ez dugu.

Fableac: goizdanic, baitcare, balitz, nola baita, ez laite, ez balitz, etpukeien, bapukeien, etqutela (I); bapukeien, banathorpu, duda ez gaitela, badakigu, chinaurria baita, ezta, ez dekiq (II).

Prai Bartolome 1816 Baita nire eguina ezer ezdana bere, ez dirian, pecatu ez diaranac (sic), ez citubeen, dantzetan ezdan olguetiatic, ezdauca gatzic, ezdauca gustoric, ezda, ezdagualaco, ez najjela...

Ubillos: 1785 ezpazuqueen, etzien, etzirán, etzuen, noizbait, ez duen, etzuan, etzan, etzituen, ezpada, ba-ciequien, ezdeguiola, ezluqueena, ez guenduquean, ez diozagula, ba-ciran, baldin... badituzu, ba-lio, otezuan, ez dezu, ezdezu, ezdituzu, etzuenean, ezpazuen, bai-ta ere, ez-pa-zuen, etzuénac, etciran, ez eta, etzeuquéla, bai-ta-ere, ez dala, ba-zan, ez dan, nola baitira, bai-ta oriere, ezta... leguea ere, baita aitortu ere.

Bierfain, 1621 (bascuence... que se habla en Pamplona y el que mejor se entiende en todas las partes...) bayta, eztuela, baytirade, eztu, ycandubaytqen, ibildu baycen, baytaude (Una geografía diacrónica del euskara en Navarra, A. Apat-Echebarne, 90-91 aa.).

Salaberi, 1870 (Chants populaires...) Ürho lüma gris gachua: bahua ba-zaik, balin bahai, estereiola, estük, badira, ezkira. Berterretchen khantoria: eztü, enian uste, bazabilzala, bazereitzola, ezpalimbada, etzakienak. Goizetan jelkhitzen da: ezpeitü, beitzao, eztit, etzirade, badizüt, enezazüla, eztakizia, eztiana, ezpazira, etzitiala, eztiala, orhitzen eztela, ezta nik eginen.

Catichima tchipia Bayounaco diocesako 1911. Jincouaren maniac: jura eztepala, ehaile ehigala, lutsurios ehigala, ebats eztepala ez dakialaric eduki, nahi eztiala. Ez, ez ditirogu, ezpeitu; eztira, ezta salbamenturic, ez tie... ikhousico, badouatpa; ez, badugu beharra; ezpeitira.

Zabala, lpuñak. 28gna: ez al aut, etzalacoan, ezpeucan; ez, bada,... larririo bear ez doc, ez bazan, ez yaco, ez evaaco, ez etozan; Castiguac enduten ez-tavena / garaunik eztaukena.

Decrept, Maitena, RIEB IV, (158...a): badut, beinau, banua, bazindu, baintz, ez baziñe, hor balauzi, ez tüt, eztuzu, ez liketen, dutala, etzazula, ezta, badu, eztu, eztuen, eztela, ez balitz, etzintuzke, bagiñe, bazare, ez bazaitu, ez tüt, bagare, baditake, banauzu, ez nau, etzaitu, ez beita, bazukek, ez huke, baitiagu, etzieten, ez gindikek, ezpauk.

Arana Goiri: Olerkijak, enaz, eztot, etzan, ez kara, ezeuskubela, eztogu, ezé pagagoz, ezpagara, ez tüt, ezte, ezta, etzara, eztakust, etxatzu.

Azkue, Euskalerraren yakintza, 2 gna., itzau ea: ezta, eztagokie, badira, ez-tala, etzan, eztakidala, ez tie, eztira, etziran, ezpazan, ezta kit.

Excelsisco Miguel Santubaren Eliza (M.J.E.) 1906: etzeukan, etzuten, etzuten, etzegoan, ezpazan, ezta, etzuan, bazirala, badegu, ez tüt, ez tuanic, eztago, bazituala.

Zugatzaga: 1927: eztauala, egiten ba'da, eztau, etzareala, badakizu, eztozulako, ez tala, eztozula, ez tiranetan, ez takin, ezeutsan, ez ebana, ez ton, etzan, ezegion, (Grimm anyen ipuñak).

Altuna, ipuñak, 1927: ezta, etxok, eztozube, ez tok, etxagok, ezta kixu, enekijan, etxako, eneban, enebazan, eztot, etxaukok, etzan, ezpa-zan...

Villasante, 1956.9.14 (Eusk. Biltzarra): ez naiz, ba-dira, ba-dute, ez gera, eztitu, ezberdiñak, ezpagera ere, ezta, egingo, ezтира, ezta gutxiago ere.

Altube, 1959.11.6. (Eusk. Biltzarra): ezta, badute, baita...ere, ezta...ere, ezpáizan, ezтира, ez dézaiegun, eztituzten, bazirala, ez dézagula, ezтэгүла.

Mitxelena 1959.11.22 (Orixe'ren euskaltzain-sarrera itzaldiari erantzuna) ez-tuen, ezтуела, ezту, badakidan arren eztituela, baikaude, ezтугun, badidate, etzen, ez giñalarik, ez lukeana, ez noa, ez naiz, ezтatoz, ezтuten, baitu, ezтue-nik, nai badugu, ezтute, ezta...ere, ezтaki, badaki, ezтitugu, etziren, ezpaitziren, badirudi ere, eztituelako, ez gera, ezpagaitu, badagoela, ezтela, badiogu, baiti-ra, bazen, badut, ezтаude, ezpadu, ain baita laburra, ezтut, ezтира, baititu, ezта-go, ezтugu, ezтitzaguiño, baitago.

Webster (Fontes L.V., n° 17, 285ss): bazituen, bazuela, ezduzu, etзуела, bazela, baitio, baitu, etзuen, ezbalu, ezтuzu, ezтuzula, etzarela, etзela, balinba-dut, ezтуела, baduela, ezdiola, eznaiz, ezpaita, badoazi, bagjñe!, bada hor, ez-ta, balinbada, ezту, utzi banu, ezdirela, ezpalira, bazitzaion, etzakien, ezluken, balinbadu, balinbazara, badoa, bazagoen, etzion, etзаio, ezтuk, etzare, ezba-du, ezduen, ez dutela.

Zatarain'dar A.

BARIÑAKO ARMISTEI ERROTAKUAK

1942'xen jaixo nitzen (NITZUAN, NITZONAN) Bariñako Armistei Errotan, nebaéarrebetan amargarrena, gaztena. Baserri txikixe da (DOK, DON) baiña errotian laguntziaz da nire aitxan da aman amairik bako bierrai esker ez neban (NAJUÁN, NAJONAN) goseik pasau. Gure aitxe Bariñako sakristaue ta armonixu jotailli zan (ZUAN, ZONAN). Gure ume denporan enaz (EÑOK-ENON) akordetan minitxu bat aspertute egon nitzenik. Eskolan ezpagengozan (EZPA-GENGUAZAN, EZPAGENGONAZAN), bei zaiñen, txori abixe-bille, erpill joten, itxaurren edo elixpin pelotan, ori bai jaiki biziko pelotiaz petrill bitxarteko irutxurretan sartu ta tantu ariñ eitxeko, geixenetan neuri eitxosten (EITXEJOSTEN, EITXEJOSTENEN), trakets utse nitzen (NITZUAN, NINTZONAN) ba. Neutzat bierrik txarrena beixek buztertzi izete zan (ZUAN, ZONAN), batin buzterrixe buru gaiña botaeran, adar-ondun akenak edo kapastak eukezalako adar otsa ta makakorroie izete zan! (ZUAN, ZONAN), gero sapak ipini txe ezin idik lotu! ganori be alaku euko neban (NAJUAN, NAJONAN) da. Orduko izen askoaz akordeta naz (NOK, NON): Laku, pertiki, narra, nardiki, nardeixe, burdixe, gaiñagi, ezpati, burtedi, ari, goldi, nabasaixe, trakulu, bostortza, burdin-ari, alper-arrixe, atxurre, atxurkuli, itaixe, segi...

Urrontotik gora junde da (JAK, JAN) baso bat, otelbitzeta juten giñen (GIN-TZUAZAN, GINTZONANZAN) ona, bei kuitxauek geldi egongo baziñ (BAZITXUAN, BAZITXUNAN) gutaiko batek eurei eulixek kentzen egon bier izeteban (IZETEJUAN, IZETEJONAN), an parajin baiño euli, mendeuli, espara kulumiño geixa iñun ezin leike (LEIKEK, LEIKEN) egon! Etxerutzin burdixe itxultzen ezpazan pozik! andik urtita sabixe edardun piñu landarak sartu te ustot oiñ dana aldatute dauela. (USTEJUAT, USTEJONAT). Baiña ziur, oiñ be eztala otzik egongo baso orretan, izena be IGERTU dau. (JOK, JON).

Guk euki genduzan gaixo bakarrak: Elgorrixe, tripala batzuk, geixenetan keixa berdik jategaitxik, zaldarren bat edo beste, belaunetan kostrak pasmu darixola, naitxe amak jauste giñen bakotxin, lastun artu orixo erri ta ebaixok erre, iños esprituxaz be erreuskuzan (ERREUSKUAZAN, ERREUSKUNAZAN). Zorrin batzuk be euki genduzan (GENDUAZAN, GENDUNAZAN), amak bar-tzak geunkezala ikustebaniñ, ipintxeban (JUAN, JONAN) mai gaiñiñ trapu zuri bat eta orratzi-zarratu pasetauskun (KUAN, KUNAN). Iños an agertzezin (ZITXUAN, ZITXUNAN) zorri madarikatuok.

Nire anaiekin iños sagar eztitza be jun nitzen (NITZUAN, NITZONAN), arantza zurixan landari sartu, neurri bata ebai, goixen, azaliñ ebai bi eiñ da nai zan sagarren menduk ipiñtxen zin, gero dana pekotzaz artu te trapu-zar zati batzaz lotzegendun (GENDUAN, GENDUNAN). Mendu erdixek eztatix (ETXAKIXAT, ETXAKIXENAT) artzeben, baiña gure aitxek: Ez titxezue aiñ txarto eitxen, edarto eitxetitxezue... esateuskun (EUSKUAN, EUSKUNAN) poztu gaitxezan edo.

Udeguenetan aitz arboletan txantxilikutak batzen genduzen (GENDUAZAN, GENDUNAZAN), eukitxetitxuen zulotaiko baten sartze geuntsen (GEUNTSAN, GEUNTSENAN) zozt bat eta dantzán eraitxe geuntsen, nire arrebak aponetan ibiltxe zin beti... apon, Asaje, Akulo, Akarne...

Domeka dana mendixen paseta gendun (GENDUAN, GENDUNAÑ) beti zaldixen ondoik, ari topekak ipintxen, Max mendixen errebañu edo artalde asko euezan (JAUAZAN, JAUENAZAÑ), orretaiko baten atrapeta gendun (GENDUAN, GENDUNAN) ari bat, erute gendun beste artalde bata ta, arek izete zin (ZITXUAN, ZITXUNAN) mustur otsak! Gosetutekun, sarritxen ez baiña iños lar panpanuk jan nitxun (NAJOITXUAN, ÑAJOITXUNAÑ), kentze neutsen (NAJOUTSAN, NAJOUTSENAN) gaiñeko mintze ta... barrure, naitxe mongotx samarra izen.

Gurin errotako matilli ixte bati ezautu neban (NAJUAN, NAJONAN) klauka baten. Garaude ondo jausten bajakon (BAJAKUAN, BAJAKONAN) martxa baten ibiltxe zan (ZUAN, ZONAN) baiña otabaltzetik garrau gitxi bajoi (BAJOIAN, BAJOIENAN) bixkorra aste zan. Gure aitxek ain euken (JAUKAN, JAUKENAN) bere burun errotian martxioi... Egun baten eberdiostekogiñen euela asi zan errotako matillioi normalin baiño bixkorra, eskatzin mai gaiña buru botata euen lo) (JAUAN, JAUNEAN) ain batera esnatu zan! jagi zanin joten dau arri eriza ta iru saiets apurtu zitxun (JOITXUAN, JOITXUNAN).

Ardi txe auntzetan asi da andik berako animalixe danak oillo, txori, txakur, katu ta beste pristixe txiki danak kotza eitxen dabe. Txal, bei, idi, asto, zaldi txe beste aundi danok pekotza eitxen dabe. (JUEK, JONE). Osta guk lagunok kaka. andapari etxeburun geunkenez gure eskatzin da komunetan ure geunken (GEUNKAN, GEUNKENAN) baiña auzutan korta eitxeben (EITXEJUEN, EITXEJONEN), an esate zan lez "praka bajatzi". Korta baztarrin egunero sardaka idi botateutsen pillo bat egote zan, gure olgetetaiko bat a pillu saltun gaiñetik paseti izete zan, sarritxen abarka puntan zopitxi inketa jakun (JAKUAN, JAKUNAN), txarrena, etzala lurrezko zopitxi izeten, kaka baiño!

Udan atsalde guztixe andaparan eitxe gendun (GENDUAN, GENDUNAN), ezpanak be baltzitu arte! Aldoli altzate euenin ur asko egote zan, aurrin zortzi bat metro eukezan (JAUKAZAN, JAUKENAZAN) andapariorrek. Iru urte neukezala, gurer gurasuk eztegun bat euki eixeben. Egun atan aldeeran "Gaur beintzet etzaitxeze jun andapara" esan eixoskuen, baiña arek aldeeriaz bat gu andapara. (EIXEBEN) (EIKUEN, EIJONEN), (EIXOSKUEN), (EIXOSKUEN), (EIXOSKUNEN). Alako baten ureta jausi einitzen (EINITZUAN, EINITZONAN) eta arrebataiko batek ata einiñun (NIÑUAN, NIÑONAN). Igerixan jakin be, beiñ 5-6 urtako ugarixosuk lez jakin gendun danok. Eskerrak Rosario, nire arrebai bes-telan... Ikusten danez (GENDUN) (GENDUAN, GENDUNAN) gurasuei kasoik ez eitxi ezta (EZTOK, EZTON) oingo gauzi!!.

ZAPATA POPOLIÑUK

Urtero Arrate eguniñ, gure amaz, iru edo lau neba-arreba gaztenok, auzoko astun jatekuk artu te Arrata juten giñen (GINTZUAZAN, GINTZONAZAN), auzoko gizona bere bi edo iru semekin juten zan (ZUAN, ZONAN). Urte baten, asto gizajuk apatxak ogei bat zentimetro luzetute eukezan. Lau apatxok kanporutz biurtute, arri danetan estrepezeta zan. Lantzin batek astuan apatxak aitzetzotsezan; bere erantzune au izete zan: "Neuk konpondukoutsaz zapata popoliñuok". (KONPONDUKOUTSAZ), (KOÑPONDUKOJOUTSAZAT, KONPONDUKOJOUTSENAZAT). Eldu zan urrengo urti txe artu geure jan-edanok eta an goiez auzora. Urteban (URTEJUAN, URTEJONAN), gizon orrek bere semiokin eta astuaz. Lau anketatik errena eitxeban (EITXEJUAN, EITXEJONAN). Gure amak diñotse: (JIÑOTSEK, JIÑOTSEN): "Zejauek ba astuorrek" eta lau apatxetaik odola darixola euen astuai beixute diño (JIÑOK, JIÑON)

"Azkori az zapata popoliñuk konpondu joutsenazat". A izen zan asto gizajuan Arrata osteri a.

AMA IZETI ZE DAN!!

Andra bat bere alabiaz Markiñeko medikuana juten da ta medikuai diñotse (JIÑOTSEK, JIÑOTSEN): Etxakixat ze dauken gurer neskionek, aspaldixen beti jak gonbitxuke baten, gaiña etxok ezebe jaten". Amai pixkaten kanpora urteteko esautsen (ESAJOUTSAN, ESAJOUTSENAÑ) medikuk. Neskiai beixueriaz bat, umendun euena konturetu zan. Juten (JUTOK, JUTON) da amana ta diñotse: "Ire alabik nobixoik bajauden ezkontzi jon onena ze umedun jan da".

Amak: "Nire alabik ez olakoik, egunero aremaitxekutako etxin egotok".

Medikuk: "Oingo gaztik bakin ba, alkarraz len baiño geixa jiltxeitxun da".

Amak: "Nire alabik ein bajok be baten ingo juan, neuk be baten eiñ najuan da bertan jausi nitzuan".

KARRERAİK EZ

Nire eskola lagun bat, neure antzin a be etzan aurrernetaikue ta maistrik sarritxen belaunbiko eukitxeban. (EUKITXEJUAN, EUKITXEJONAN). Egun baten belaunbikotzeko esautsenin, bera ez oiela esautsen (ESANJOUTSAN, ESANJOUTSENAÑ) umiorrek maistriai eta derrigortzen asi zanin ekitsen umik negarrez eta maistriai bata zurixe poltsikotik beraiño apurtutsen, ordun emoutsezan 3-4 belarrondoko ta ipini ban belaunbiko. Umik negar baten diñotse: (JIÑOTSEK, JIÑOTSEN): Neuk esango joutsenat toi txe akuluaz etorri txe jota urundkau ba!

Gure urna onek 12 urte inguru eukezala Donostire bildu ben goxetik eskoli txe atsaldetik eskolako ordun bierra eitxa. Bere aitxe perrateire etorri zan baten perreruk diñotse: Semiai ze, karreran bat emon bitsek ala? Ta, aitxek: Karre-
raik ez, injiñeru edo...

TXAKA BATEN...

Bariñan domekero eitxe zan erromedixi, da ez edozelaku be! Arrate balletik, San Pedro Balletik eta Mallebitxik ainbeste gazte etorte zan. Ondo jatorken (JATORKUEN, JATORKONEN) ibillaldi edar batzuk eitxi, ia apur bat sosietan zin. Aremaitxekutan erromedixi amaitze zaniñ, izete zan astrapaladi!, farola ez eukenak lastazau euken neskalaguntza juteko. Ez eben (ETXUEÑ, ETXONEN) argi asko eitxen lastazauok baiña bapeza baiño oba zan itxuri zanez. Nun nai nesken txilixuk eta mutillen arrantzak entzute zin (ZITXUAN, ZITXUNAN). Bariñan gatze ziñek kartetan jokaldi batzuk eiñ barik ezin jun ba! Arandarrak geixenak, Urko mendixen, Agiñatik ordu erdi bata dauezan bost baserri di (DITXUK, DITXUN). Bariñatik ordu bete ona biben (BIJUEN, BIJONEN) beintzet burdi bidetan gora. Goxaldeko ordu bixek aldin diño (JIÑOK, JIÑON) jokolari bata: "Ia mutillak, jungo gaitxuk ba etxalda?". Arandar batek: "Itxaik ba, txaka baten jungo gaitxuk eta...". Bestian erantzune: "Ñi banajoiek, EL QUE QUIERA VENIR QUE VAYA".

GUZUR BATZUK

Aue zabaltze ban bakotxin guzurre esan bier izete ban bat bazan. (BAZUAN, BAZOÑAN).

1.- ANTZARRAK

Lengun banajak etxin da nun ikusteitxuan antzarrak, aldra aundi bat! bebetik joiazan, artu najuan eskopeti baiña kartutxoik eneukan, sartu najoutsan guardasolan ballena bat, jaurti najoutsen tiru ta iru antzar ballenan erreka jausi zitxuan, sartu nok neure borzeixekin eta antzarrakin urten nebaniñ oiñetakuk amorrañez beteta neukazan.

2.- IDI GORRIXE

Egunetan idi gorrixek falta zan baserrixen, egun baten beitu dau Bariñatik Urkora ta... An nun dauen gure idi gorrixek! jun eizan soki artute Urko mendire idixoi ekartekotan, baiña etzan euren idixe, mailluki aundi bat zan!!

3.- GURE EULIXE

Euren baserrixe garbixe zan, aiñ garbixe, eulik be etzeuen, egixe esan bat, euli bakar bat, urtitan bera eulixe. Urtero letxeriaz eskatza zuritze ben da egu bata zuritxute euken. Alako baten: "Gure eulixe nun etok". Luzerutan etzan agertzen. Urrengo urtin jun zan auzora ta... "Emen gure eulixe, bere egu zurixaz"

Eztakidana beste urte batzutako etxa erubanik!

Angel Kareaga





"Z" IZKIREN BETEKIZUN BAT

Batzuk ditugu "Z" izkiaren betekizunak euskeraz. Obeki izango litzake geuk, "Z"-ren bidez, betetzen ditugula, esatea: oguztean lenengoz, idaztean gero.

Ezagunak diran betekizun oyetarako, "Z" aurizki, erdizki ala atzizki bezela agertzen da.

"Z" or; aipatzean, Lhanda'ren iztegian, atzizki bezela amaika eginkizun ematen dira ta aurizki bezela bi. Muxika'ren iztegian, atzizki bezela amabi. Azkue'ren iztegian, atzizki bezela amalau, aurizki bezela lau, ta bat adizkeretan (dauzkate). L. Mendizabal'en iztegian, atzizki bezela sei.

Lhande'ren iztegian, erdizki bezela edo, adizkeretan ikusten da: daramazkit, dauzkat, dizkiot, gauzka, ginduzte, zinduzteke,...; Azkue'ren iztegian ere orrela agertzen da, ikusi dugunez; baña Muxika ta L. Mendizabal'en iztegiatan ez da agertzen aditzetan dagozen eginkizunetarako.

Iztegi oyetan "Z" izkirako ematen diran eginkizunetatik landa ba-dago, geron ustez, beste bat, iztegi oyetan agertzen ez dana ta aztertu ditugun "RIEB" eta Euzkaltzaindia'ren "EUSKERA" aldizkarietan ere ikusi ez deguna. Baña baliteke, oyetan guk ikusi gabe edo beste batzuetan, apika, noizpait adierazita egotea.

Eginkizun ori, ene iritiz bederen, betekizuntzat a litekena, au zki bezela burutua agertzen da. Batzuetan, gauza baten orde, beste bat adierazteko erabiltzen danean eta bien artean alkarbidea ikusten dalarik; lenengo gauzaren izenari "Zé" gañeratzen zayo biga ena izendatzeko. Esate baterako: IBI/ZIBI; UBI/ZUBI. ZUBI itzaren jato iaz mintzatzen, beste iritziak eman dira. Arestian auxe iraku i dugu, Garate'taf Justo Jaunak "Fontes Linguae Vasconum" aldizkarian (IV'ga enurtea, 11 zenbakia, 1972'ga eneko O iTa-DagoniTa) 137'ga en o ialdean ematen duena: "Ba-liteke ZUBI, ZUR-UBI edo zurezko ibai-igaro-bide'tik etortzea",... "Emen aipatzen duguna egiantzekoago deritzaigu.

ERBERA/ZERBERA (Cerbera del río Alhama, pueblo de La Rioja) EU/ZEU (¿) IRIGI/ZIRIGO; IDAR (IRAR)/ZIDAR (ZIRAR); IDOI/ZIDOI; IDOR/ZIDOR; ARA-GI/ZARAGI; ARTAI/ZARTAI; UBIDE/ZUBIDE; Beste batzuetan, bigarenzentzuna lenengoaren edatua bezela agertzen da: AMUKA/ZAMUKA; ANKA/ZANKA-O; APAL/ZAPAL; APALDU/ZAPALDU; ATALJZATAL; ELAKA/ZELAKA; ELATARI/ZELATARI; ENDU/ZENDU; ENTZUN/ZENTZUN; ERGA (ERGAÏNUDE, ERGI)/ZERGA. ZERGA itz au, Lhande'ren iztegian, "(rom. "carga")'tik sortua bezela ematen da. Ortaz oke bat dagoelakoan gagoz, bere euskal-yato ia ainargi baitago. Gañera, beste gauza bat ikasi dezakegu oi-en bidez: aspaldian, zergak ordaintzeko edo emaitzak eskeintzeko, beste tokietan bezela gurean ere, abereak (ERGA) erabiltzen zirala. Ba-liteke S. MiTan'eko REGA, ERGA'tiketortzea: ERGA EREGA BEGA,

OLDU/ZOLDU; ORA/ZORA; ORALDI/ZORALDI; ORATU/ZORATU; IN-

KA/ZIÑKA; IRIN/ZIRIN; IRINDU/ZIRINDU; IZA/ZIZA; IZAKARI/ZIZAKARI; ZIZA TA ZIZAKARI itzaren eratze ta zentzuna ZERGA renak antzeko egiñak. (Lhande'ren iztegian: ZIZA (esp. SISA) ORI/ZORI; ORIZKA/ZORIZKA; ORU/ZORU; URDA/ZURDA; URUNGA/ZURUNGA; USMA/ZUSMA; IZTIL/ZIZTIL.

Besteetan itz bien zentzuna berdin dala dirudi: AITU = ZAITU; APO = ZA-PO; ARBASTA = ZARBASTA; A AMASKA = ZA AMASKA; A APASTAKA = ZA APASTAKA; A APO = ZA APO; AUNKA = ZAUNKA; E ENDA = ZE ENDA; E EPEL = ZE EPEL; EZPAI = ZEZPAI; IPA = ZIPA; IPAKA = ZIPAKA; PA = ZIñA; IRIÑARTE = ZIIÑARTE; I IKITU = ZI IKITU; I IST = ZI IST; PISTADA = ZI ISTADA; I ISTU = ZI ISTU; I ISTATU = ZI ISTATU; IZAIN = ZIZAIN; IZILO = ZIZILU; IZKORTU = ZIZKORTU; IZPITA = ZIZPITA; IZU = ZIZU ; IZURTU = ZUZURTU; 'OKONDO = ZOKONDO; ONBO (ENKOR) = ZOÑBOR; OZPAL = ZOZPAL; OZPEL = ZOZPEL; URUPA = ZURUPA...

Noizbeinka, itz bien zentzunak alka en antzekoak dira: AGAI/ZAGAI; ALGA/ZALGA; ZALGE; ZRAKA/ZARAKA; ARGALDU/ZARGALDU; ARAST/ZARAST; ERENTXORI/ZERENTXORI; INTZ/ZINTZ; INGILA/ZINGILA; IPIDE/ZIPIDE; IPOTZ/ZIPOTZ; IRATU/ZIRATU; IRIGI/ZIRIGO; IRIKI/ZIRIKA; IRT/ZIRT; (edo ZART) IZKI/ZIZKI-MIZKI; OZAITA/ZOZAITA; OZAMA/ZOZAMA.

Beste adibiderik asko aipa litezke, baña emen age erazten ditugunak, gero iduriko, naikotzat ar ditezke "Z" izkiaren betekizun berezi bateaz mintzatu al-izateko.

"Z", euskal-soñu berezia adierazteko darabilgu izkia.

Bai, soñu berezia da "Z-ren bidez adierazten digu euskerazko soñua; ez da españerazko "Z"rena bezin gogo , bigunagoa baizik; ez eta parantzeazkoarena, e.b., "rose". Baña oso berezia dugu gure soñu au; nolabait adierazteko, auxe esango genuke: españerazko "S" ta "Z-renen artekoa dala; beraz, "S" ori baño gogortxoago, ala "Z" baño askoz bigunduago.

Izkuntzalariek, parantzerazko "S" ta "Z", xistuko ak deitzen dituzte; lenengoari xistuko iTuna ta biga enari, xistuko ozena.

Bi soñu oyek egiteko, mingaña ortzeñgiei tinkatzen zaye alboetatik; o ela, aosapai ta mingañaren artean aize-odi edo aize-bide estu bat geratzen da, aizea igarotzeko. "Z-ren soñua emateko, bide ori estuagoa da, "S"rena ematekoa baño, ta ortarako mingañaren erditokia goratzen da; "S-ren soñua emateko, ordea, mingañaren erditoki ori beerago geratzen da.

Gurean, "Z" ta "S"en soñu-arte españerazkoa baño txiki edo estuagoa da; españeraz tarte aundia dago bi izki oyen soñuen artean, eta o engatik, noski, euzkerazko "Z-ren soñua entzutean, españa ek, geyenetan "S-az idazten dute; o ela, izen eta abizenak, asko, españeraz egindakoagatik, "S-az agertzen dira idatzita, "Z"az egon bea -izango lirakenean; ortxe dugu beraz, erderak eragiten digun beste oke a, ta o ezaz gogoratu bear dugu gure iku ak, gure izkiak, ongi zaintzeko, gurer soñu jato ak alik eta ondoenik adieratzen ditzen; ikas tokietan batez ere bereziki irakasteko.

Jakiña, gurean eta izkuntza guzietan, soñuak dira lendabizi, gero datoz ikuak, izkiak, soñuak idazkien bidez aurkezteko; alakotz, soñuak ikasi ta aztertu beat dira lenengoz, idazteko iku ak, izkiak egokiro autatzeko. O engatik, "S" ta "Z" adierazten ditugun soñuak, osen alka en urbil dagozelako ere, bereziki entzutea dagozkigu, berak adierazteko izkiak egokiro erabiltzeko.

Esate baterako: nola idatzi bea dugu EUSKERA itza? O ela, "S-az ala EUZKERA, "Z"az? Obeki esateko: *euskera* itza oguztean, nola dagite euskaldun jato ek, euskera ala euzkera? Auzi au aspaldian sortu zan gurean. Arana Goiri'k asieran "S-az erabili zuen itz ori, baña gero "Z-az ja aitu zuen o ela

egin bear zalakoan; eta aldatze ori azaltzeko, beste itz batzuk aipatu zituen: Gipuzkoa, Bizkaya, Orozko, Amezkoa; ita oyek tokietako izen za ak diralarik, bere ustea egiztatzeko zirarlakoan; eta bere uste ori auxe izanik: EUZKO itza EGUZKO (EGUZKIKO) itzatik zeto ena. Bere aburubide oi-ezaz ez gera emen ari-izango, ta beste bide bat aukeratu nai dugu auzia argitzeko xedeaz.

Ja i ditzagun bi le otan, euskera (euzkera)'ren antzeko, erdian *zk* ta *sk* bina-ko izkiak daramazkiten itz batzuk:

Gipuzkoa, Bizkaya, Amezkoa, Eguzkia, Dauzka, Azka , Azkue, Mozko .

Asko, Liskaf, Neska, Noski, Euskun, Aska, Aski, Seaska.

Bi itz-kate ditugu emen, onela berezita:

az ka *zk*

as ka *sk*

- A -

Ikusten danez, *Z* ta *K* artean, *S* ta *K* artean bezela bi itz atalen muga dugu; *Z* ta *S* oguzten danean, izkuntzalariek itxitura bat, ta bereala *K* esateko, idekitura bat egiten dirala diñote. Ta, geronustez, ori ere aintzakotzat artu bea da emen ikusten ari geran arloan: iku az, itxitura adierazten da, ta iku az, idekitura.

Kate bakoitzarentzat, *Z* ta *S* oguztean, mingaña egokera batean ja ita ari da, bakoitzean ere soñu bat egiteko bidean mugatzen. Beraz, soñu ere dagoz o emateko; ta bi soñu oyek alka en ondo-ondoan dagozelako, orobat gertatzen da mingañaren bi egokera buruz; bi egokera oyetan, aizea indartuago ala motelago igarotzen da, mingaña ta ao-sapayaren artean gertatzen dan bidearen zea .

Gure bi soñu oyek emateko guzti ori egiten dalarik, ona emen apika zer egin bea izango litzaken euskera (euzkera) "S"az ala "Z"z egiten ote dan ongo jakiteko: Lenengoz: len ja itako bi itz-kateetan dagozen itzak, euskaldun jato batek nola oguzten duen entzutea, ta oyen u engo euskera itzari buruz orobat egitea; biga enez: euskaldun jato berberari, bi kateetan mingaña nola jartzen duen begira dezala eskatzea, ta oren u engo berebat euskera itzarekiko. Gañera edonork ere orixe bera egin lezake.

Izkuntzalariek, soñuak ongi jasotzeko, tresna bereziak dituzte ta oyek ere erabiTi litezke beste oa -ikastea egiteko. Ta ikaste guzi oyen ondoren, argi jakingenezake s ala z erabili bea ote dan.

B

Emen aipatzen dogun "Z" izki onen egikera ontzat artzeko dalakoan, gure euskal-itzen zentzuna tinkotzeko ta batzuetan alka en aldetik bereizteko ere, erabilia izan litekela uste dugu. Esate baterako: Zentzun berbera adierazteko, gaur, "azke" ta "aske" itzak erabiltzen dira, ta bakoitzarentzat zentzu bakar bat tinko liteke, onela edo: "aske", loturik ez dagoena adierazteko, ta "azke" menperaturik ez dagoena esateko; biga en zentzun ori, lenengoaren edapena bezela artzean.

Auzi ontan ga antzi aundirik ez dagoela uste ditekete.

Gure aldetik, euskera ikasten asi giñanean, "Euzkaltzale Bazkun"aren bidez, "Z" z idazten genuen gure izkuntzaren izena, Euzkera. Gero, Azkue'k esondatu zuena ontzat artu genuenean, eta orduan *Z* ofen aurka a abots aundi xama sortu zanean, besterik gabe, ongi ala gaizki zer ote zegoen begiratzeko, ta batasunaren alde jokatzeagatik e az utzi genuen *Z* ura ta a ezkeroko, beti *S*'az idatzi dugu euskera itza.

Baña euskerari buruz gure eztabaidetan sortu diran ebazkizunen artean ori bat izanik, oh ere alik eta garbienik bere aterabidea aurkitzea ona izango litzakekelakoan gagoz.

D

Bea ezkoa edo izan diteke, emen oa a bat egitea. Age erazitako itzak, asko bederen, geron ustez, gure artean beste gizonen besteak bezela artean, idazkera sortu baño lenagokoa dira. O engatik, emen "Z" ri ja i diogun eginkizuna, orduan, gaurko "z" az adierazten dugun soñua izan zan lenengo itzari gañeratu zitzayona, ta soñu oren bidez bereizten edo zan biga en itzaren zentzuna lenengoarenetik. Beraz emen "z" ri buruz esandakoa obeto edo esan genezake berari dagokion soñuaz.

E

Oa berzi bat egin dezakegu emen. Ipa aldeko euskalkietan, aspaldian "euskara" esan aren (Detxepare, Tartas...), gaur eskuara esaten da Zergaitik aldatze ori? Izan diteke azalpenen bat nunbait, baño nik eztut iñun ikusi, ta auxe da, ene ustez, galde genezakena: Ez ote da, ain zuzen, "raren soñuaz esateko bearean, "eskuara" esaera, "euskara" oguztea baño e az ago izan zayelako, "eskuara" esateko, berea, euskaldunak erazita izan diralarik? (Vela izango balitz, ustekoa ere izan liteke, aspaldiko "euskara", egitan, euzkara" izan zala.

Beste zentzunaz ba-dugu itz au: "eskualde" ta "eskuara" esatean, oguzpe-na beste oren bezelakoa dugu. Uste al genezake itz ori lenagoko beste batetik "euskalde" tik edo, sortua izan dala? Ta "eskualde", "euzkalde" (euzko-alde) (euzki-alde) (eguzki-alde) tik? Ori Arana Goiri'ren asmoa indartze izango litzake.

UMANDI

SANTA CLARA'REN KANTA ZAAR BAT

↑

KOPLA "GOTICOAK"

Jaun andreak:

Al da Santa Clararen kanta zaarrik? Euskalerrian? Euskeraz? Bai, zorionez. Nik beintzat arkitu izan det bat ortik zear. Besteren batek ere apika arkituko zuan, beste orrenbeste, naiz besteren bat edo batzuek. Ez bait-da nolanaiko "santa" izan, Santa prantziskotar au gure erriarentzat, igarotako gizaldietan. Santa Clara. Santa aundi bat. Aita San Prantzisko bera bezin andi ia-ia. "Ama Santa clara".

Dana dala, antziñaéantziñako kutsu aundidun koplak batzuek erakutsi nai nizkitzuteke gaur itzaldi onetan. Santa Clara'ri dagozkion koplak jator batzuek. Kanta, errikoi-errikoi bat. Errikoia itzez. Errikoia baita, lenengo aldiz beintzat, nik entzun nuan kanta-eraz. Alaxe bait-zan, izan ere.

* * * *

Ondarroa'ko itxas-ertzeko Ermita baten zan. Itxas-ertza baño itxas gaña obeto. Ermita txuri txuria. Itxasoan urrutitik ere ikusi dedintzat nunbait: goigoian eta txuri txuria. An bait-daukate mariñel-jende errukarriak beren estutasunetarako babestzalle zerutarra: "Ama Santa Clara".

Abuztuaren amaika zan: arratsaldea. Santaren Completak kantatzen ari ziran erriko Abadeak, gu, arri-mallatan gora, Ermitara iritxi giñanean. Eliza, leporaño beterik zegon mariñel-andre ta mariñel-neskathez. Erriko gizonak atunetan ziran. Ala ere, aguratxu buruzuriak an agiri ziran eserita aldare-inguruan, aurre-aurrean... Amaika aldiz berak ere itxasoan ibilli izanak! Bear ba da, ez egun au etortzen zanean. Orain ez bezala orduan, itxasoan ibilli oi ziran ondarroatarrak, txintxo asko biltzen bait-ziran etxera egun artarako, Santa Clara'ren jaia egiñaz, Andra Marietarako-ots, erriko-pesterarako-gertu errian egoteko... "Ordun bai, txo, Ama Santa Clara'ren debosiñu Ondarru'n!, ordun bai *fedi* Ondarru'n! Oñ, danok itxasun, atunetan... Ai, gure Ama Santa Clara!

Bultzaka ta indarka iritxi genduan korura igotzea. Completak amaitzera zi-joazen... Ez al zuten apaizak azkeneko *Pater eta Ave* esan, organistak bere armonivan hieroglifico labur bat egin ondoren, or ekiten diote Elizan dauden guzti-guztiok elkarren leian, *velut agmine facto*, kantuari. Santa Clara'ren kanta... An beian, elkarren gainka datozen olatuen burrundara, ez da izaten ain indartsu. Neurri ederrean danok, ori bai bañan alako burrundara ikaragarri batean. Emakume-eztarriak ia danak; itxas-gatzetan garratzutako eztarri bortitzak... Esan zitekean, Elizatxoa aidean jaso nai zutela, paperezkoa bai-litzan. Bizkar-ezurrean gora ikaragarritzko zirarra eragiten zigun tarteka-tarteka doñu ukigarri arek, emakume aien eztarri ukituetatik alako boladan ateratzean.

Kanta ederra. Kantak ederrago. Ez gutxi ere.

Ona guk dakizkigunak.

Bieta, Santa Clara,
-euskeraz argia-:
zu zara zeruetan
dontzella garbia;
zu zara zeruetan
dontzella garbia.

Amaren sabelet;k
zenduan grazia,
munduan izateko
ejemplu bizia...

Alkargana baturik
arri koskortxuak,
erreza oi zenduzan
errosarivak...

Amazazpi urtegaz
monja sartu ziñan,
monja sartuta ere
Clara izan ziñan...

Aita San Prantziskua
padrino arturik,
esposa izan ziñan
aitamen-ixilik...

Eskuetan dakazun
gauzaren andia!
Kustorio batean
Jesusa bizia...

Asis'ko konbentuan
zinduten ikusi;
ikusi eta bertan
moruak igesi...

Ogi bakar batekin
ditu janaritu;
ogi bakar batekin
erdia gelditu...

Uso txur; ederra:
zeruan zer berri?
-Zeruan berri onak
orain eta beti...

Monjen erregaluak
intxaurrak oi dira:
aiek ere guztiak
bai piñak balira!
aiek ere guztiak
bai piñak balira...

Orra or kantaren itzak. Itzak, ordea, kantuan entzun bear dira, kantuan. Bañan, kantatu ere, ez bait-da berdin, olako kantuak batek bakarrik kantatzea, eta, nik orduan entzun nituan bezala, eunka ta eunka eztarri ondarrutarrak kantatzea!... Bañan, dana dala, adibide bat bezala bederenik, nik kantatuko dizutet koplak bat edo beste.

Bañan, asi baño lenago, oar bat egin bear dizutet. Ondarroa'ko kantatzeko erak, ba'ditu bere bereizkuntzak. Arraunean balijoaz bezala kantatu oi dituzte 6/8 konpasean, eta arraunaren konpasari amore emateko bezala, tarteka-tarteka ixil-une nabarmen batzuek egiñaz bertso-errenkada batetik bestera... Itzaiak ere egin oi dituzte zeinbait ixil-une uztarri-aurrean kantuan dijoazenean; bañan bestela, mariñelengandik oso bestela, an-emen, neurri jakiñik gabe. Mariñelak, ordea, beren ixil-uneak beti konpasean, beti leku jakiñean, arraunaren joan-etorriak agintzen duan lekuan. Eta ola du, ain xuxen, gure Santa Clara'ren kanta ondarruaren ezpañetan alakoxe izaera ta grazi berezi bat.

Adibidez bezela entzun ezazute:

(Kantuz) Bieta Santa Clara...
-euskeraz "argia"-...
zu zara zeruetan...
dontzella garbia...
zu zara zeruetan...
dontzella garbia...

Ikusi dezuten bezela, ixil-une oiek ba'dute beren eten-aldi; laugarren errenkadan ("dontzella garbia/zu zera zeruetan"); eta ain xuxen, eten-aldi onek berebiziko grazia ematen dio kantuari, sinkopa bat bai-litzan.

Beste zertxo bat ere argitu nai nizuteke orain, kantuari, musikari, melodiari buruz.

Melodi au, oso elizakoia dalarik, dagon bezala ez da gergoritarra. Melodi gergoritarrek konpasik gabeak dira; ta gure au, konpasaduna, 6/8. Bañan-eta au ere jakin bear da-gaurko zenbait musika konpasadun, len, asieran konpas-gabeak-ots, ritmo askatudunak-izanak dirala. Adibide xume bat ipiñiko dizutet, ori obeto ikusteko.

Guztiok ezagutzen dezute "Pello Joxepe" deritzan doñua. Gaur doñi ori compasilloan-ots, lau zatitara-kantatzen doñu dana guztiok dakizute eta kantatu ere askoten ala kantatu izen dezute. Ola:

Pello Joxepe...
tabernan dala...
aurra jaio da Larralde;n.

Kalean ola kantatzen da, musika zaleen artean olexe kantatzen da. Baserritarrek, ordea, kanta ori (edo orren doñuko beste zerbait kantatzen) beste modu ontara kantatu oi dute: ez lau zatitako konpasean, zortziko-kompasean baizik, ots, 5/8 an; (5/8 ko konpas au, ritmo alterno bait-da, eta ola ritmo askatuaren urkoago, antzekoago) Ola:

Pello Joxepe tabernan dala,
aurra jaio da Larralde;n...

Begira orain, nolatsu kantatuko zan, oien antzera, len, antziñan gure Santa Clara'rena ere: xiri-xara, ritmo alterno arin batean, orain bezelako otsaundi ta ampatasunik gabe. (Ritmoa markatuaz):

Bieta Santa Clara,
euskeraz argia...

Baña, berriz ere lenera joaz, guk ez bait gendun ola entzun Ondarroa'n, len esan dedan aire konpasatu artan baizik.

-- --
-- --

Ondarroa'n izan zan gure entzute eder ura. Bañan ez da uste izan bear Ondarroa'n bakarrik Santa Clara'ren izena ta koplak ezagutuak diranik. Santa Clara'ren imajiñak Euskalerriko Eliz askotan arkitzen ditugu. Eta koplak berak, guk, Ondarroa'n entzunaz gañera, eta ondotxos geroztik, Oyartzun'en ere aré kitu izan ditugu. Laister esango dizutet nolako era jakingarrian.

Kanta onek izango zituanez dago zalantza biderik-izango zituan koplak geiago ere. Bañan nik olaxe arkitu izan det, bere amar koplatan kanta guztia. Eta izan ere, ortxe dago ondotxo bildurik eta sintetizaturik, egoki asko, Santaren bizitza osoa: izena, jaiotza, umetza, gaztearoa, monjatza, mirariak eta eriotza ta zerua... eta, eskupeko bezela, satira txiki bat gañera, monjaen bizkarretik satira txiki bat (bañan au Elizan kantatuko ez dana ez bait-da esan bearrik)... Orra or bizitza guztia labur-labur

Kanta onen beraren beste bertsio batzuek ere izango dirana, ez dezakegu ukatu. Guk geurok, Oyartzun'goaz gañera, ezagutzen degu beste bat: Ondarroa'n bertan kantatzen dana bera. Ez bait-da bertsio jatorra; Arrese ta Beitia'tar Felipe olerkari bizkaitarrak zertxo bat ikutua baizik, ondarrutarren batzuk ala eskatuta, erderakadaren batzuk koplaetatik kendu-bearraz nunbait. Lenengo koplak jatorrak. *Bieta Santa Clara* (ots, *Beata Santa Clara* dion lekuan, On-

darroa'ko koplá ikutuak "Erderaz zara Clara" dio; eta geroko *dontzella garbia'ren* orde, "izar bat argia".

Zorion batek nere eskuratu zuan, ikusi dezuten bertsio-era jatorra. Eta ez nolana eskuratu gañera; jakingarri dan ere polit batean baizik.

o • - -
- - - -

Esan dedan bezala, nik Oyartzun'en arkitu nuan. Alkate Xarrane deitzen dan etxe aberats bateko liburutegian, beste zenbait papertxoan artean, koloredun paper politez egindako toxa bezelako zer bat arkitu nuan: Carteratxo bat zan, orain eun urte ta geiagoko andereño batek, bere gordairu kutun bezela, erabilli oi zuan cartera edo toxatxo bat. Eta aren barruko amar-amabi paperen artean, beste Bertso Berri zenbaitekin, eskuz egindako Santa Clara'ren bizitzako koplaxo oiek zeuden ondotox tolestaturik. Ikusten danez, gure antziñako andereño aiek ere kantatzen zituzten koplá polit oiek, maitezko ta beste olako batzuen artean. Kantatu ta eskutuan gorde ere, kontuz kontuz tolestaturá.

Orra or oitura polit bat, gure errietako antziñako oitura polit bat. Ez bait zan artean zinerik; ez eta Teatro aundirik ere. Kantak: kanta zahar ta kanta barri batzuek... eta kito. Santuen bizitzak, maite kantak. Olaxe ematen zuten denbora gure amonatxo aiek, orain eun urte andereño panpoxa ziran gure amonatxo aiek... Oh temporal Oh Mores! Zer denbora ta zer oiturak aiek! Gure carteratxoaren jabea, gero monja sartu zan Oñati-Bidaurretako konbentuan: Santa Clararen Ordenako monja...

Orra or, besterik ez balitz ere, gure toparizu ark erakutsi digun jakingarri bat: gure antziñako oitura bat: nola bizi izaten ziran orain eun urte gure andereñoak.

Ez al digute, ordea, beste gauza jakingarriker ezer erakusten gañera? Bai noski.

Ikus dezagun.

5 • - -

Nork sortuak dira Kanta oiek? Nun sortuak, obeto? Eta noiz?

Asi gaitezen "noiz" ontatik.

Kantaren izkerak eta musikak, bear bada, erakutsi leikiguteke zer edo zer, problema jakingarri oni buruz.

Ikus dezagun, lenengo, musika.

5 • s •

Musikari bagagozkio, egia esan, kanta onen musika ez da musika gregoritarra. Gaur kantatzen danez, konpasatua da, ta ain xuxen 6/8 konpasean. Baña, len ere esan det eta, gaur konpasatuak diran musika asko, len konpasatu gabeak bait ziran; ritmo askatudunak; edota ritmo alternodunak. Gero konpasatu ziran. Bañan, nolana dala, melodiaren edo doñuaren moduari edo erari bagagozkio, Erdi-Aroko (Edad Media'ko) usai aundidun melodia da benetan. "Usaia"... nolapait esan bear da-ta. Edo-ta alako aire ta ibilkera zahar-antzeko bat... konpasian sartu ezker, zerbait aldatua ezik. Musikaren usai au, guk, bete-betean, XIV-XV gizaldikoa dala uste degu. Olaxe, XIV-XV gizaldikoa.

Baña jarrai dezaiogun itzen azterketari.

o • - -
- - - -

Koplá gotikoak. Noiztikoak dira Kanta polit onen itzak? Ori esaten duan antziñako paper zaharrik balego, Garibai'ren edo paper zaharrik ba lego, orduan

jakingo genduke gertu asko. Bañan ez bait -degu olako paperarik-guk daki-gula beintzat-; beste bide batetik ibilli bearra dago, beste kriterio bat erabilli bearra daukagu. Ez daukagu "criterio histórico" deritzarena jotzerik Zer kriterio erabiliko degu, beraz? "Criterio histórico cultural" deritzana.

Ikusi ditzagun, kriterio ori erabiliz, atera izan diran ondoren batzuek.

Aita Omaetxebarria'k igaz ederkitxo agertu zigun bezela, euskeran dauzkagun zenbait itz-paperez ez dakigun arren-argi-argi erromatarren izkuntzetik artuak ditugu. Adibidez, *pake* ta *pike*, ta *lege* ta *errege*. Itz oiek gure euskerara etorri ziranean, etzan artean sortua, latinez *pakem'en* ordez *pacem* esateko eta *pikem'en* ordez gaur bezala *picem* esateko oiturarik; ezta *regemen* ordez, *rejem* eta *legem'en* ordez *lejem* esateko oiturarik ere. Itz ojek, beraz, ez ditugu erderatik artuak, erromatarren izkuntzatik zuzenean baizik. Egiz esan dezakegu, beraz, itz oiek latin garbi-garbi dirana. Nundik ikasi degun ori? Bada ortaxetik: itzaren formatik, itzaren oguzkeratik, itzaren soñutik, errege-ren *ge* ortatik, eta *pake*-ren ke ortatik.

Orren antz-antzeko bide batetik atera dezakegu baita, gure literaturako zenbait koplak ere, gaurkoak ala lengoak diran, gure gizaldikoak ala Erdi-Arokoak diran, ots, *goticoak* ote diran. Erdiaroko zenbait oitura aipatzen duan koplak, zuzen bidez-besterik ez dakigun arte-artu dezakegu artu Erdiarokotza. Eta ain zuzen, gure Kopladietan ba' ditugu okako koplaren batzuek. Gabonzarretako batzuek datozkit batez ere gogora oraintxe. Gabonzarretako bat edo beste. Adibidez auxe, polit askoa:

Eder zeruan izarra;
errekaldean lizarra...
Etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritz du bizarra.

Danok dakigu koplak au, Etxeko Jaunari loxintza egin bearrez kantatzen zaiona. Bañan, bear bada, ez dute guztiok jakingo, oartuko, "xilatuko", koplak polit onek duan barrunbe guztia. XII, XIII, XIV gizaldietan, Erdi Aroan, Jaungoikoaren eta Andre Mariaren eta Apostolu Santuen Irudi ta imajiñai, illea ta bizaérra urreztatu egiten zioten. Olaxe: urrezko bizarra, urrezko illea. Ontatik atera dezakegu norañoko loxintza-endarra duan koplak onek. Etxeko Jauna, Aldareko Irudien pareko egiten du: ots, zeruko Santuen pareko:

Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorritz du bizarra (aldareko ta zeruko santu ederrak bezela).

Bañan koplak oni, loxintza-usaiez gañera, beste usai bat ere ba'dario bere lau alderdietatik: Erdi-Aroko usai sendo-sendoak. Koplak au, koplak goticoak da bete-betean. Irudi goticoak, Imajiña gotikoak dira olaxe urrezko bizar ta urrezko illedunak. Orra, beraz, nundik eta nola atera dezakegun koplak baten gotico-izaera.

Berdin esan bait-diteke Gabonzarretako beste zenbait koplentzat ere. Adibidez arako beste arentzat:

Eder mendian iturri;
ura txorrotik ixuri...
Etxe ontako galai gazteak
amalau urre-txintzarri;
amalau urre txintxarrirekin
zazpi damaen eguzki...

Erdi aroko oitura zan, jauntxo aberatsak soñekoen ertzetatik urrezko txarriak zintzilik erabiltzea... dama-jendeen zoragarri...

Argiago, bearbada, izango degu oraindik lenengo koplaren ondotiko beste ura:

Urre gorrizko bizarra, eta
zillar zurizko sorbalda;
erreal-bikoz egiña dauka
Elizarako galtzada.

Zillarzurizko sorbalda orrek ba du zer-ikus, zalantzarik gabe, Erdiaroko Zalunen altzairuzko *armadurarekin*; altzairuaren ordez "zillarra" diola ezik, loxintxaren loxintxua bearrez nunbait.

Erromatarren itzak diralako aietan, itzaren forma aztarrentzat artzen degun bezela, kopia oietan koplaren beraren muña artzen degu aztarren ta ezaugarritzat: koplaren beraren muña, gaia, mamia.

Beste koplari ere ba'da gure Koplategian olako gotiko-mamidunik. Adibidez eta esate baterako arako Erregiñetan Baztan'en kantatzen zan ura:

Xulufriña ta (i) arrosa,
oiari eder abosa:
Naparroa'ko Errege jaunak
egin ornen du promesa.

Gaur erabiltzen ez diran zenbait itz darabilzki kopia zahar onek: *promesa*-ots, andregai: *oiari-ots*, *camarera*: eta zer dan ez dakigun beste *abos* edo *abox* ori ("oiari eder abosa). Bañan oietaz gañera kopia onetan Naparroa'ko Errege Jauna aipatzen da. Erdiaroko Naparroa'ko korte-oitura zenbaiti ikutu bat emanez gañera: ots, Errege Jaunaren "oiariak", camarera ederrak aipatuz...

Xulufriña ta (i) arrosa,
oiari eder abosa...

Beste kopia edo ume-kanta oni ere berdin dario Erdi Aroko Errege Jaunaren Jauregiko oitura baten otin edo usaia:

- *Din, dan* ezkillak...
- Nor duk illa, mutillak?
- Peru zaoataria.
- Zer egin dik pekatu?
- Erregeren txakurra urkatu.
- Ori ez duk pekatu.

Erdi Aro bete-beteko oitura zan, Erregeak beren Jauregietan eizarako-ta, txakur trailla eder-ederrak eukitzea. Ala Chanpaña'ko Teobaldo baten egunetan Naparroa'n, Olite ta Estella'ko Errege-Jauregietan. Pekatu gogorra izango baitzan orduan, txakur aietan bat urkatzea. "Erregeren txakurra", ots, Erregeren txakur kutuna urkatzea batez ere.

Alaxe, bada, gure Koplategi jatorreko zerbait koplai, gotico-usaia darie nunnaitik.

Goazen orain gure Santa Clara'ren koplaitara. Aztertu dezaiegun barruko muña. Muña ta azala. Biotan arkituko bait-diegu zer-edo-zer gotico-usai.

Besteak beste, kopia biri elduko diet nik batez ere orain.

Aita San Prantziskua
padrino arturik,
esposa izan ziñan
aitamen ixilik...

Eskuetan dakazun
gauzaren andial
Kustorio batean
Jesusa bizia...

Eldu dezaiegun *Prantziskua* ta *Jesusa* oiei: artikululodun bi giza-izen oiei.

Gaur ez du iñork erabiltzen olako izen-formarik. Antziña bai erabiltzen zan. JESUSA ori arkitzen degu, zenbait antziñako Gabon kantetan, gaur oraindik ere erriak erabiltzen dituan gabon kanta zaharretan. Bañan gaur Gabon kantak ateratzen dituztenak, ez bait-dizute ametsetan ere olakorik esango. Ez orain, ezta lentxuago ere. Olako kantak, kanta zehar-zaharrak bide dira. Erdiarokoak? Bete-betean bai, nik uste. Naiz ta amaseigarren gizaldian ere oraindik irauten zuan *Jesusa* ta *Prantziskua* esateko oitura orrek, lengo gure Bole-tin'ean Mitxelena jaunak erakutsi zigun bezela bere *Frantziskua*, *Perla*, ta *Jesusa'ri* buruzko lan politean. Bañan ordurako, oitura ori galtzeko zorian-edo zegoen iñolaz ere. XVI gizaldi artako eskribatzalle guztiak beintzat ez bait-dute beti berdin erabiltzen forma zahar au. XVgn, gizaldian, bear bada, indarreanago egongo zan; eta XIV'ean zer esanik ez. Eta ain xuxen, gure Santa Clara'ren Kanta onetan oso indarrean dagola kanta guztian dirudi; bi giza-izen bakarrik arkitzen ditugularik (Jesus ta Prantzisko), biok artikulodun arkitzen bait-ditugu ain-xuxen (V koplari *San Prantziskua* eta VIII'ean *Jesusa*...).

Eta nere iritzi onen sendogañ, beñiz, beste zer bat gañera, ba u-ba utik ez bada ere, Kantaren gai ta mamiari berari ederki dagokion beste zer bat da. Ia ondo esaten dizute an.

Santa Clara'ganako jaiera gure artean, ez da atzo goizekoa. Luzaro iraun du; aspaldidanikoa da, zalantza gabe. Historiak ala dio. Bañan nik orain, Historia alde batera utzita, Arqueologiari elduko diot.

Euskalerrian ezagutzen ditugun Santa Clara'ren Irudiak, goticoak dira asko, ots, XIII, XIV gizaldikoak. Orain iru dauzkat gogoan: Ondarroa'kua, Errenteria'kua (galdua zoritxarrez) eta Zerain'goa. Irurak gotico jatorrak. Gure koplak bezala? Batzuek eta besteak, denak, elkarrekin sortuak? Zegaitik ez?

Detalle polit bat orain. Uskeri bat.- Ba dakizute Santa Clara'ren irudiak, Custodia bat eraman oi dutela eskuan, Santaren ezaugañ bezela. Custodi ori, jakiña, Irudi oietan, goticoa izan oi da: ots, ez biribilla: luze-antzekoa baizik. Bada, berdin baita gure koplari onek ere, VII koplak ere: *Kustorioa* aipatzen duanean, ba'dirudi detalle gotico bat erantsi nai diola berak ere, *Jesus'en* orde, *JESUSA* -olaxe, artikulodun- erantsiz, *JESUSA BIZIA*, beste koplari *San Prantziskua* dion bezela. Dena gotico, dena zahar... Santaganako jaiera gure errietan, Santaren irudiak gure elizetan, eta Santaren koplak gure Kopladian... Dana Erdi-Aroko.

Kantaren asierari buruz ere zertxobait esan nai nizuteke.

Euskaldun bakoitzaren txamarrapean, jakapean, "etimologista" bat eskutatzen dala, esan izan da. Ez da gezurra. Eta esaunda au ederkitxo betetzen da, ain xuxen, gure lenengo koplari onetan. "Clara" jtzaren etimologia edo iturria adierazi nai du koplari onek lenengo-lenengotik. "Bjeta Santa *Clara*, euskeraz `argia". Olaxe dio. Bañan, polit eta guzti, ez nagokio orain detalla oni; beste bati baizik.

Koplari onen asiera, orain Ondarrua'n onela da: "*Erderaz zara Clara*, euske-

raz "argia", Arrese ta Beitia'tar Felipe olerkari bizkaitarrak aldatu omen-zuan ortara koplaren asiera ori. Lendik eta jatorriz, beste era batera, esan dizutedan bezala: "*Bieta Santa Clara, euskeraz argia. Bieta* oni natxikio orain. Eta Erdiaroko ezaugarri bat dala diot au ere. Begira nola.

Bieta au berez *Beata da...* Kopla ori, Santa Clara "Santa" egin baño lenagokoa dalako? Ez det uste: beste zer-edo-zergaitik baizik. Orra. Guztiok dakizute, Euskalerrian, XV gizaldj arte, gaur Konbentu "itxi" diranak, artean *Beatarío*, Beata-etxe izaten zirana, ots, itxigabeko, *Klausura -gabeko* Beaterio. XV gizaldiaren bukaeran, Cisneros Kardinal sonatua izan zan, Beaterio aiek klausuradun konbentu biurtuarazi zituana. Ori Praide Prantzizkotarrak nik baño obeto esango lizuteke. XV gizaldi-bukaeran gertatu zan biurtze ori. Eta orain Konbentu baño geiago-askotaz ere geiago-bait-ziran Beaterio aiek gure errietan. Geiago eta ezagunago ta errikiago... Orain Mutriku-ta Gatzaga-ta Azpeiti-ta dauzkat gogoan...

Orra bada: ikusten dezutenez, gure kopla onen asiera, XV gizaldiko Beata'en izaera zahar arri dagokio bete-beteen. Santa Clara'ri *Beata* deritzo, edo ta obeto, zaharragoko esaeran oraindik, *Bieta* XIV ta XV gizaldiko oitura ta izaera zahar bati jarraituz. Egia, gero "monjak" eta "konbentua" ere aipatzen dituana. Bañan, *ia capita libri*, asieran eta personan bere kategoria-bere kategori oirua-eman bear dionean, XIV-XV gizaldiko modara, *Bieta, Beata* deitzen dio... Kanta eder-eder au orduko Biatentzat egiña zalako? Zergaitik ez? Nolanai dala, ez bait-zan orduko "bieterio" euskaldunetan gutxi kantatua izango olako kanta eder-ederra.

Azkenenko koplari buruz ere, zerbait esan bearrik badegu gai onixe berari jarraituaz-gure Kanta onen antziñakotasunari jarraituaz. Azkenenko kopla, satira bat da: monjaen kontrako satira txiki bat.

Monjen erregaluak,
intxaurrak oi dira;
aiek ere guztiak
bai piñak ba'lira...

Euskalduna, beti ere ironiko bortitza degu... Aldiz-aldiz ba'daki satiriko izaten ere. Bañan orain Erdiaroko oiturari natxikio berriz ere. Erdiaroa, beti ere, izugarri ausarta izana degu, Eliz-gizonen kontrako satiraetan (oroi batez ere Dante'ren Divina Comedia dalakoa). Eta, ain xuxen, gure kopla au ere alaxe da. Eliz-gizonen kontrako, ots, monjatxoen kontrako satira txiki bat. Ez, orratik, beste zenbait Literaturatan bezin gordin; humorezko satira baten neurriak baizik... Euskal-poesiaren humorismoa: orra or beste Itzaldi batentzako gai polita. Izan ere, gure erri-poesia beti izan da humorista.

Dana dala, lenera jo dezagun eta esan berriz ere, gure kopla onek Erdiaroko ironia dariola, Erdiaroko usai sendoa nunnaitik: euskaldunoi ain gogoko zaiGUN ironi edo irri-izketa... Beste noizpait, gai au ukituz, egingo degu beste itzaldiren bat, gaur ukitzeke uzten ditugun beste zenbait gauza ta gai sartuaz eta apur bat edatuaz.

Eta geldi bedi gaurkoz ontan gai au: Santa Clara'ren Kanta eder au egiazki Erdiarokoa dala, zalantza gabe Erdiarokoa: XV-XIV gizaldian sortua, eta gaur arte gure Erriaren aoan zorionez irauna.

•• ••
•• ••

Baña orain, bukatu baño len, uki dezagun labur-laburki, asierako beste galde ura:

Nundikakoa degu gure Kanta au? Zein konbentutan sortua?- Konbenturen bateko Fraideren batek sortua bide bait-da zalantzarik gabe...

Gazteiz'ko konbentutan sortua izan zitekean ederkitxo. Gazteiz'ko konbentu sonatuko Fraideren batek aterea, erriaren deboziogarri... Artean, Gazteiz, euskaldun bait-genduan bete betean XIV-XV gizaldietan. Eta, batez ere, Euskalerrri guzitik ara joaten bait-ziran ta an fraidetzen, San Frantzizko'ren Ordenako fraide izan nai zutenak.

Bermeo'ko konbentutan sortua? Ba'zitekean ori ere.

Baña, egia esan, gogozago entzungo genduke guk, Kanta bikain au-beste asko bezala-gure Arantzazu'ko konbentutan jaioa dana. Pozikago entzungo genduke. Bai bait-zitekean, izan ere; ondotxo bait-zitekean gañera. Euskerazko beste kanta eder asko, anditxik atereak dira zalantza gabe-gure Aita Mitxelena'k ain egok; alkartu ta josita ezagunerazi dizkigun Arantzazu'ko Amaren erromance ta kanta ederrak alegia... Aietaz gañerako bat geiago ez ote dan gure au, Santa Clara'ren izena gure errietan ezagunerazteko ta goratzeko aterea...

Nunnaikoa dala-eta orain olerkariari gaxizkiola-etzan makala, ezta ez nola-naiko olerkaria, kanta errikoi jator ta berezi au atera zuana. Bañan utzi dezagun ori beste Itzaldi baterako.

Lekuona'tar Manuel



On Manuel Lekuona'ren eun urtegarrena beteteko jaiak ospatu dira Oartzunen azken Gabonillean.

"Euskerazaintza" k ezin aaztu dau erri euskeraren alde ainbeste lan egin eta agertu zitun gure On Manueli ik eta zenbaki onetan bere itzaldietako bat argitaratzen dogu, bere omenez eta oroipenez.

OÑATIBIA'TAR MANUK JASOTAKO ESALDI JATORRAK

- GOGOAK EMATEN didanean egingo det. ●●●
 - ENDREA-MAKILLA ONA DA URA... ●●●
 - EGUZKIA ETZATERAKOAN, MENDI-EGATZAK dizdiratu egiten dizkik. ●●●
 - BERTAN GOXO EGINGO NUKE. ●●●
 - BURUTIK EGIÑGO ZAIT. ●●●
 - Ixildu BEIÑ-BETIKO! ●●●
 - Menditik bera JE_LXIAZ-JETXIAZ DATOR. ●●●
 - AN-EMEÑKA eperrak dabilta. ●●●
 - GERO TA GERO urrerago. ●●●
 - BERTAN BERA ixildu dira. ●●●
 - IÑUN GOZORIK BA'DA, AUETXEK AO-BETEKOAK! ●●●
 - Jakin badakit. ●●●
- Zer eguraldi dan begiratutakoan:
- Ez dezu begiratu bearrik: EUDIYA DA ●●●
- 15 egunean eudia eta eten gabe egin ondoren:
- Orain, ELURRA BERRIZ. ●●●
 - EGUNA JOAN ETA EGUNA ETORRI; beti eudiya. ●●●
 - JOAN AURRETIK, deitu. ●●●
 - ZER ESATEN DIDANAREKIN, deituko dizut. ●●●
 - GOIZ NAIZ. ●●●

Dana laiño dagoala:

- Eguzki ITXURIK EZ DAGO.

•••

Sarritan berebil bateko alarmak jo egiten duala-ta:

- Berebil onen jabea, ZEIN BA'DA ERE, salatzea merezi luke.

•••

Bere emaztea elbarritua egon eta kalera ateratakoan:

- Orain ere IBILLI BAT EMAN DIOT, eta pozik.

•••

- JENDEAREN EMANA aundia zan.

•••

Presaka zebillela adierazteko:

- Paperak artu ta ERIOSUAR irten nintzan.

•••

- NOIZIK BEINKA au egiten det.

•••

- ORAIÑDIK ORAIÑ, au gertatu zait.

•••

- ERDI-LOTAN NEGOEN eta esnatu egin nauzu.

•••

- ZAI-ZAI egon naiz, baña ez da etorri.

•••

- Atea ondo itxi al dezu?

•••

- Bai, ama! GILTZA TA GUZTI!

- Joxe'ri zer gertatu zayo?

- Operatu, TXARRERA JO ta iru egun barru il; zortzi egunen tartean, b; anal il dira.

•••

- Donosti'ko kaleetan, euskera, Bilbao'n EZ BP7ELA entzuten da.

•••

- Zikin xamarra dago ta IRRIXTAKO BAT EMANGO DIOT.

•••

- Oyek danak apuntatu bear ba'dituzu, ez dezu MAKALETAKO LAÑA artu bear!

•••

- Min aundia al dezu?

- ONDOEZA EGITEKO AÑAKOA EZ, baña ORTXE-ORTXE!

•••

- PIXKA BATERAKO BA-GAUDE!

•••

- Bi ILLABETEREN BURUAN JAKIN DET.

•••

- liluntzen asi du ta laister eudia.

- Bai ote?

Andik pixka batera:

- Eudia asten du.

- EZAGUÑ ZUAN!

•••

Oñatibia'tar Manu'k jasoak